Mogel-en *Peru Abarca* dalakotik¹ eredu honeek hartzen ditugu: *ezdogu icusi aserratuta ez bere nausiaguaz*, ez bere *nebaacaz*, 106 orr.; *Olara biar dogu, ta bazuaz ceure soñoco bichidun ta ederracaz, urtengo dozu sartu cinialaco damubaz*, 116-117 orr.; Mikoletak XVII-garren gizaldian²: *lelengo, lau alcandora euren ydun lechuguillascoacas*, 30 orr.; RS dalakoan 1596-garren urtean³: *Muxica arerioacaz aguica* «Muxica a dentelladas con los enemigos», n.º 270; *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi* «por las treguas de Butron no dexes las armas», n.º 404.

1. Juan Antonio de Moguel, *El doctor Peru Abarca*, Durango 1881. Igaz Gerediagararrak eginiko edizino erretratuzkoa dogu orain.

2. *Modo Breue de aprender la lengua vizcayna compuesto por el Ido. Rafael Micoleta, presbyrº de la muy leal y noble Villa de Bilbao*, 1653, Sevilla 1897. Edward Spencer Dodgson-ek eginiko edizinoa. Bigarrena da.

3. *Refranes y Sentencias*, Pamplona 1596. W. J. Van Eys-en edizinoa, *Proverbes basques-espagnols*, Genève et Bale 1896.

3. Ablatiboan *-tarik* eta *-etarik* bere sartu beharko lirateke, hainbat kasutan *arrantzaleetarikoa* eta horrelakoak hain zuzen bere Bizkaian oraindino erabilten doguzalako eta horrexegaitik beragaitik sartu zirealako euskera batuaren deklinabidean bere, Ifarraldekoak erabilteaz ganera.

4. Destinatiboa kasu batzuetan *-ko* da. Esaterako: *betiko*, *geroko*, *ekarteko*, eta abar. Bestea danean, *-(r)entzat* formeari jagokona, esan behar da Bizkaiko euskalkian badaukala *-(r)endako* aldaerea bere eta euskera batuko deklinabidean badatorrela.

5. Ondo dago *baten* formea inesibo kasurako, baina artikulua badaroa *batean* da. Biak erabilten dira eta erabili bere ondo.

6. *Batzuren*, *batzurentzat*, *batzutan*, *batzutara*, ez dira Bizkaiko formak inondik bere.

7. Eta ez naz sartzen zehaztasun gehiagotan. Egia esateko Euskaltzaindiak argitara eban deklinabideak bardin bardin balio dau Bizkairako bere, bertako formak haututen badira. Falta dan bakarra, oker ez banago, *-gaz* da. Halan da guztiz bere oraingo barrian ez datozan Bizkaikoak badatoz batu-koan.

8. Aditzean *jatot* formea erratua izango da, *jatort* da zuzena.

9. *Deuat* eta *deunat* formen pluralak *deuadaz* eta *deunadaz* dira.

10. Bardin *dinoat* eta *dinonat* formetan: *dinoadaz* eta *dinonadaz*.

11. Mogel-en erara egingo balitz *dakarko* ipini beharko litzateke, eta ez zimentarririk ez dauken *dakartso* eta horrelakoak, eta izan bere ondo ipini dira *bekarko* eta abar, behe-rago. Era berean *daroko*, *darabilko*, eta ez *darosatso*, *darabiltso*, eta abar. *Eroan* aditzari jagokonez esan behar da RS dalakoan *deroat* «me lo lleva» eta *daroa* «lo lleva» datozala eta horretara *dekarko* eta abar beharko liratekeala tradizino zaharrari jarraitu gura bajako⁴.

RS 1596: *Tacoc deroat dodana neure eherean cejara* «para me lleua lo que tengo de mi casa al mercado», n.º 82, baina *Beloritac berea daroa* «el rollo lo suyo lleua», n.º 196, eta *ezta gachic aldiac ez daroceanic* «no ay daño que el tiempo no le lleua», n.º 221; *Badeguioc ññori, eyngo deusc bestec yri* «si hazes a alguno, harate otro a ti», n.º 13, baina *zaran bat daguiñac bi day* «quien hiziere vn cesto hara dos», n.º 34, eta abar.

Mogel-en *Peru Abarca* dalakotik, oster, hurrengo hau ater, daiteke: *Guizon onac jaso naguizu ta ezarri oera. Dakardela barberua*, 76 orr.; *Datorrenian ona Jangoicuaeren deicoren bat, icusteco ta poztutecua da, celan, bata baño bestiac aurrerago diriala, daruaquen arto zatija edo catillucada saldia*, 105-106 orr.; *Campae otsa dozu barriz. Atsuari daruaque abadía. Ilten bada juañ zan nire*

4. Alfonso Irigoien, «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario», *Euskera* III (1958), 105-132 orr.

querellia, 81 orr. Eta 34 orrialdean dino: «Un solo ejemplito entre muchos bastará para aclarar lo que digo.

«*Necarzuzan...* Yo te los traía.

«*Cecardazan...* Tu me los traías.

«*Ecardazan...* Aquel me los traía.

«*Guencarzuzan...* Nosotros te los traíamos.

«*Cecarguzan...* Vosotros nos los traíais.

«*Ecargubezan...* Aquellos nos los traían».

12. *Noa* eta abar ipini badira, gero *noanean* egiteko, *ninoan* behar da eta ez *ninoian*.

13. *Eroakon* eta abar, eta ez *eroatsan*, ..., *ekarkon* eta abar, eta ez *ekartsan*, ..., *erabilkon* eta abar, eta ez *erabiltsan*, ..., *balekarko* eta abar, eta ez *balekartso*, ... Begiratu gorago Mogelen adibideak.

14. *Daitson* eta holako formak *deion* dalakoaren ordeztu bakoak dira. Azkue-k berak bere honela biltzen ditu Bizkaian eta inguruetan bere Morfologia egiteko erabili eban eskuzko koadernuan: «Elorrio *daidxodala*, Amorebieta *deidxo(d)ala*, Anzuola *deidxodala*, Aramayona, Ubidea *daixo(d)ala*, Bakio *deidxodala*, Barrika *daiodala*, Bermeo *daidxodala*, Berriz *daidxodala*, Eibar *deixorala*, Begoña *deixodala* [ez dago argi], Legutiano *daidxodala*, Lekeitio *daidxodala*, Mondragon *daixodala*, Gernika *deidxodala*, Nabarniz *daidxodala*, Orozko *daiodala*, Olaeta *daidxoala*, Bolibar *daixodala*, Zeanuri *daiodala*, Zigoitia *daiodala*». Baita bere «Amorebietā *dei(d)azula*, Anzuola *deidazula*, Aramayona, Ubidea *daidazula*, Bermeo *daistazula*, Berriz *daidazula*, Eibar *deirazula*, Begoña *deidezule*, Lekeitio *daidazula*, Mondragon, Leniz *daidazula*, Gernika (Ajangiz) *deidezule*, Nabarniz *daidazula*, Orozko *daistazule*, Olaeta *daistazule*, Zeanuri *daidezule*», eta era berean «Barrika *daidala*, Eibar *deirala*, Begoña *deidela*, Mondragon, Leniz *daidala*, Gernika (Ajangiz) *deidela*, Nabarniz *daidala*, Orozko *daistela*, Olaeta *daistela*».

Ikusten danez Bermeon *daistazula*, baina *daidxodala*, Orozkon eta Olaetan *daistazule* eta *daistela*, baina *daiodala* / *daidxodala*, era barriko formak ditugu. Azkue-k, itandu eban lekueran behintzat, ez zituen *iast* eta *dast* erakoak bildu, baina Txorierrin erabilten direanen lekukotasuna nik neuk emon nei. Halan da guztiz bere holakoak erabilten dituenak eurak *iako* edo *dako* eta horretarikoak esaten dabez, azkenengoa Derio eta inguruetan.

Argi dagoenez forma barriok *deust*, *deustazu*, eta abar, datiboari begira dagozanetarikoen kontaminazioz sortu dira, eta lehenengo momentu baten *daisten*, *iast*, eta horretariko formetan hasi bazirean bere, badirudi oraintsu non edo nongo fokoren baten sistema osorako erabilten ekin jakola, *deitsa*, *deitsodan*, eta horretarikoak eurak bere ontzat harturik, neofoma indargura barriko legez begien aurrera ekarten jakuzala. Gauza bardintsua gertatzen da gorago ikusi ditugun *dakartso* eta horretarikoakaz.

Oraindino 1895-garren urtean Ama birjineaz liburu bat argitara eban deboto batek *daigun* erako formak eta *deidazula* erakoak bakotxa bere arlorako erabilten ditu⁵: ..., *ta guero guztioac zoriontasunean alabadu daigun bere Semeagaz batera*, 5 orr., alderdi batetik, eta *escatuten deusut jarichi deidazula ceure Seme Jesusgandic biotz otzana ta umildea*, ..., 52 orr., bestetik.

15. *Zedin* lehenago da *eitean* baino. Zaharretan *zidin* agertzen da asimilazioaren bidez. Beste alderdi batetik esango neuke *eiten* dala esaten dana eta ez *eitean*. Izan bere jagokon lekuan *naiten* eta abar ipini dira.

16. *Neintekio* formearen ordeztan *nenkikio* eta abar ipini beharko lirarteke. Arrazoi berberagaitik *nakikio* orainaldian. Bardin *nenkikion*, eta ez *neintekio* eta abar.

RS 1596 dalakoan: *aspertu banequio asper lequiquet* «si me le yo vègasse, vègarse meya», n.º 10.; *Egaz manequi ora nequiqueo choriari* «si volar supiesse trabaria el paxaro», n.º 230.

17. *Daiket*, *daike* eta abar sartzen direan paradigmearen hurrengoa, «zer-nori-nork» formei jagokena, hutsik dago nota bat dauela ondoan. Halan dino: «Idatziz, literatura mailan ez da inoiz erabili». RS 1596 dalakoan hau dator: *Az ezac eroya, diratâ beguia ta mutil guextoac quendu deyque arguia* «cria al cueruo, sacar te ha el ojo, y quitar te ha la luz el mal moço», n.º 136, datiboari begira dagoenez gero *-e-* dauela sustraiaren aurretik.

Daiket, *daike* eta abarrek ohar bat daroe dinoana: «Forma honeek literaturaren tradizioan oinarriturik badagoz bere ez dira entzuten». Eta izan bere holan da. Mogel-en *Peru Abarca*-ko testo bat ekarten deust gogora autore horren erabilpidea erakusteko: *¿Noc sinistu lei, guizonen premiña бага artu daiqueezala linuac dacazan, ta enzun dituzun arazo ta lor guztijac?*, 147-148 orr. Alderdi batetik *sinistu lei* eta bestetik *artu daikeez*, batak eta besteak bakotxak bere arloko zeregina ondo beterik. Haren testoan *daiket* erakorik sarri agertzen ez bada bere badauka beste bat: *Zuc zeure soñoco bichidunoc baño, nic gueijago estimetan dot buruco ule trenza guerrirraño elduten jatana, ta zapi бага nun nai erabilli daiquedana*, 70 orr.

18. Beste alderdi batetik ez legoke ezelako problemarik *dakarko* eta arlo horretako ganerakoan ordeztan *dakarkio* eta abar ipiniko balitz, baina ez da beharrezkoa *dakarko* ipinten bada. Horrela ez gara urruntzen besteakanik.

Aulestin 1982-garreneko abuztuaren 5-an.

5. *Jaungoicoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren bizitza, bere debociñoeco eguizuzun, erregru ta cantacaz gueituta, deboto batec iminia*, [Durango 1895].

UNA TRADUCCION DE URIARTE AL VASCUENCE ALAVES: LA BULA INEFFABILIS DE 1864

Endrike KNÖRR

Piarres Lafitte jaun kalonjeari, euskalari eta euskaltzale gailen eman duen exenpluagatik.

En el Archivo Provincial de Alava existe un manuscrito ricamente encuadernado en terciopelo azul celeste y con bellos herrajes, que contiene una traducción vasca de la Bula *Ineffabilis*, documento dado a la luz por Pío IX sobre el dogma de la Inmaculada Concepción en diciembre de 1854¹.

Un epílogo en latín nos indica que se trata de una versión «a la lengua vasca, dialecto de la provincia de Alava», y que su autor es José Antonio de Uriarte, franciscano del convento de Bermeo, habiéndose concluido el trabajo el 16 de mayo de 1864. A continuación, también en latín, se lee una autorización de Mariano de Estarta, *Commissarius Provinciae Cantabriae*, bien conocido por los estudiosos de Uriarte.

No es ésta la única versión que Uriarte hizo de la Bula *Ineffabilis*. En su correspondencia con el Príncipe Bonaparte, Uriarte habla de ésta y de las que realizó al vascuence de Navarra y Guipúzcoa². Hay, además, una traducción vizcaína, dicho sea en el sentido geográfico de la palabra, que se conserva en el archivo de los Franciscanos de Zarautz³.

1. Archivo Provincial de Alava, D. H. 140-7. Agradezco muy sinceramente a M.^a Camino Urdiain, Directora del Archivo, la amabilidad que tuvo en comunicarme la existencia del manuscrito y procurarme su fotocopia.

2. «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», por Juan Ruiz de Larrinaga, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, XIV (1958), páginas 410-413.

3. La he consultado gracias al P. Aranguren. Referencias a estas versiones y la localización de la vizcaína, en Villasante, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao 1961, página 265. En este libro se encuentra sin duda la mejor aproximación también a Uriarte, con bibliografía. De la versión vizcaína pienso ocuparme en otra ocasión.

Dado que, según el propio Uriarte en una carta a Bonaparte⁴, la Diputación de Alava fue la que mandó encuadernar esta traducción, cabía buscar un reflejo de esta decisión en los documentos oficiales de la Corporación foral. Y, en efecto, hay un discurso del Diputado General ante las Juntas Generales de mayo de 1864, publicado en un librito, donde se lee lo siguiente:

«Esta Diputación general, siguiendo la misma conducta que las de Vizcaya y Guipúzcoa, ha encargado al ilustrado vascófilo R. P. Fr. José Antonio de Uriarte, la traducción al vascuence que se habla en algunas hermandades alavesas de la Bula *Ineffabilis Deus* sobre la definición dogmática del misterio de la Inmaculada Concepción, con el objeto de ofrecer humildemente dicho trabajo al piadoso y Santísimo Papa Pío IX, como débil muestra del respetuoso afecto que le profesa esta Provincia».⁵

BREVE COMENTARIO AL TEXTO

El texto, que ofrecemos en su totalidad, tiene 61 páginas, escritas en buena caligrafía, al parecer del propio Uriarte, con la inclusión de varios grabados con motivos religiosos y una dedicatoria por el Diputado General, a la sazón Ramón Ortiz de Zarate, más el epílogo de Uriarte y Estarta⁶.

Se trata de una versión que podemos calificar de libre, en que un propósito pastoral ha prevalecido sobre cualquier otro de lucimiento estilístico o sumisión al texto latino original, según se desprende de una comparación con la Bula publicada en los *Analecta Juris Pontificii* y las traducciones castellanas accesibles. Es un texto donde en ocasiones se siente una cierta pobreza léxica, v. g. el empleo de *gauza*, y una actitud casi de resumen de cada uno de los párrafos del original.

¿De qué «hermandades alavesas» es el vascuence aquí empleado? La identificación en conjunto no ofrece problemas. Un somero examen lleva a excluir inmediatamente las modalidades de otras zonas alavesas como Aramayona, Olaeta, Villarreal y Cigoitia. Formas verbales como *daude* (=dute) y *euden* (=zuten) nos orientan decididamente hacia Barambio y Llodio, no Arratia (no hay en este texto *biotz*, sino *biyotz*, etc.). Esta zona de Llodio con la

4. La que hace la número 168, *loc. cit.*

5. *Discurso del Señor Diputado General de esta M. N. y M. L. Provincia de Alava, pronunciado en la primera Junta*. Vitoria, Manteli 1864. La repercusión de la Bula queda registrada también en una circular enviada a los Ayuntamientos por el Teniente Diputado general en ejercicio, Genaro de Echevarría, con fecha 23 junio 1855, acerca del acuerdo de celebrar funciones religiosas en todos los pueblos de Alava. Causa tristeza que la atención a la lengua vasca evidenciada en la traducción que comentamos no se encaminara, que sepamos, a la producción de libros escolares y provisión de maestros adecuados.

6. La misma mano es, al menos, la que escribió esta versión alavesa y la vizcaina conservada en Zarautz.

comarca de Orozco, son próximas a la de Arrigorriaga, de donde era natural Uriarte.

La impresión que se saca de una comparación morfológica es que el autor, ducho en traducciones religiosas, entre ellas de catecismos a diversas variedades de Vizcaya⁷, tomó como modelo el conocido catecismo de Astete en el habla de Llodio, que tantas ediciones tuvo⁸. La semejanza es casi total. Sin embargo, Uriarte parece haber preferido, en esta oportunidad, eliminar formas que él sabía eran entonces muy locales. No encontramos en esta traducción de la *Ineffabilis*, por ejemplo, las formas *artzaiten*, *eltzaiteco*, *galzaiten* del catecismo de Llodio, sino más bien *artuten*, *elduteco* y *galduten*. Creemos, por otro lado, que una traducción de este tipo, como la de un catecismo, cuya función primera es desde luego instruir en el cristianismo, tiene un valor relativo desde el punto de vista dialectológico, menor, es evidente, que un texto espontáneo emitido por persona que reúna las conocidas características con que sueñan los encuestadores.

Por ello mismo se ven algunas formas dobles en el texto de Uriarte, como en el Astete de Llodio. Mencionemos, por ejemplo, *emotia* y *emoitia* en el primero, y *emotea* y *emoitera* en el segundo, o *ifini* e *imini* en éste.

Acaso la divergencia más llamativa entre el Astete de Llodio y la *Ineffabilis* alavesa es, exceptuando lo indicado arriba, el empleo de *euen* por Uriarte, en tanto que el catecismo muestra siempre *eban*.

Para terminar estas breves notas, recordemos que, según la clasificación de Bonaparte, estamos ante la modalidad Occidental del dialecto vizcaino, variedad de Orozco.

7. *La doctrina cristiana traducida al vascuence, dialecto vizcaino, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano*, Londres 1862. El encargo era del Príncipe Bonaparte y no llegó a publicarse más que un espécimen.

8. La primera, salvo error, de 1828, y la última de 1909. Bonaparte hizo una edición en Londres en 1858. Se sabe era utilizado fuera de Llodio. Villasante, *op. cit.*, pág. 393, dice se usaba en Orozco.

AL
SANTISIMO PADRE
PIO IX.

La M. N. y M. L.
Provincia de Alava.

Vitoria día de Sn. Ygnacio de Loyola.
31 de Julio del año de 1864.

El Diputado General
Su humildísimo hijo

Ramón Ortiz de Zárate*

Gure Jaun guztiz santu
Pio Bederatzigarrenaren
Jaungoicoaren Probidenciyaz
Aita Santu danaren
Apostolu letrac;
Ama Doncella Mariyaren
Sorrera garbiya
Fedeco eguiyatzat
Imiñi euenian
Emonac.

* Es firma y rúbrica. A la izquierda aparece el escudo de Alava.

- [1] Pio Obispo Jaungoicoaren serbitzariyen serbitzariyac betico gomutaraco.

- [2] Jaungoico, berbacaz adierazo ecin leiquianac, ceñen bidiac dirian erruquiya eta eguiya, ceñen borondatia dan guztiya eguin al izaitia, eta ceñen yaquituriya elduten dan gogor ertz batetic bestera, eta guztiya eguiten dauenac biguntasunagaz, lenagotic ezauturic betico iraun guztiric mundu guztiyaren galtzai guztiz negargarri, etor- / rico zana Adanec eguin euen pecatutic, eta erabaguiric guizonentzat ezcutauta egoan misterioy bategaz, Jaungoicoaren semiac guizonaren araguiya artuta, bere ontasunac erabagui eraguin etsan lelengo gaucia, bere erruquiyac salbau gura euen guizon, diabruac pecatuan yausi eraguin etsana bere astruciyacaz, betico galdu ez cedin, eta lelengo Adanegan yausico zana, bigarrenian zoriyontasun gueiyagogaz altzau eta ereguiya izan cedin, autu eta prestau euen asieratic eta mundua baño lenagotic bere seme bacarrarentzat Ama bat, ceñegandic guizon eguinda, yaiyoco zan demporen betetasun zoriyonecoan, eta Ama ori, izatia dauquien beste gauza guztiyen ganetic aimbastian amau euen ce, beragan bacarric eu- / can atseguñic andiyena. Orregatic bete euen ceruco doe, graciya eta mesede dogaric eta borondatez emonico, Jaungoicotasunetic ateraricoacaz, angueru eta santu guztiyen ganetic, alango ugaritasunagaz, ce, berac bacarric egonic pecatu guztiyaren manchatic beti eta guztiz garbi, eta izanic guztiya ederra eta osoa, eracusten euen ontasun eta santidadeco alango betetasuna, ce, Jaungoicoa bera ez izanic, ecin iñori burura bere etorri leiquiyo andiyagoric, eta Jaungoicoa bera ez izanic, iñoc ezin alcantzau leique, ezda pensamintuz bere. Eta eguiyaz, zan gauza guztiz ondo cirudiyana, argui eguin eiyaleta beti santutasunic osoenaren arguitasunagaz, eta yatorrizco pecatuaren beraren manchatic bere guztiz garbi egoala,
- [3] Ama ain beneragarriyac / irabaci eguiyola achinaco suguiari garaitzaric andiyena, erabagui euelaco Aita Jaungoicuac Ama oneri emotia bere seme bacarra, cein izanic sortua bere biyotzetic beragaz bardiña, ametan dauen berac berbera leguez; eta erabagui euen emotia ain modutan ce, berez izan cedilla alde batera Aita Jaungoicoaren eta Ama Virginiaren semia, eta cein semiac berac escogidu euen, eguitemo izatez bere Ama, eta ceñegandic Espiritu Santuac gura izan euen, eta eguin bere alan eguin euen, sortua eta yaiyoa izan cedilla Aita beticoaren semia, ceñegandic Espiritu Santua berbera datorren.

Etta Doncella eta Erreguiña onen yatorrizco garbitasun, guztiz oratu eta batua bere santutasun miragarriyagaz eta Jaungoicoaren

- [5] amatasunaren digni-/ dade goratuagaz, Elessa Santiac, cein Espiritu Santuac beti iracatsiya izanda, dan eguiyaren pillar eta gogorgarriya, ez dau iñozberere ichi, bestiai aurrian imiñi, gogortu, arguitu eta ulertu bagaric gueiyago eta gueiyago egunerico egunera errazoi ascogaz eta obra arguitsuacaz Jaungoicoaganic arturico dotriniaren yaubia, eta ceruac aguerturico eguiyaren gordelecuan sartua leguez. Dotriña au bada, gogor irauten dauena achinaco demporatic, yosiya guztiz gogor cristiñau fedia dauquen arimetan, eta munduco cristiñau guztiyen artian miragarrero zabaldua Elessaco buru onen contu eta arduriagaz, aguertu euen ondo arguiro Elessa santiac berac atzerapen eta duda bagaric, baiya emon eutsienian cristiñauai beneretaco eta elessagauzac / aguirian eguiteco Mariyaren beraren sorreriar. Gauza eguiyaz arguitsu onegaz, aurrian imiñi eutsien Virginiaren beraren sorreria, bacarra, miragarriya eta beste guztiyen asieratic guztiz desbardiña, eta guztiz santia leguez, Elesgauzac eguin eiquiyozan, Elessiac bacarric santuai Elesgauzac eguiten deusiezan ezquero. Eta orregaitic, liburu santuac iñoz eguiña izan ez dan Yaquituriyagaitic esaten dituezan berbarañocoac, eta ceintzuecaz emoiten daudezan bere yatorri beticoaren irudiyac, iminten izan dauz Elessaco errezueta eta mezaco liburueta, eta emoiten izan deusaz araco Doncellien sorreriar, cein erabaguiya izan zan Jaungoicozco Yaquituriyac araguiya artuteco eguin zan erabaguiyan bertan.
- [6]
- [7] Baya fedia dauquien cristiñauac / esateraco lecu guztiyeta, sinistu daudezan gauza guzti oneic adierazoten badaudie bere, celango arduriagaz beguiratuten euen Elessa Santa Erromaco, guztiyen ama eta iracasliac Ama Virginiaren sorrera garbiyaren siniste orregaitic, alambere elessa onen obra arguitsuac dira eguiyaz, eurac bacarric berariz aitatuteco duiñac, Elessa onen diñade eta escubidia ain andiyac dirian ezquero, celangoa leguez eta berez zor yacon, fedia dauquien cristiñauen eguia [sic] eta bat-tasunaren barru eta erdiya danari, ceñetan bacarric iraun euen, iñozberere ausi bagaric, fede eta siniste eguiyazcoac, eta ceñegandic artu biar daudien beste elessa guztiyac fedeco iracatsi eta dotriña. Alan bada, Erromaco Elessiac berac ecetaraco bere ez euen aimbete aleguin eguin, cein da, iracatsi, gorde, zaindu eta zabaldueteco milla era eta mo-/ dutara eta aibat viciro eta arguiroen, Ama Virginiaren sorrera garbiya, eta berari eguinico Elessaco gauzac, eta bere ganeco sinistia, arguiro eta viciro eracusten daudien leguez gu baño lenagoco Aita Santu Erromacoen aimbete eguite eta gauza, eguiyaz entzute eta ospe andicoac, ceintzuei Apostoluen Principiagan Jesucristo gure Jaunac emon eutsien; bildotsac eta ardiyac gordetaco escubide ta arduria, baitabere anaiyac gogortuteco eta artez erabilteco elessa guztiya.
- [8]

- Eta eguiyaz Aita Santu Erromaco, gu baño lenago izan dirianac, guztiz asco portuten [sic] cirian imintiagaz Erromaco Elessan, euren escubide, Apostoluacgandic etorquienagaz Ama, Virgiñiaren sorreraco yaiya, eta gueitu ta apaindutiagaz bere errezu eta meciagaz,
- [9] ceintzuetan arguiro eguiyaztuten zan, yator-/ riz dacargun pecatutic garbi egoala, eta zabalduten alde guztiyetatic imiñi zan yaiya, bai emonic parcamenac; bai ichiric uri, privinciya eta erreñuai artuten euren yagola eta gordetzallatzat Jaungoicoaren Ama bere sorrera garbico icenagaz; bai ontzat emonagaz Mariyaren sorrera garbiyaren ondran iminirico cofradiyac, batzarrac, eta erreligiñoac, baita alabantzac emonagaz Mariyaren sorrera garbiyaren icenian gauza onac eguiten eudezanai, celan dirian combentuac, gueissoteguiyac, altarac, elessac; edo juramentuaren bian esquintzen eudenai gordetia gogor eta garratz Jaungoicoaren amaren sorrera garbiya. Onezaz ganera pocic erabagui eudien Ama Virgiñiaren sorrera garbico egunac Elessa
- [10] guztiyan yai izan biar euela, bere Yaiyotzaco eguna / leguez, eta Elessa guztiyac celebrau biar euela zortziurrunagaz, eta guztiyac gorde biar eudiela beste yai osoac leguez, eta urte guztiyetan Ama Doncelliaren sorreraco egunian eguin cedilla Aita Santuaren batzarra gueure Elessa nagusi Liberioenian. Eta sartu guraric gueiyago ta gueiyago eguneric egunera cristiñauen arimetan Jaungoicoaren Amaren sorrera garbico iracatsi eta dotrina au, eta ecarteco cristiñauen euren biyotzac onretara eta beneratara yatorrizco pecatu bagaric sortua izan zan Ama Doncella bera, guztiz poz andiyagaz eta borondate osoagaz emon eudien escubidia, Ama Doncelliaren letañetan, baita mezaco prefaciyoarañocoan bere confesau ta adierazo cedilla Ama Doncelliaren beraren sorrera garbiya; eta alan erregu eta oraciñoiaren beraren leguiagaz, imiñi cedilla fe-/de eta sinistiaren leguia. Guri yagocunez, eta yarraituten deutsegula gueure aurretico
- [11] Aita Santu ain arguitsuen oñatzai, ez bacarric gueuretzat artu eta ontzat emon dogu eurac aimbete debociño ta yaquituriyagaz imiñi eta erabagui euden guztiya, baitabere onezaz ganera, euquiric gogoan Sisto laugarrenaren erabaguiya, aguindu guenduen gueure escubidiagaz, iminteco Mariyaren sorrera garbico errezuac, eta pocic andiyenagaz emon gueuntzuan Elessa guztiyari errezu oneic eguiteco escubidia.

- Baya errezu ta elessaco gauzac dagozan leguez eurac eguiten yacozanagaz batu eta arcalturic, eta ecin irauñ leiyen leguez ondo eta gogor, eguiten yacozana badago ezbaiyan eta locaturic, orregaitic gu
- [12] baño lena-/ goco Aita Santu Erromacoac zabalduten eudezarian aleguiñic andiyenagaz Ama Doncelliaren sorreraco errezuac eta beste gauza elessacoac, aleguinac [sic] eguin eudiezan, eta ardura andiya imiñi eudien arguiro adierazoteco nori eguiten yacozan, eta cer zan

- eurac sinistu eta iracasten eudena; bada artez eta arguiro eracutsi eudien, celebretan zan yaiya zala Ama Doncelliaren sorreracoa, eta adierazo bere eudien, charra eta guzurrezcoa zala esaten eudienen erechiya ez yacozala emoitzen bere sorreriari, ezpada santutua izan une ta demporiari; cegaitic ece, gu baño lenago Aita Santuac eurac sinistu euden eurai yagoquiela gordetia arduraric andiyenagaz, erre-
- [13] zuac, eta elessaco errezuac zucenduten yacozana zala / bai Ama Doncelliaren sorreraco yaiya, eta bai sorrera au lelengo une eta instantian. Emeti datoz araco berba arguiyac, ceintzucaz Gu baño lenagoco Aita Santu Alexandro zazpigarrenac aguertu euen guztiz arguiro Elessa santiaren erechi eta sinistia, esaten euela: «Eguiyac, guztiz achinacoa da, Jesucristogan sinistuten daudenen erechi ona, bere Ama guztiz santa, Doncella Mariyaren ganian: erechi on, sinistuten daudienena, Andra onen arimia, bera eguiña izan zan lelengo une eta instantian, eta bere gorputzian sartu zanian, ez zala izan loitua yatorrizco pecatuaren manchiagaz, Jaungoicoaren doe eta graciya andi baten bitartez, bere Seme eta munduaren Salbaguilla
- [14] Jesucristo gure Jaunac eguingo cituzan irabaci eta merecimentuac / gaitic; eta uste eta siniste onetan celebretan daudie errezu eta elessaco gauza entzute andicoacaz bere sorreraco yaiya».

- Oraindocorren gueiyago; yaquinic egon leitequezala legue eta erabagui oneic euren erara eta modura adituco dituezanen batzuc, guichitu eta indar bagaric imiñi gura leuquiela, legue onen bitartez eguiten yacon mesedia, esan dan dotrina eta yaiyari, beguiratu euden gure aurretico Aita Santu Erromacoac contu eta ardura andi bategaz, eta zaindu euden gogoric viciyen eta aleguific andiyenacaz, euquitia bere osotasun guztiyan Jaungoicoaren Amaren sorrera garbico eracutsi, dotrina eta sinistia; cegaitic ece, ez bacarric ez eudien iñozber
- [15] ichi iracatsi eta siniste au izan ez ledin ecelambere acha-/ quiyana, edo guichitan euquiya; baitabere onezaz ganera, igaroren ciriala oraindo ascozaz aurrerago, aguertu eudien arguiro eta sarri onen ganian berba eguiten eudenian, Ama Virgüña Mariyaren sorrera garbiyaren ganian gueuncan siniste eta erechiya zala eta izan biar euela beguiratua, elessaco errezu eta gauzacaz guztiz ondo batu eta arcaltuten zana leguez, cein zan achinacoa, eta esateraco mundu guztitic zabaldua, eta alangoa ce Erromaco Elessiac artu euela bere contura indarra emoiteco eta gordetaco, eta guztiz duin zala egoteco yacozan lecuan mezaco liburuetan eta aguriyan eguiten cirian errezuetan. Eta oneimbestegaz bere gelditu bagaric, eta iraun eiyan calteric bagaric,
- [16] esan dan Ama Virgüñiaren sorrera garbiyaren / ganeco dotrina eta sinistiac, galarazo euden gogortasun guztiz andiyagaz, esatia edo eracustia aguriyan edo issillian, siniste eta dotrina onen contraco gauzaric eta erechiric: baitabere esan leique ichi eudela egoera

charrian eta zaurituric alango erechiya. Eta erabagui ain arguitsu eta ain sarritan eguinac arpelac ciriala iñori erechi ez equiyon, eta guelditu ez ceitecen bete, eta osotu bagaric, eguin euden beste erabagui barri bat lengoacaz batuteco: guztiyan sartu euen gu baño lenago Aita Santu izanico Alexandro zazpigarren gloriyaz betericoac, berba oneitan.

- [17] [«] Gogoraturic Guc, Elessa Santa Erromacoac celebretan dauela ots eta zarata andiyagaz Mariya beti Virgiña garbiyaren sorreraco yaiya, eta bere onran imiñi cituzala berari yagoca-/ zan berarizco errezuac, *Sisto* laugarrenaren, gu baño lenago Aita Santu izan zana orduan eguin euen erabagui on eta alabagarriyaren erara; eta Gu baño lenagoco Erromaco Aita Santuen egemplura, gueitu guraric usadiyo eta debociño alabagarri ori, yai, errezu eta elesgauza oneic, ataraco emonac; eta asi cirianetic Erromaco Elessan errezu eta elesgauza orreic, iraun daudiela ecetan bere mudau bagaric; baitabere indar gueiyago emon guraric Ama Virgiña guztiz santia onrau eta bere egunac celebretaco gogo eta debociñoari, yatorrizco pecatutic aldendu eta gordia leguez Espiritu Santuagandic etorri yacon graciya baten bitartez, eta iraun eraguin guraric Jesucristoren artaldiyan
- [18] arimaco arcaltasunari baqueco soca, catia eta estugarriyacaz quen-/ du eta desegunic dudac, badezpadac eta ezbaiyac, arteztu guraric oquereraco eta gacheraco bidiaç, aiatu dirian obispo Jaunen escari eta erreguz, euren elessetaco bacoçaren cabilduacaz, eta Felipe erre-guiaren eta bere erreñuenacaz; escari eta erregu batzuc, eguiñac izan yacuzanac, barriztetan erabagui eta aguinduac, eta batezberere *Sisto* laugarrenac, *Paulo* bostgarrenac, eta *Gregorio* amabostgarrenac, esan eta eracusten daudenac gaitic, Ama Virginiaren arimia eguiña izan zanian, eta gorputzian sartua, Espiritu Santuaren eguitez, graciya eta mesedez izan zala gorde eta aldendua yatorrizco pecatutic; baitabere
- [19] Jaungoicoaren Ama Virgiña Mariyaren sorreraco yai, / errezu eta elessaco gauzen alderaco ta onian eguiten yacozala siniste on orren alde ta erara, esanic daroagun leguez, barriztetan doguzala, diñogu, esan dirian legue, aguindu eta erabaguiyac, eta aguinduten dogu, gorde ditecela, esan dirian legueta iminten dirian castigu eta penen bian.

- Eta onezaz ganera gura dogu, esan dirian legue eta erabaguiyac ain modutan ulertu eta azaldu gura dituezan guztiyac eta bacoçac, cein da, ursian ichiten daudien euren bitartez eguiten yacon mesedia, esan dan iracutsi, dotrina eta yaiyari, eta berari eguiten yacozan errezu eta elessaco gauzai; edo dudan iminten daudiezanac iracatsi, dotrina, yai, eta elessaco beste gauzac, edo onein guztiyoen contra artez, edo oquer; nai / edoçimbere achaquiayagaz; baita balitz bere
- [20]

- esaminetan celan dogoan [*sic*] erabaguita; edo azaldau ta arguituteco liburu santuac; edo Elessaco iracaslac, edo yaquintsuac; azquenic edoceimbere achaquiya edo gauzagaitic letraz edo berbaz atrebiduco balira berba eguiten, prediquetan, tratetan, disputetan, erabagui edo esaten daudiela cerbaist onen contra; eta iminten daudiezala arguidiyoac, eta ichiten daudezala erantzun, azaldau eta arguitu bagaric, edo dudan; eragoten deutsiela iñori burura etorri al leiquiyon beste edoceimbere modutan; gura dogula, esaten dogu, orreic guztiyoc, *Sisto* laugarrenaren leguietan dagozan castigu eta elessaco penen ganera, ceintzuec bete betian cossiuten daudezan, eta oraingoacaz dagozan cossiuric orduan-/ che bertan eta beste arguitasunic bagaric guelditu ditezala escubide bagaric prediquetaco, aguiriyari arguibidiac emoiteco, iracasteco, eta ulertuteco; eta eleccio modu guztiyotan iñor elegietaco, edo eurac elegiduac izateco; baita guelditu ditezala *ipso facto* eta arguitasun gueiyago bagaric ez iñoz ostera prediquetaco, arguibidiac aguiriyari emoiteco, iracasteco, eta azaldecaco castiguagaz; centzuetatic penetatic bacarric Gueuc edo gueure lecuan guero egongo dirian Aita Santu Erromacoac absolvidu leiyez, edo euracgandic alcantzau leiyecetan edo atan ascatuac izatia; baitabere bardin gura dogu, onelangoac igaro daguiyazala, Gueuc edo gueure lecuan yarten dirian Aita Santu Erromacoac iminten deutesiezan beste pena eta castiguac, eta orain emoten / dogun epai, eta sentenciayagaz euren mendian iminten doguz, barriztauric len aitatu dirian *Paulo* bostgarrenaren eta *Gregorio* amabostgarrenaren legue eta aguinduac.
- [21]
- [22]
- [23]

Eta liburu galerazoai imiñirico castigu eta Elessaco penen bian galerazoten doguz liburu guztiyac, ceintzuetan aurquituten dan dudaren bat, esan dan dotriña, eracutsi, yai, edo bere errezu, eta elesgauen ganian; edo centzuetan bere contra escribietan, edo iracasten dan cerbaist; edo ceintzuetan dagozan berba, sermoi, edo dudac gauza onein contra; galerazoten doguzala, esaten dogu, liburu orreic, arguitara emonac len goiyari aitatu dan *Paulo* bostgarrenaren erabaguiyac urten euenetic aurrera; edo emetic aurrera arguitara urten leiyenac; eta gu-/ ra dogu eta aguinduten dogu, arguitasun gueiyagoren premiña bagaric, izan ditezala euquiac galarazotzat.»

Orain bada ondo dago: gauza guztiz yaquiña da, celango gurari eta garragaz erreligiñoric arguitsuenac, Teologiyaco escolaric entzute andiyenecoac, eta Jaungoicozco gauzen ezaueran iracalaric yaquintsuenac adierazo, arguitu, zaindu eta gorde daudien Jaungoicoaren Ama Virgiñiaren sorrera garbiyaren ganeco dotrinia eta iracatsiya. Bardin da guztiyac daquiyen gaucia, ce arduratsuac izan dirian elesguizon Obispo Jaunac euren elesbatzarretarañoetan, adierazoten arguiro eta aguiriyari Mariya Virgiña guztiz santa, Jaungoicoaren

[24] Ama, Jesucristo gure Salbaguilliaren irabaci eta merecimintuai [*sic*] aurrez beguiratuta, ez zala iñoz egon / yatorrizco pecatuaren mendian, ezpada, izan zala guztiz aldendu eta apartaua yatorrizco orban eta manchatic; eta orregaitic izan zala erredimidua, era eta modu goratugo baten. Oneri erantziten yaco pensamendu guztiz baliyo andico bat, guztiyen artian baliyoric andiyenecoa, au da, Trentoco Elesbatzarrena.

[25] Batzar santu au yoianian imintera fedeco eguiyatatzat yatorrizco pecatua, Escritura, Elessaco guraso iracasla, eta Elesbatzarric entzuteri andiyenecoen iracatsiyagaz batera, eta euren erara, erabagui eta adierazo euen arguiro, Adanen seme alaba guztiyoc sortuten garijala yatorrizco pecatuagaz loituric. Erabagui au zabala bada bere, ordu atan beratan [*sic*] adierazo euen arguiro, ez zala bere gogo ta intenciñoa Jaungoicoaren Ama Virgi / ña guztiz Santa, eta guztiz garbiya dana, erabagui onetan artu eta sartutia. Berba oneicaz bada, Trentoco Gurasoac eracutsi eudien biar zan laimbastian, beguiraturic demporen cerceridadiari, Ama Virgiña guztiz santia aldendu eta apartaua izan zala yatorrizco orban, eta manchatic eta orregaitic arguiro adierazo eudien, ecelambere ecin leitiala ecerbere atera liburu santuetatic, ez aitaric seme igaroten dan iracatsitic, ez Elessaco Guraso Iracaslen esanetatic, Ama Virgiñiaren doe ain andiyaren contraco gauzaric batbere.

[26] Eta eguiyaz, Ama Virgiñiaren sorrera garbico dotrina eta iracatsi au, gueiyago azaldau eta zabaldua eguneric egunera, eta ain ederto arguitu eta sendatua Elessa santiaren uste eracutsi, icasi, arguitasun eta / yaquituriya pisu andicoagaz eta zabaldua era eta moduric arrigarriyenian cristiñau catolicu guztiyen erri eta erreñu guztiyetan, egon zala beti Elessan bertan gure asabetatic artua leguez, eta cerutic etorri, eta yatzirico iracatsiya leguez, ciurtetan daudie guztiz indar andiyagaz achiñaco gomutagarri entzute andico eta beneragarriyac; alan eguzquiyaren urteera aldeco elessacoac, celan sartaldecoac; bada izanic cristoren [*sic*] Elessia, bere contu eta ardurara ichirico sinisteen gordetzallia, ez dau iñoz bere euretan ecerbere aldatuten, ez guchituten, ez gueituten, ezpada conturic andiyenagaz beguiraturic, eta leiyaltasun eta yaquituriyagaz, gordetan dau achiñacoac batera. Eta baldin batzuc izan bacirian illunabarrian leguez achiñatic icusiyac, eta Elessaco guraso / iracaslen fediac susmau bacituezan eta artu neurriyac zabalduateco, eguiten dauena da arguitu, limau, eta leundu ain modutan ece, ceruco iracatsiyaren achiñaco siniste areec, artuten daude fedeco sendotasuna, ciurtasuna, arguiya eta bacoacac beretasuna; baya onezaz batera euquiric leendic eta aurreragotic euren betetasuna, euren osotasuna, eurai yagoquiena; eta bacochoa bacarric

aciten dala beretasunian, au da, dan fedeco sinistian bertan, uste atan bertan.

- [28] Eta eguiyaz, Elessaco iracaslac, izanic ceruco arguitasunez betiac, ez daudie ecerbere beguiratu ardura andiyagoagaz Escritura santac arguitu ta azaldetaco escribidu eudezan euren liburuetan, gordetaco fedeco sinistiac, eta emoiteco eracutsita arguitasunac cristiñauai cein da prediquetia eta goratutia arca-/ len leiyan, eta modu asco eta marigarriyetan [sic] leguez, Ama Virgiñiaren santutasun eta diñade guztiz goratua, bere garbitasuna, eta celan egoan pecatu guztiyen mancha eta orbanic chiquiyenac bere ucuturic ecetan eguin bagaric, eta beraz irabaci eutsan garaitza ederra guizonen areriyoric amurrutuenari. Orregaitic esaten daudiezanian araco berbac, ceintzuecaz Jaungoicuac, aurrez adierazoric, munduaren asieratic bertatic, bere ontasunian prestetan cituzan osagarriyac, ilteco dirian guizonen barriztaciñoraco, lotu euen sugue gaistoaren atrebentziya, eta guztiz asco goratu ebazan Adanen seme alaben icharopenac, esaten euela: «Iminico yoadazac aserriac, ire eta emacumiaren artian, ire yatorriyaren, eta bere yatorriyaren artian», eracutsi euden, Jaungoicuac berac esanico berba / oneitan, aurrez adierazoten zala arguiro, munduaren Salbaguilla erruquiorra; au da, Jesucristo Jaungoicoaren seme baccarra, eta palombretan zala bere Ama Virgiña guztiz santa Mariya, eta dempora atan beratan guztiz arguiro adierazoten ciriala bataren eta bestiaren aserriac demoniñoaren contra. Orregaitic alan celan Cristo Garailariyac, Jaungoicoaren eta guizonaren arteco baqueguilliac, arturic guizonen izatia borrau euen gure contra emonic egoan epai, erabagui eta sentenciya Curutzian yositen euela; alan Virgiña guztiz santiac, baturic beragaz estugarri guztiz gogor eta escatu [sic] ecin leiquian bategaz; eta egonic beragaz batera eta beragaitic aserratuta beti sugue berenotsuagaz, eta irabaciric berari garaitzaric osoena, trimendu euen bere oin garbiyagaz onen burua.
- [29] Eta eguiyaz, Elessaco iracaslac, izanic ceruco arguitasunez betiac, ez daudie ecerbere beguiratu ardura andiyagoagaz Escritura santac arguitu ta azaldetaco escribidu eudezan euren liburuetan, gordetaco fedeco sinistiac, eta emoiteco eracutsita arguitasunac cristiñauai cein da prediquetia eta goratutia arca-/ len leiyan, eta modu asco eta marigarriyetan [sic] leguez, Ama Virgiñiaren santutasun eta diñade guztiz goratua, bere garbitasuna, eta celan egoan pecatu guztiyen mancha eta orbanic chiquiyenac bere ucuturic ecetan eguin bagaric, eta beraz irabaci eutsan garaitza ederra guizonen areriyoric amurrutuenari. Orregaitic esaten daudiezanian araco berbac, ceintzuecaz Jaungoicuac, aurrez adierazoric, munduaren asieratic bertatic, bere ontasunian prestetan cituzan osagarriyac, ilteco dirian guizonen barriztaciñoraco, lotu euen sugue gaistoaren atrebentziya, eta guztiz asco goratu ebazan Adanen seme alaben icharopenac, esaten euela: «Iminico yoadazac aserriac, ire eta emacumiaren artian, ire yatorriyaren, eta bere yatorriyaren artian», eracutsi euden, Jaungoicuac berac esanico berba / oneitan, aurrez adierazoten zala arguiro, munduaren Salbaguilla erruquiorra; au da, Jesucristo Jaungoicoaren seme baccarra, eta palombretan zala bere Ama Virgiña guztiz santa Mariya, eta dempora atan beratan guztiz arguiro adierazoten ciriala bataren eta bestiaren aserriac demoniñoaren contra. Orregaitic alan celan Cristo Garailariyac, Jaungoicoaren eta guizonaren arteco baqueguilliac, arturic guizonen izatia borrau euen gure contra emonic egoan epai, erabagui eta sentenciya Curutzian yositen euela; alan Virgiña guztiz santiac, baturic beragaz estugarri guztiz gogor eta escatu [sic] ecin leiquian bategaz; eta egonic beragaz batera eta beragaitic aserratuta beti sugue berenotsuagaz, eta irabaciric berari garaitzaric osoena, trimendu euen bere oin garbiyagaz onen burua.
- [30] Ama Virgiñiaren garaitza guztiz eder, eta bardiñic bagaco au, baitabere bere garbitasun guztiz arguiya, bere osotasuna, bere santutasuna, eta celan egoan pecatuaren mancharic batbere bagaric; baitabere ceruco doe, gracia, birtute, eta arimaco apainduriya guztiyen ugaritasun eta anditasun, adierazo bere ecin leiyanagaz, icusi eudien irudituta Elessaco Eracuslac eurac, bai araco Noeren arca, Jaungoicoaren aguinduz eguinda, guelditu zanian calteric bat bere artu bagaric, eta oso osoric mundu guztiya ireto eta ondatu zanian; bai araco zulezco escallera, Jacobec lurretic ceruraño alleguetan zala icusi euenian, ceñen malletatic igoten euen eta yatsiten ciran Jaungoicoaren angueruac, eta ceñen goiyenian egoan Jaungoicoa bera; bai araco
- [31] sasi, Moysesec essetuta egoala lecu santuan icu-/ si euenian, eta aurquitu arren suzco garric viciyen eta andiyenen artian, ez bacarric

[32] ez zala erretan, ezpada irauten euela, eta egoala berde, orriz beteric, loratsu eta ederra; bai araco, areriyoac iñoz coiyu ecin izan euen Torrian, ceñetatic egozan dinguilizca milla guerra-ezcutu, eta guizon gogor eta sendoen arma modu guztiya; bai araco hortu, orma lodi eta altuz inguratuan, ceñetan iñorbere ecin leitequian sartu, ez andic ecerbere ostu ecelango arte, marro eta astruciya; bai araco Jaungoicoaren mendi arguitsuan, ceñen cimentuac imiñita egozan mendi santuetan; bai araco Elessa guztiz ederrian, cein ceruco arguitasuna-gaz apainduta, dagoan Jaungoicoaren gloriyaz beteric; bai azquenec era eta modu onetaco irudi eta gauza ascotan, ceintzuetan guztiyetan adie-/ razo eta eracutsi euden Elessaco gurasoac irudituten zala Jaungoicoaren amaren diñade goratua, bere garbitasun iñozbere loitu bagacoa, eta bere santutasun, secula bere ciquindu bagacoa utseguite eta pecatu bacar bategaz bere.

[33] Berba guichitan adierazoteco, Jesus beragandic yayioco zan Virgiñiaren ceruco graciya, eta bere yatorrizco osotasuna, Elessaco Iracaslac eurac, arturic Igarla santuen berbac ez eudien celebrau beste era eta modutan Doncella eta Erreguiña, ezpada deituten eutsiela uso zuri, eder eta garbiya, Jerusalem santua, Jaungoicoaren yarlecu goratua, santutasuneco arquia, betico Yaquituriyac beretzat eguin euen Jauregui, eta etsia; eta araco Erreguiña, gozotasunez bete, eta ganez eguinic, eta oraturic bere maitiari urten euena Jaungoico / guztiz Altuaren agotic guztiya osoa, guztiya ederra, eta guztiya Jaungoicoac maitetua, eta mancharic chiquerren bategaz bere iñoz loitu bagacoa. Eta uste izanic Elessaco Iracaslac eurac eta Gurasoac, eta Elessaco contu eta barriyac escribidu eudiezanac, angueru San Gabrieleac Jaungoicoaren amaren diñade guztiz altuaren barri on, eta albistia emon eutsanian esaten eutsala Mariya Virgiñiari Jaungoicoaren beraren icenian eta aguinduz *Graciya betia* eracutsi eudien, agur, barri on, eta albista aparteco berarizco, eta ordu atara artian iñoz entzun bagaco onegaz adierazoten zala, Jaungoicoaren ama izan zala Jaungoicoaren graciya guztiyen lecu; Espiritu Jaungoicozcoaren doe guztiyacaz apaindua; baitabere izan zala graciye euren gordelecu, guichi biar euena izaiteco amai-/ bagacoa eta ossin eta sonda iñoz sicatu eta agortu ecin leiyana, ain modutan ce, ez zan iñozbere egon mandaricaciñoaren [sic], azpiyan, ezpada izanic betico bedeincaciñoaren yaube eta partill semiagaz batera, duin izan zan entzuteco Isabelen agotic, au Espiritu Santuac arguituta egoala: *Bedeincatua zara zu Andra guztiyen artian, eta bedeincatua da zure sabeleco frutua.*

[34] Emendic orraco euren guztiyen, dirianen uste, siniste eta erechi aldeberaco eta indartsua, Ama Virgiña gloriyaz betiac, ceñegan eguin cituzan gauza andiyac Guztiya-al-dauenac argui eguin euela, ceruco doe eta graciya guztiyen alango indarragaz, graciyaaren alango

- [35] betetasunagaz, eta alango garbitasunagaz, ce, izan zala Jaungoicoaren mirari aditu, ez adierazo ecin leiyen bat leguez, / eta obetoago esateco, mirari guztiyen goiya eta gana leguez, eta Jaungoicoaren Ama duiña, eta eldu eta allegauric Jaungoicoagana berberagana, araguiz yantzirico bat eldu leitian laimbastian, izan zala eguiña, guizon eta angueru guztiyen alabantza guztiyen ganeticoa. Eta alan, eracusteco ez zala aurquituten Jauncoicoaren Amagan mancharic batbere, ezpada izan zala yatorriz garbiya, ez bacarric bardindu eudien guztiz sarritan Eva oraindocorren Doncelliagaz, oraindocorren loitu bagacoagaz, oraindocorren engañau bagacoagaz infernuco sugue guztiz asco yaquinaren astruciya charracaz; baitabere imiñi euden aren aurretic, ecarriric onetaraco berba, eta esate miragarri, eta modu ascotaco batzuc: cegaitic ece, Eva / guztiz erruquiyenac, eguinic infernuco suguiaren esana, galdu euen yatorrizco garbitasuna, eta gelditu zan aren azpiyan; baya Ama Doncella guztiz santa Mariyac, yoanic gueitu eta ugarituaz yatorrizco doe eta graciya, ez bacarric ez eutsien entzuteric emon infernuco suguiaren berbai, baitabere, guztiz deseguin euen bere indar eta escubidia, goitic artu euen birtutiagaz.
- [36]

- Agaitic iñozbere ez eutsien ichi deitu бага Jaungoicoaren Amari, orain liriyoa arantzen artian; guero lur, iñoc ucuturic eguin bagacoa; Doncella loitu bagacoa, garbiya, beti bedeincatua, eta pecatuaren mancharic bagacoa, ceñeganic izan zan eguiña Adan barriya; bai pecatubagatasuneco, betico vicitzaco eta atseguñezco hortu achacuiya bagacoa, guztiz arguiya, guztiz gozatsua, Jaun-/ goicoac berac pocic eta gogotic eguiña, eta infernuco sugue berenoz beteric, zorotz [*sic*] egoanagandic gorde eta apartaua; bai zul, igartu eciña, pecatuaren arraren aguin zorrotzac iñoz zulotu bagacoa; bai iturri garbi, eta samaric bagacoa eta Espiritu Santuaren birtutez sillatua; bai Elessa guztiz Jaungoicozcoa; bai iñoz il bagaric egoteco gordele-cua; bai alaba bacarra, eta bardiñic bagacoa, ez eriyotziarena, ezpada vicitziarena; ereiteco aciya, ez aserriarena, ezpada graciyaarena; beti orritsua, sustrai usteldutic urtena izan arren, loratu zana, Jaungoicoaren berarizco, aparteco eta aurrez eguiñico erabaguiyaren bitartez, izaten dirian eta eguinda egozan leguietatic campora. Eta au guztiyau
- [38] ain arguitsua izan arren, asco ez balitz leguez, esan euden berba argui eta berarizcoacaz, pecatuaren ganian berba eguiten zanian ecin leiquiyola ucuturic eguin Ama Doncella Mariyari, eta sinistu euden, araco Virgifiña gloriyaz guztiz betia izan zala gure gurasoen osatzallia, euren yatorriyaren vitztutzallia, beticoiraunetic autu eta escogidua; Jaungoico guztiz Altubac beretzat prestatua, berac adierazoa, esan eutsanian infernuco suguiari: «*Aserriac imiñico yoadaz ire artian eta emacumiaren artian*», ceñec oñazpian zapaldu eta deseguin euen

[39] bildurric eta atzerapenic bagaric suguiaren beraren buru berenotsua; eta agaitic esan euden, Ama Doncella Mariya izan zala gracyaz zaindu eta gordia pecatuaren mancha guztitic, eta aldendu eta apartaua bere gach eta izurri guztitic gorputzian, ariman, eta adi-/ñian, eta beti vici izan zala Jaungoicoagaz batu eta arcaluric betico adisquidetasunagaz; eta iñozbere ez zala egon illunian, ezpada beti arguitan, eta agaitic izan zala vicilecu bat Jesucristoren guztiz duiña, ez bere gorputza berez zanez, ezpada bere gracya yatorrizcoagatic.

[40] Erantzi eta gueitu bequiyoez oneiri araco berba ederrac, ceintzuecaz Ama Doncella Mariyaren ganian berba eguiten daudenian, ciurtzat emon eudien, izatiac lecu eguin eutsala gracyari, eta onen aurrian egon zala gueldiric bildurrez icara leguez, atrebidu bagaric aurrera yoaten, cergaitic ece, yazoco zan, ez sortua izaitia Jaungoicoaren Ama Doncellia Anaren sabelian, gracyaz bere frutua emon baño lenago. Eta eguiyaz, guztiz ondo etor-/ren Mariya Virgíña guztiz santia gracyan lenago sortua izatia, gorputzian eta izatian baño, Doncella onec izatia emongo eutsan ezquero, gauza guztiyai izatia emonic deutsen Jaunari. Ciertutzat emon euden, Doncella onen araguiyac, Adangandic artua bazan bere, ez cituzala artu Adanen orbanac; eta agaitic Ama Doncella guztiz santia zala Elena bat, Jaungoicoac beraz eguiña, Espiritu Santuaren gracyaz ta birtutez, eta eguiya guztiyagaz arguiz yantzirico lan Beseleel [*sic*] barri arec eguin euena, urrezco edergarri modu ascotacoacaz; eta bera zala errazoyagaz celebretan zala; Jaungoicoari yagocan lelengo lan eta obria leguez; egon zana areriyo gaiztoen dardo essetuetaric gorde eta ezcutaua; eta izate ederrecoa; eta manchiaren apurric bagacoa; / eta [41] etorri zana mundura egunsentico izar arguitsua leguez, bere sorrera garbiyan. Cegaitic ece, ez zan ondo etorren gaudia, auquera eta elecciñoeco ontzi au izan cedilla usteldua emparauac leguez; bada izanic bestietatic guztiz desbardiña, izan zan bestiacaz nastitua eta euren partill izatian, baya ez pecatuan. Baitabere biar zan duda bagaric, seme bacarrac equi euen leguez ceruetan Aita bat, cein Serafiñac alabetan dauden, esaten deusiela iru bidar Santua; alan equi eguiyala lurrian Ama bat, iñozbere aurquitu ez zana santutasuneco argui bagaric. Eta dotrina eta iracatsi au ain modutan egoan sartu eta yosiric gure asaba achiñacoen biotzetan, ce, euren artian gueiyenian eguiten zan berbeta berarizco eta arrigarri au, ceñetan sarri [42] esaten eutsien Jaungoicoaren Amari garbiya, eta inguru guz-/tiyetatic garbiya; orban bagacoa, eta guztiz orban bagacoa; mancha bagacoa, eta edocein aldetatic mancha bagacoa; santia, eta pecatuaren natu, orban, mancha eta cetaquiaren apurric bere bagaric dagoana; guztiz garbiya, guztiya usteltasun bagacoa, eta garbitasunaren eta santutasunaren espillu, irudi eta izatia bera izatera eldu eta alleguetaco gauza

Badakit ez naizela aproposena, behar bada eta behar badarik gabe, parte hartu dudan auzia juez bezala epaitzeko, baina, nik dakidanez, besterik artean plazarara ez zaigunez gero argudioen indarra pisatzeko, neronek ekingo diot anari ahal dezakedan hotzenik eta zuhurkienik jokatzeko kemena bilduko dudalakoan.

2. Guztion onerako, Frantzisko Ondarrak ez du ahazturik eduki ordena-lagun eta, elkarren hurren, euskaltzainkide izan duen Aita Iraizoz. Ikus, adibidez, *Egan*-en, 1980-1981, 29-32, argitara eman berriak dituen «Iraizoz'ko Polikarpo Aitaren hamalaukoak», bostetarik bi itzulpenak, eta

hori ez omen da askozaz ere luzeagoa izan daitekeenaren lehen emaitza baizik. Ondarrak azaldu dituenak aski dira, haatik, ahaztuxe geneuzkan zenbait puntu guztioi oroiterazteko. Zenbaitetaraino zen gauza, esate baterako, euskal idazle zena hitz neurtuzkoak egiten eta itzultzen, eta zein gozoa eta betea zen hitz neurtuz nahiz lañoz, erabili ohi zuen nafar-kutsuko euskara.

Bestelakorik ere agertu du, gainera, eta hau da hemen eta orain dihoakidana: «Nombre vasco de Pamplona: ¿*Iruñea, Iruña, Iruñe?*» deritzan artikulua, *Fontes Linguae Vasconum* 12 (1980), 427-434, hau ere egilea hil ondokoa. Eta ez dut uste *Iruña (Iruina)* izenaren aldeko arrazoibideak bestetan argiago eta garbiago erakuts daitezkeenik. Abiatzeko ez da, beraz, une hoberik aurkituko.

Hona, ene iritziz, Aita Iraizoz zenak bere ustearen lagungarri erabiltzen dituen arrazoi nagusiak (ez bakarrak, baina beste hauek gerorako utzi ditzakegu):

a) Lekukorik zaharrenak eta ugarietak, Erdi Arotik hona, *Iruña*-ren alde mintzatzen dira, nahiz idaz-moduak aski aldakorrek agertu, xehetasunei bagagozkie. *Iruñean, Iruñeko* eta abar (baita *Iruñea* ere, beraz) askozaz beranduagokoak dira.

b) Antzinaldia antzinaldi, *Iruñe, Iruña* daude orain hedatuak eta horien deklinabidea *Legasa* edo *Lakabe*-rena berbera da: *Iruñan, Iruñara, Iruñako, Legasan, Legasara, Legasako* bezalaxe, edota *Iruñen, Iruñera, Iruñeko, Lakaben, Lakabera, Lakabeko*-ren antzera.

2. Zahartasunari begira, zuzen dago, inolazko zalantzarik gabe, Aita Iraizozen iritzia. *Irunia (Iruniensis)* bakar-bakarrik dugu nagusi, *Pampilona (Pampilonensis)* duela ondoan, izkribu-aldaerak kontutan hartzen ez baditugu, eta izen hori, garai hartako ohituren arabera, *Iruña* irakur daiteke. Badirudi bazegoela zenbait alde *Irunia* eta *Pampilona*-ren artean (ik., esate baterako, Ciervidek aipatzen duen Leireko, XII. mendeko, *in ciuitate uero Yronia, iuxta nouam populacionem in Pampilonia, FLV* 9, 1977, 309), baina badirudi ere bereizkuntzaren funtsa ez dugula nabari: ilun gertatzen zait niri behintzat. Nolanahi ere den, ez da hemengo auzi hori garbitzeko lana.

Are gehiago, «... esto nos lleva al *Iruña* no sólo de Garibay sino también de Moret, Oihenart, Larramendi... ¿Es creíble que un P. Moret, nacido en Pamplona, zona entonces vascófona, y residiendo tantos años en Pamplona como cronista del Reino de Navarra, no conociera el nombre vasco exacto de su ciudad natal? Y cosa parecida puede asegurarse de Garibay y Oihenart, buenos euskaldunes ambos y bien enterados de las cosas de Navarra».

Egia da hori, eta egia biribila eta ezin-hautsizko froga-katea moldaturik leukateke testu-inguruari ohartzen ez bagatzaizkio. Hor baitago, ene irudiko, arrazoibide horren ahulezia: izan ere, erdal testu-inguruua dute adibide guzti

horiek, eta ezin jakin dezakegu horrenbestez, kanpoko laguntzarik gabe, nolakoa izan zitekeen esaldi osoa euskaraz zegoelarik.

Beste horrenbeste gertatzen zaigu Arabako *Iruña*-rekin, antzinako *Veleia* zelakoaren izena ere erdaraz baizik, erdal testuan txertatua, ez baitut aurkitzen. Damurik, Oihenartek bere 117. errefrauren esan-nahia aditzera eman zuen, baina erdaraz soil-soilik: «Cicur [Ciçur, noski] est un petit village à trois-quarts de lieuë de Pampelune, cité principale du Royaume de Navarre». Damurik, horren gisako eraskinik euskaraz ez duelako ematen.

Uste dudana zertxobait hedatuko dut, ilunbetan deus geldi ez dadin. *Iruña* euskal etorkiko izena da eskuarki, baina baita ere, euskaratikakoa izanik, erdaraz barra-barra aspaldinanik, lehen usuago gero baino, erabilia izan dena, *Pamplona* eta antzekoen aldamenean eta horien ordainetan. Kasu horretan, bikoiztasuna ez da ageri, sarritan bezala, erdaraz erabiltzen den erdal izenaren bazterrean euskaraz erabiltzen den euskal izena ere ageri delako (cf. *San Sebastián / Donostia* edo *Mauléon / Maule*): erdaran bertan bikoiztasuna sartua eta herritartua zegoen.

3. Ez da, bestalde, *Iruña* erdal testu-inguruan aurki daitekeen forma bakarra. Isasti lezoarrak, *Comp. hist.* 177, besterik dio eta besterik esateko, Iraizozek aditzera ematen duenez, Garibay zuzendu beharrean ikusten du bere burua: «*Pamplona* se llamó al principio *Iriona* villa buena, y ahora en bascuence se llama corrompido el vocablo *Iruñea*, como lo nota Garibay y después el Obispo Sandoval.» *Iruñea*, nik uste, *lectio difficilior* bihurtzen du, eta hobesteko horren bestez, zuzenketa den Isastiren aldaketa honek; inolaz ere ez *facilior*.

Eta zuzenketa zuzena dela, ez maizenik gertatu ohi denez okerra, Moretek berak aitortzen du bidenabar, Ondarra aurkitzeko gai izan den pasarte galdu batean, *Investigaciones* I, cap. 5, parr. 2, 113. orr. Tolosako 1891ko argitaraldian: «Y el [nombre] de Iruñea primitivo a Pamplona». Ongi zekien, bada, Moretek zein zen Pompaeloren euskal izen arrunta, nahiz erdaraz zertxobait aldatu eman gehienbat, erdarari amore eman, noski.

Hona adierazi nahi nukeenaren beste adibide bat. Nafar jakintsu horrek antzinako Ilumberri-ren euskal izena ezaguna zuen segur aski, Pompaelo-rena ez ezik. Begira, halaz guztiz ere, nola azaltzen duen, *Annales*, 1766, I, 327: «del nombre de aquella Villa, que el Libro de la Regla [de Leyre] llamó Lumberri, y es el antiguo, y el que oy retienen los Vascongados». Ez ote zekien euskaldunek, *los Vascongados*, euskaraz egiten zutenek, bera barne, *Irunberri* (Erronkarin, gero bederen *Urunberri*) esaten zutela? Hor ere erdi bidetik, «zubigintzan», ingelezen *compromise*-ean, ibili zen Moret, euskararen eta erdararen artean.

4. Artikulu horretakoak hitzez-hitz hartu behar baditugu, badirudi nerau izan nintzela lehenik, zuzen nahiz makur, *Iruñea* eta *Iruñea*-ren

deklinabidearen alde agertu nintzena. Nik azaldu nuela, bestela esan, izen (eta horrenbestez hitz) mugatu bezala edo, nahiago baduzue, artikuluduna bailitzan, Oviedoko *Archivum*-en, 8, 1958, 3 hh., irten zen «Hispánico antiguo y vasco» zeritzan idazlanean. Horrela den ala ez, ez dakit. Lehenagokorik baldin bada, altxa dezala eskua, berak edo bere ordezkoren batek.

Nolanahi ere, ez dut iritzia aldatu. Nekez alda daiteke aspaldixkoko euskal liburuak pixkaren bat eskuztatzen baldin badira. Esate baterako, irispidean (Erretereriako etxean, alegia) eta gogoan ditudanetarik *Iruñe-a* ebakuntzaren aldeko zenbait lekuko bil ditzaket.

Mendibururen *Oloitz-gaiak*, 11 tomotakoa (eta 3tan atera zutena ere bai), «*Iruñeco*... Antonio CASTILLA-ren Echean» izan zen imprimatua. Aita Prai Bartolomeren *Icasiquizunac*, berriz, *Iruñean*, 1819-an. Iztueta, *Guip. Condaira*, 1847, *Iruñetic* 290, *Iruñeco* (bi bider) 319, *Iruñean* 480, baina baita ere, lehengoan aldakan, *Donostia, Vitoria, Bilbao edo Iruñez landara* 417. Forma hauxe berau darabil XVII. mendean, Iraizozek erakusten digunez Etxeberri Ziburukoak. Hobeki esan, Etxeberri edo harako bertso haiek («harc berac hari berari» jarriak) *Elicçara*-ren atarian landatu zituenak:

*Laudorio bada handi
Duçula Escaldunex,
Laphurtarrez, bizcaitarrez
Baita Nafar Iruñez.*

Iruñean, Iruñeko eta andana bereko formei buruz, honela mintzatzen zaigu delako artikuluan: «Pero de ahí [sc., de los casos *Iruñean*, etc.] ... que a cada paso se encuentran... en los pies de imprenta de tantos libros euskéricos impresos en Pamplona en el siglo XVIII y principios del XIX... no se sigue necesariamente que el nominativo deba ser *Iruñe, Iruñea*, porque, como se ha visto [honetaz beheraxeago], esas formas son ambiguas: pueden venir lo mismo de *Iruñe* que de *Iruin*».

Demagun eta egin dezagun kontu delako bikoiztasun hori nolazpait sorzitekeela. Dena den, *Iruñean* eta gainerakoek izen mugatu edo mugatu itxurako batetara garakartzate lehen buruan, inora erakartzekotan. Ikus, bestela, Leizarragak horren gisara *Jordan* ibaiaren izenarekin darabilen jokabidea: *Iordanaren inguruco comarca gucia* Mt. 3, 5 (orobat Lc. 3, 3, *gucira*-rekin), *Iordanean* Mt. 3, 6, *Iordaneco fluuiioan* Mc. 1, 5. Horien senidetzako diren *haranaren, haranean, haraneko* eta abarrek *baran-a* dute oinarri eta abiapuntu.

5. Ikusi berri dugunez, Isastik, gehi Moretek, *Iruñea* forma soila aipatzen dute *casus rectus* bezala, bidenabar bederen. Lekukorik azkarrena, haatik, Etxeberri Sarakoa dugu, eta ez zait inondik ere iruditzen etimologien ametsezko sostengutzat atera zuenik, ez dezadan «asmatu» esan, izen hori. Adibideak ugariegiak dira horretarako: are gehiago, ez dirudi inolazko etimo-

logiari lagun egiteko aipatuak izan direnik. Zenbait inoiz jaso nituen paperean, eta ez dut uste harrobia agortu nuenik: *Iruñea Escaldunen hiri buruçaguisa* (Obras, 29), *itçultcen da Iruñiera* 31, *ceren mundu guztiac daquien beçala egundainotic Iruñea deithu, eta deitcen baita Iruñea, ceina eguiazqui baita Euscarazco icena, eta hala hiri noble hura icatu da Escual-herrico hiri buruçaguisa...* *Iruñeco alaba* 34, Oraingo azkenik, nork-kasuan ere badarabil behin: *Iruñeac* 35.

Iruña-ren aldezkotzat deitua izan den Hiribarren ere, ez zait niri hain testigu garbia iruditzen. Testua gaingiroki ikuskatu ondoan, bitan aurkitu dut *Iruña*-ren alde aitortzen: *Hekin eskuetaric athera Iruña, / Aise etsi etzuten seguidaco miña*, 3. kapituluan eta lerroaren azken muturrean, eta erdian beste batean, 4. ean, «Cecenac» deitu sailean: *Nahiz ezden cecena Eskaldun yosteta, / Donestia, Iruñan menta handiz baita*. Beste pasarte bat itzuri zaio, haatik, Aita Iraizoz, 3. ekoa, berak aipatuari hurbiletik darraiona eta *Iruñea* oso-osorik erakusten duena (ez, halere, lerroaren erdi-aldera): *Guibelacoan zuen erre Iruñea / Eta asaldan eman menditar semea*.

Eta Hiribarren ahotan hartu dugunez gero, harira dator berak Chahori paratu omen zizkion bertsoak eta honek *L'Ariel*-en argitara emanak hemen ukitzea (ik. «*Iruñeco bestac*, transcripción y notas del P. J. A. de Donostia», *BRSVAP* 7, 1951, 227-233), adibide hoberik nekez idoroko baitugu hark *Pompaelo*-ren euskal izena nola erabiltzen zuen aditzera emateko. *Iruñeco*, ikusi dugu, tituluan bertan dator; gero, *Iruñian* v. 1, *Yruñierat* 19, eta berriz *Iruñian* 86, eta «Haurren dantza»-n *Yruñian*, 14. Eta bertsook Chahori eskainiak direnez gero, hona, gehigarri gisa, honek *Voyage en Navarre*-n, 1836, 388, aldatu neurtitzetan zer ageri den: *Irugneko hirian* eta *Iruneko karrikan*.

Hemen aipatuez gainera, 1845 bertan, gehiago ere argitara omen zituen Hiribarrenek *L'Ariel*-en zezenak zirela eta, Aita Donostiak dioenez. Badirudi nolazpait ere gerokoen aitzindari direla, 1853.ean adar epikoa jotzen saiatu zenean, alegia, ondu zituenena.

6. Nafarroan, dio Aita Iraizozek, ez omen da orain *Iruña* edo *Iruñe* baizik entzuten: Saldisen, gainera, *Iruña* erantzun omen zioten, baina *Iruñen*, *Iruñeko*, etc. Ez dut dudarik egiten. Lizarrerriko Aita Elizalderen Dotrina, 1735.ean, *Iruñan* imprimatutzat agertu zen. Gehiagorik ere aurkituko genuke, ongi bilatuz geroz.

Iruñe aipatu baitugu, bereizkuntza bat sartu beharko da luzatu gabe: «*Iruñe I*» eta «*Iruñe II*» deituko ditudanak bereizteko premia larrian garelako. «*Iruñe II*» delakoa hots aldeketaren sorkaria genuke: hainbeste lekutan, eta ez nafar lurretan bakarrik, hurrengo silabako *a* zaharra jaso eta aurreratu duenarena, lehenagokoan bokale gora (atze nahiz aurrealdekoa) doanean. *Iruñe* hori *Iruña* izana dugu, beraz, *uketu* lehen *ukatu* eta *biletu* lehen *bilatu* izanak diren moduan.

Baina ez da horrelakorik edozein eskualdetan gertatu. Eta *Iruñe*, gure «Iruñe I», hau Aingeru Irigaraigandik ikasia dut, ezaguna da baita horrelako aldakuntzarik gertatu ez den aurkientzetan ere. Aezkoan, esate baterako, ez da nahi eta ez *Iruñe*- Baztanen edo Ultzaman dena edo izan daitekeena. Eta Azkuek, *Aezkera* 30, *nausiak Iruñera igorri zuzun bein* eta *Iruñera gabe* jaso, zuen itxuraz lekuz baizik aldatu ez zuen ipuin batean. Zaraitzukoa, berriz, *Iruña* da, jakina denez, Erronkarikoa *Uriña* edo *Uruña* den bezalatsu.

7. Bai *Iruñea* eta bai *Iruñe* zabalduak badira, eta nolazpait ere elkarren kideak, bada bide aski eroso bata besteari lotzeko eta uztartzeko. Gauza jakina baita Euskal herriko izen propioak maiz agertu ohi direla noiz artikulua itxurako *-a* itsatsirik daramatela, noiz hori gabe. Erdal formek sarritan dute euskarazkoek ez duten *-a*: esate baterako *Altsasu* (*Alisu* Urdiainen, Satrustegi adiskideak esan zidanez eta cf. *freyre Semeno de Alssasso*, 1288) : *Alsasua*, *Bakaiku* (cf. *don S. Remiriz de Vacaicu*, 1226, Utergan) : *Bacaicoa*, *Olazti* : *Olazagutia* (*Olaçagutia* XIV. mendean, ez-*goitia!*), *Ostsagi* : *Ochagavia* (*Oxssa-gauia* eta horren gisakoak XI. mendean geroz), eta abar. Baztanen *Eluete* (*Eluate* lehen) eta *Elbetea*. Nahi bezain argiro adierazten du *-a* hori noraino zen hartu-utzizkoa (familia eta are pertsona berbera ager daiteke dokumentuetan noiz *Latadi* noiz *Latadia* deiturarekin eta orobat beste edozeinekin, *-a* horren gora-beherak axolarik ez duela deus bereizteko) J. Caro Barojak, *La hora navarra del XVIII*, Príncipe de Viana, 1969, 75, argitaratzen duen Baztango lekukotasunak.

Izen elkartuetan, esan beharrik ez, ez da ez *-e* ez *-ea*-rik agertzen. Aski zaharra da, Iruñeko eremuetan, *el prado de Yruinllarrea* (*prado* eta *larre*, *larre* eta *prado* bateratsu dabilta, noski): ik. M.^a Irurita Lusarreta, *El municipio de Pamplona en la Edad Media*, 1959, 310. *Iruin-*, *Irun-* hitz elkartuetakoetarik, eta orobat antzinako *Ilun-*etik, ezin daiteke funtsezko ondoriorik atera hitz soilari dagokionez.

8. Artikulua, *-a* erakuslea artikulua bihurtua, ez da euskaraz «jatorrizko» gertaria: gehienek ustez, inguruko hizkuntzen paretsuan sortua, hazia eta hedatua izan da gurean gramatika tresna hori. Nekez onar daiteke, bada, horrelakorik erromatarren garaiko euskaran, esate baterako. Are guttiago zaharragoan.

Iruñea eta *Iruñe* elkarrekin aise konponkizun baldin badira, ikusi duguenez, ez litzateke gaitzegi *Iruña* eta *Iruñan*-en erakarbidea goragoko *Iruñea* eta *Iruñean*-etik abiatu, ez Nafarroako euskaraz ezta ere Nafarroako erdaraz. Zaraitzu eta Erronkariri dagokienez, horrelako zerbait gerta zitekeela esatea ez ezik, zilegi dirudi horrelako zerbaitek gertatu behar zuela aitortzea. Hortik kanpora ere, Nafarroa gehientsuan, *Iruñea*, *Iruñean*-ek azentua bigarrenean zeraman, gero nabari den legearen arabera, eta bistan da erdaraz *Iruña* esan zela eta esaten dela: hango eta hemengo kafe-etxeetan, bestetara jo gabe, bilduko dugu lekukorik aski.

Berrietan finkatzen badugu oina zaharrei antzemateko, ezaguna da Nafarroako franko zati-euskalkitako joerak kontsonante ondoko *e* hori ez silabagile bihurtzen duela, *e* eta *i* ingurune horretan *glide* huts bilakatzen direla, beren bokaltasuna galdurik. Eta hots irristari horiek aurretik daramaten *ñ* bustiak edo biguinak irents ditzakeela: irestea legezko zela esatera ere ausartuko nintzateke, Nafarroako eta bestetango erdaraz legezko zen bezalatsu. Latinezko *uinea*-k ez du sudurkari busti edo aurre-sapaikariren premia-rik izan, bokaltasuna galdua zuen *eli* sudurkari aitzindarian murgiltzeko.

9. Uki dezakegun urrutirengo mailan **Iruin* jartzen du Aita Iraizozek, artikuluz hornitua *Iruin-a*. Hotsei dagokienez, beraz, ezin hurbilago zebilen *Irun* izenetik, maiz aski adierazi izan den bezala: orain dakigunez, gainera, *Irun* eta Bidasoaren ibai-ahoa ere, Nafarroako hiriburua ez ezik, bazen zerbait Erromatarren garaian, nolazpaiteko hiri izena merezi zuena bai, behintzat.

Jakina da leku izenak leku kasuetan agertu ohi direla batez ere, hitzez zein ezkribuz, eta hortik dator segur aski *Iruñean*, *Iruñera*, etc. beste batzu baino, *Iruñea* eta *Iruñeak* baino batipat, usuago aurkitzea. Eta ezinbestean elkarrekiko harremanetan daudelarik, nabarmenagoa da haien eragina hauen bizkar, alderantzizkoa baino.

Nolanahi ere den, bai *-a-* eta bai *-e-k, -ea-z* ixiltzeko, mugatuaren marka, zuzena edo okerbidekoa, nabari dute. Beste batean erakusten saiatu nintzen nola *Errandonea* eta (*Errandonean*, etc., barrena) sortu zituen bultzada bizirik nabari den Nafarroan, jadanik XI-XII. mendeetako dokumentuetan: *in More bilibilea* Leiren edo *in Erret Ihera Guiuelea* Iratxen. XII.ean *Larrainecoa* / *Larraingo*, *Çaualco* / *Çaualco* forma pareen lekukotasunak garbiro erakusten du *mugatu* / *ez mugatuen* arteko bereizkuntza. Ikus *FLV* 1, 1969, 1 hh., batez ere, 20 hh., 40.

Badago oraindik, izen honi eta bere senideei dagokienez zer bilatu eta zer ikertu. Esanak, bere eskasean, asmoak zuri bitza, albaledi, P. Lafitteren omenez eta Aita Iraizoz zenaren oroitzapenetan datozenez gero.

ONTSA-REN EGITURAZ ETA ESTILOAZ ZERBAIT

Jose Antonio MUJICA

1. EGITURA

Ezaguna da, eta orain baino lehen aipatua, J. Tartasek *Ontsa* bere lehen liburua itxura aski nahasi eta, nolabait esan, arraroz eman zuela argitara. Erantzunkizuna egileari berari ala inprimatzaileari egotzi behar zaion ez dakigu, baina idazkeran, puntu-komen erabileran eta antzekoetan aldakor eta arau zehatzik gabea agertzen zaigu askotan liburua. Horietan batez ere, baina ez horietan bakarrik. Liburu osoaren antolaketari dagokionez ere liburuaren kanpo banaketa eta gaiaren barne egituratzea bat ez datozela soma daiteke.

Lehen kapitulu gisa aurkezturiko testua («Solinus... begira gitzazü»¹, izan ere, bi zati desberdinetan bana daiteke ene ustez edo, zehazkiago esanik, banatu egin behar da. Lehen zatiak («Solinus... xedia ikus artian», 14. or.) liburu osoaren sarrera tematikoa, berbaldiaren sarrera osatzen du eta hortik aurrerakoak egiazko lehen kapitulu.

Hasierako «Gomendiosko letra», «Irakhurtzaliari» eta oneritzi guztiak —hau da, liburuari ezarritako *kanpo sarrera*— alde batera utzirik, liburua bera lau kapituluz osatua ageri zaigu. Hemen diodanez, ordea, liburuaren barne eraketari jarraikiz sarrera tematiko bat —hots, *barne sarrera* bat— eta lau kapitulu berez daitezke.

Hori baieztatzeko gaiari eta beronen segidari dagozkien frogak ditugu batetik eta xehetasun formal zenbait bestetik.

a) Barne sarrera orokor gisa berezi dudan lehen zatian («Solinus... xedia ikus artian», 14. or.) gaiaren aurkezpena eta programaren azalpena irakur ditzakegu. Aurkezpen-azalpenok, ordea, liburu osoari dagozkionak

1. Puntu askotan erabat fidagarri ez bada ere, eskurakoiena bera denez, aipamenak beti A. Eguzkitzak prestatuturiko ediziotik egingo ditut: Juan Tartas, *Ontsa biltzeko bidea* (Jakin, Oinati, 1975). Lehen kapitulu, argitaraldi horren 11-29 orrialdeek osatzen dute.

dira, ez lehen kapitulu soilari. Aurkezpena: «onsa hil nahi denak behar dü onsa bizi». Programa: «...nahi dü frogatü laur gisaz, eta laur moldez... ene intenzione hunaren euskaldüner, partikülarki Züberuako herrian ene adeskider, endelgaraziteko...

Lehen gidamendia, eta lehen eskola emanen düte bide hontan, paganoek.

Segonta emanen dü eskritüra saindiak...

Herena emanen düte ...authoritate saindiek.

Laugarrena emanen dü arazoiñak...» (13-14. or.).

Lau gidamenduok, hain zuzen, liburuaren lau kapituluei dagozkie.

b) Sarrera orokor honen azken aldera liburu osoan erabiliko den terminologia azaldu eta justifikatu egiten da: «...laur pündü hoiak akaba artian, eztirozü entzün bertze izenik, bekhatoria, eta adeskidia, baizi,...» (14. or.)

c) Eta terminologiari dagokionez, bada besterik: *bidia* liburu honetako *Stichwort* edo *leit motiv* gisako funtzioa betetzen duen hitza, gutxitan erabiltzen da liburuaren gorputzean, maiz ordea hasiera honetan eta beste zenbait lotura testutan. Gauza bera esan daiteke *librü* edo *libürüto* hitzei buruz ere. Eta ez da batere harrigarri, hain zuzen, maiztasun berezi hori liburuaren sarrera programatikoa gertatzea.

d) Aztertzen ari garen zatian —hots, nik sarrera orokortzat hartu dudan testuan— honako perpausa irakur daiteke: «euskaraz egin düdan libürüto hontan» (12. or.). Perpausaren aditzak (*egin dudan*) ekintza burutua adierazten duela dirudi eta, besterik frogatzen ez bada, bera idatzi denerako liburu «egina» zegoela adierazten du. Honek, jakina, sarrera orokorraren leku berezia sendotzeaz landa, erredakzio historiari dagokion hipotesi bati ematen dio bide, arrazoi sendagoak aurkitu bitartean susmo apalean utzi behar bada ere; sarrera orokorra Tartasek liburu idatzi ondoren egin zuelako hipotesia, alegia.

e) Hurrengo froga kapituluaren tituluek eskaintzen digute. Bigarren, hirugarren eta laugarren kapituluaren tituluek egitura bera dute; lehenak, aldiz, bestelakoa:

Cap. 1 Notam fac mihi viam in qua ambulem Psal. 142

.....
ONSA HILTZEKO BIDIAREN BIGARREN KAPITULIA. Kapitülü huntan frogatzen da Eskritüra saindiaz, lege zabarraz, onsa hiltzeko bidia, dela hiltziaz orrohoitzea.

.....
ONSA HILTZEKO BIDIAREN HIRUGARREN KAPITULIA. Kapitülü huntan frogatzen da Eskriptüra saindiaz, hanbat lege berriaz, nola Elizako doktor saindiez, nola onsa hiltzeko bidia den herioaz orbitzia.

.....

LAURGARREN KAPITÜLIA. Kapitülü huntan frogatzen da arrazoiñez onsa hiltzeko bidia, dela herioaz, eta hiltziaz orbitzia.

Itsuenak ere ikus dezakeen bezala, azken hiru kapituluetan tituluak ondoren erabiliko den gaia aurkezten digu. Lehenean, berriz, ez da horrelakorik gertatzen; horretan liburu osorako balio duen «giltza» ematen zaigu, ez besterik. Zergatik hori? «Giltza» hori, Salmoen liburutik harturiko aipamen hori, egileak bestela aurkeztu arren, berezi dudan sarrera orokorrari dagokiona delako, eta ez lehen kapitulari.

Kritikoak ezin du, noski, testua bere gustora ukitu eta aldatu. Ezin du, batez ere, bere iritzira ondo datorkeena gehitu. Bestela balitz, hemen sarrerako hitzak jasoz (13. or.) eta ondoko tituluen egiturari jarraikiz honako titulua, edo antzekoren bat, erantsiko genioke 14. or. hasten den 1. kapitulari:

ONSA HILTZEKO BIDIAREN LEHEN KAPITÜLIA. Kapitülü huntan frogatzen da antikitatian bizi izan diren paganoez onsa hiltzeko bidia, dela hiltziaz orbitzia.²

f) Xehetasun txiki batzuk aipatuko ditut, azkenik, agian gehiegi luzatu den frogen zerrenda honi amaiera emateko. Besteetan zitak dagokien erreferentziaz horniturik datozen bitartean, sarrerakoak gabe agertzen dira. Beste kapituluetakoa dei hitzetan bokatibo mota bat nagusitzen den bitartean (lehenean *bekbatoria*, ondokoetan *neure adiskidia*), sarreran biak erabiltzen dira oreka zehatzez.

Barne sarrera orokor hau liburuak aurkezten duen bidean sartu eta bukaeraraino jarraitzeko aholkuz amaitzen da: «Sar zite bide hontan lehen, beno lehen, eta zure ürhatsetan etzitiala enuia, bidiaren bazterra, azken termagia, eta xedia ikus artian» (14. or.).

Aholku horretaz amaitzen da sarrera eta hortxe du, hain zuzen, berbaldiaren gorputzak hasiera.

2. ETA ESTILOA

Ontsa-ren prosak, egia da, traketsa eta narrasa dirudi lehen begiradan, itxura nahasikoa. Patxadaz irakurriz gero, ordea, behin eta berriro agertzen diren joera estilistiko jakinak nabarmentzen direla ohartuko gara.

2. Nere hipotesi hau onartuz gero, beraz, hau litzateke liburuaren egitura:

- Sarrera: Notam fac mihi...
- 1. Kapituluak: Antikitareko autoritateak
- 2. Kapituluak: T. Zaharreko autoritateak
- 3. Kapituluak: T. Berriko eta Santuen autoritateak
- 4. Kapituluak: Arrazoiak ematen dituen frogak

a) Joera horien artean nagusiena, behar bada, bi prosa mota desberdinen tartekatze iraunkor eta etengabea. Zatiak luzeago edo laburrago gerta daitezke, baina gehienetan istorio, *exemplum*, aipamen edo gogoetei eskainiriko *azalpen hitzei*, aholku larriak eta dei estuak dituzten *susper hitzak*, esortazio hitzak, jarraitzen zaizkie. Gaien azalpena ez da gehienetan bere horretan bukatzen; haren ondoan entzulea suspertu nahi duen deia eta esortazioa datoz.

Bata bestearen ondoan ematen diren bi testu mota horiek elkarren osagarri dira, azalpena deiaren oinarri bait da eta hau haren ondorio.

Testu mota bakoitza, beste aldetik, xehetasun formal aski zehatzek berezten dute. Hasteko, zati bakoitzaren hasiera sarrera jakin batez adierazia eta markatua dago. Lehen kapitulura mugatuz, hona sarrera formal horren zenbait adibide:

—Azalpen zatiei aipamenaren ardatz den pertsonaren izenak ematen die hasera.

—Susper hitzei, berriz, bokatibo soilak (*bekhatoria, ene adiskidia*) edo lotura partikula batez lagundurikoak (*balatan, bekhatoria...*) ematen die sarrera.

Hona gutxi gorabehera, zation segida:

Sarrera orokorrean

- *Solinus...*: azalpena
Bekhatoria (12. or.): susper hitza
- *Ene adiskidia* (12. or.): susper hitza
Sobera... (13. or.): azalpena
- *Hilziaz...* (13. or.): azalpena
Ene adiskidia, bekhatoria... (14. or.): susper hitza

Lehen kapitulua

- *Philippus, Mazedoniako errege handi bark...* (14. or.): azalpena
Bekhatoria... (14. or.): susper hitza
- *Aletsandre handiak...* (15. or.): azalpena
Bekhatoria... (15. or.): susper hitza
- *Aristotesek...* (16. or.): azalpena
Bekhatoria... (16. or.): susper hitza
- *Platon dibinoak...* (17. or.): azalpena
Bekhatoria... (17. or.): susper hitza
- *Bekhatoria...* (18. or.): susper hitza

- *Seneka handiak...* (18. or.): azalpena
 Bekhatoria... (21. or.): susper hitza
- *Nafarroako... Charles Duc de Bourbon...* (21. or.): azalpena
 Bekhatoria... (22. or.): susper hitza
- *Armenia...*
 Ulpianus...
 Arkesilaus...
 Pelozidaz... (23-24. or.): azalpena
 Bekhatoria... (24. or.): susper hitza
- *...bertze doktor handi batek...* (24. or.): azalpena
 Halatan bekhatoria... (24. or.): susper hitza
- *Demonioak...* (26. or.): azalpena
 Halatan... bekhatoria... (27. or.): susper hitza
- *...Sathanek...* (28. or.): azalpena
 Halatan bekhatoria (28. or.): susper hitza
- *...hark Moiseren...* (28. or.): azalpena
 Hala, hala, bekhatoria... (29. or.): susper hitza.

Idatzizko tradizio luzean oinarrituriko prosa testuek hitzaren zentzu estuan «grafikoago» diren bide bereziak dituzte berbaldiaren etenak, loturak, zati banaketak eta antzekoak adierazteko: puntuak, aparteak, letra tipoak, tarte eta orrialde txuriak...

Ahozko tradizioetatik, eta bereziki sermoigintzatik, gehiegi urrundu ez diren testuek, ordea, hau da, harekiko menpekotasuna salatzen dutenek, hari dagozkion teknikak erabiltzen dituzte aipaturiko eten-loturak adierazteko. «Entzuten» diren hitz edo formula jakinak —eta ez «ikusten» diren ezaugarri grafikoak— erabili behar zituen ahozko predikuak une aldaketa zetorrela adierazteko. Horrela Tartasek ere azalpenetik susper hitzetarako urratsa bokatibo eta interpelazio batez adierazten du. Bokatik edo deiki hori entzuleari aldaketa ohar gertatzen zaio. Eta lekukotasun bat bere osoan (azalpena eta susper hitza) amaitu dela adierazteko, hots, berriro ere beste azalpen batean sartzen dela ohar arazteko lekuko berriaren izenez baliatzen da.

Ez hori bakarrik, ordea. Prosa mota bakoitzak bestelako berezitasunak ere baditu. Denak aipatzeko asmorik —ez usterik— gabe, hona hemen zenbait: azalpen hitzak hirugarren pertsonan idatziak daude nagusiki, bertako istorioetan sartzen diren elkarrizketak ezik noski. Gehienak, bestetik, iraganean daude eta bestela izatea litzateke harrigarri. Susper hitzetan, berriz, bigarren pertsona (*zu*) da nagusi batzutan eta lehen plurala (*gu*, *zu eta ni*) besteetan. Areago, susper hitz hauetan, eta ez azalpen testuetan, ageri dira adizki familiarrak, hau da, mintzalaguna aipatzen dutenak (*beldür nüzü, erranak ditützü, ezagütü dizü, miserabliak gütützü...*). Adizki hauek bizitasuna, hurbiltasuna eta, espero zitekeenez, dei indar berezia ematen diote prosa

mota honi. Zati hauetan, bestetik, aditzaren agintera maiz ageri da. Beste zenbaitetan *konklusione* hitzak ematen dio zatiari kutsu berezia.

Esan gabe doa, noski, ez dela beti gauza erraza eta segurua, testuari zor zaien begiramena gordez gero behintzat, zatiok garbi eta zehatz bereztea. Honek ez du, ordea, gorago egindako hurbiltze metodikoa ukatzen.

b) Tartasek erabiltzen dituen baliabide estilistikoaren artean badira euskarak, egitura halakoa duelako, bereziki eskaintzen dizkionak, euskal estilistikak bere-bere dituenak. Ondoren aipatuko ditudanak aditzaren egiturari dagozkionak dira eta, oker ez banago, perifrastikoaren astuntasun nabarmena nolabait arintzera datozenak.

Lehena, susper hitzetan agertzen da batez ere. Zati hauen prosa, hain zuzen, ideia bera behin eta berriro errepikatzeaz berezten da. Paralelismoak beraz ohizkoak dira eta, nolabait esan, etxe etxeok honelako testuetan. Horien arteko bat da hemen gogoratu nahi dudana: bi aditz ematen dira, paralelismo gisa, baina —eta hau da ohargarri— esanahi beretsukoak izan arren bata iragankorra da eta bestea iragangaitza eta noski, laguntzailea dutenek, bakoitzak berea du, zatiak bestela zukeen astuntasuna nolabait arinduz. Zenbaitetan parrafo osoaren ardatz diren bi aditzek egiten dute joko hori:

- *eztezazü düdarik bar*
orbit zite (15. or.)
- *edüzazü hori gogoan*
orbit zitez (16. or.)
- *beha zite*
konsidera ezazü (16. or.)
- *konsidera ezazü*
erhoit zaite (22. or.)

Bestetan elkarren segidan gertatzen dira bi aditzok:

- *jarraiki zite*
eta segi ezazü (12. or.)
- *etzitjala othoi ofensa*
eztezazüla othoi, alde gaitzera bar (14. or.)
- *onsa hil nandin*
fin on bat egin nezan (18. or.)
- *nola bizi izan giren*
zer egin dügün (22. or.)
- *nola hil giren*
egin ditügün akzioniak (22. or.)
- *estügüla... eramanen*
izanen direla (22. or.)

- *edüzazü hori gogoan*
hiltziaz orbit zite (23. or.)
- *pünizione arbiña eta simplia ükhenen dü*
pünizionia, handia izanen da eta grabe (25. or.)
- *eztügen ükhenen*
ezten izanen (29. or.)
- *mortal zirela*
hil behar düzüla (14. or.)
- *jüsto baita*
jüstüki jüjatü baitü (27. or.)
- *haietarik orotarik baitüzü*
eliza saindian bizi baitzira (14. or.)
- *huros izan*
eta plazer bartü (16. or.)
- *hura bezala, lür zela, eta herrauts*
eta bark bezala lürthü, eta herraustü behar ziala (24. or.)
- *miserableki bizi baitzira*
zure zekürüa karreiatzen (15. or.)³

Bigarren baliabide estilistikoa, hau ere askotan aditzaren inguruan gertatzen dena, paralelismo eten batean datza; aurreko sintagmaren elementar baten eragina ondoko sintagmaraino luzatzen da, honetan isilpean geratzen dena ordezkatzuz. Maiz erabiltzen du Tartasek joko hau, zatien bukaera luzatu nahi duenean:

- *mortal nizala,*
miserable eta heriuaren süjet (15. or.)
- *oro eder direla*
eta on (17. or.)
- *behar dü zühür izan*
eta zühürtziaz amurus (18. or.)
- *lür zela,*
eta herrauts (24. or.)
- *handiago dela,*
eta kriminelago (25. or.)
- *handia izanen da,*
eta grabe (25. or.)
- *demonio girela,*
eta sordex (26. or.)

3. Euskarak bereziki eskaintzen duen joko estilistiko hau, noski, paralelismoak —bikoitzak, hirukoitzak sinonimoak, aurkakoak etab.— erabiltzeko joera nagusiaren kasu berezi bat baizik ez da.

- *bil zitian*
eta damna (15. or.)
- *admiratü zitizü*
eta adonatu kasi (16. or.)
- *inganatüko düzü,*
eta tronpatüko (17. or.)
- *onsa biziren denak*
eta onsa billen (18. or.)
- *hauta beza*
eta konserba (18. or.)
- *erabil itzazü,*
eta paseia (18. or.)
- *erranen deizü ungi jin*
eta eginen begitarte (18. or.)
- *joaiten da*
trenkhatzen, eta labürtzen (18. or.)
- *kontinüatzen dü*
eta erraiten (18. or.)
- *legia irakhurtzen dügüla,*
eta ez begiratzen (25. or.)
- *lotsatzen da,*
eta ikharatzen (28. or.)

Ez dira horiek, noski, Tartasek erabiltzen dituen joko estilistiko bakarrak. Beste zenbait ere aipa genitzake azterketa sakonegietan saiatu gabe ere, hala nola, esate baterako, eta lehen kapitulutik atera gabe, hitz pareen errepikatzea:

- oihü eta beiagora* (15, 27, 28 eta 29. or.)
- xüxen eta segür* (12, 12 eta 24. or.)
- berioa eta hiltzia* (13, 14 eta 15. or.)
- galdiak eta miserabliak* (24 eta 29. or.)
- eder eta on* (16 eta 17. or.)
- gisa eta molde* (13 eta 21. or.),

edo hitz jokoak:

- halakoak, eta alakoek* (12. or.)
- zühür onen konseillü zühürra* (17. or.)
- zühür izan, eta zühürtziaz amurus* (18. or.)
- berioak berioa bihotzetik idoki* (18. or.)
- Jenka jüstüa, jüstü ziren bezala egizü jüstizia* (19. or.)
- has zite ordü onez obra onen egiten* (21. or.)
- astez... eta ustez* (23. or.),

edo esaera modukoak:

bat mens, oro mens, manqua uno, manqua todo (17. or.)
nork berea esta sobera (19. or.),

edo hizketa estu gisako testuen egitura berezia, hau da, perpaus laburren iustaposizioa, ideien errepikatze eta aurkako paralelismoz osatua:

Jenko handia, eta Jenko jüstüa,
jüstü ziren bezala egizü jüstizia,
miserikordiak estü hemen lekhürrik,
arima hau enia da,
nork berea esta sobera,
hau esta zurea,
bekhatiak hau kitatü dü,
baina hunek ez bekkhatia
ürgüillia hemen da,
etab. (19. or.)

oibü, beiagora,
züik eta nik egiñen dügü;
dügün apheza!
Dügün fraidia!
Dügün konfesionel!
Dügün sakramendia!
Dügün espazio!
Dügün término... (29. or.)

Guzti honek, ordea, lerro hauetatik at geratzen den eta liburu osoari hedatu beharko litzatekeen azterketa zehatz eta patxadatsuagoa eskatuko luke. Bego oraingoz, beraz, gauza axaleko aipamen soil eta arin honetan.

Ondorioak

1) Tartasen prosa alderdi batetik nahasia izan arren, badu bestetik lojika zehatza, hau da, sermolarien lojika. J. T. Welter-ek, predikariaren oratoria zehazki aztertu duenak, azaltzen duen bezala, Erdi Aroko eta geroxeagoko sermolariak horren sari eta ugari erabiltzen eta aipatzen zituzten *exempla* direlakoak lau sailetan berez daitezke:

- *exemplum profanoa* (batez ere grekolatinoa)
- *exemplum biblikoa* (ekonomi zahar nahiz berrikoa)
- *Vitae Patrum* direlakoetatik harturiko *exemplum*-a
- *Moraleja* gisako *exemplum*-a, maiz eta sari itxura miresgarriz agertzen dena.⁴

4. R. RICARD, *Estudios de literatura religiosa española* (Gredos, Madrid, 1964) liburuko 201. orrialdetik jasoa.

Lau sail hauei, bada, eta horixe da ohar arazi nahi nuena, jarraitzen zaie Tartasen liburua, *exemplum* mota bakoitzari kapitulu edo zati bat eskaintzen diolarik: lehen kapituluan, «antikitareko autoritateak» agertzen dira; bigarrenean, «lege zaharreko frogak»; hirugarrenean «lege berria» eta «doktor saildientzalek agertzen dutien autoritate saildiak»; laugarrenean, azkenik, «hortik» eta «hebetik» bil daitezkeen arrazoinak.

Badirudi, beraz, egileak sermoigintzarako egokituak zeuden istorio horietako bilduma bat edo beste, ugari bait ziren horrelakoak, hartu eta haren egituraren arabera moldatu duela bere liburuaren programa, nahiz eta gero programa hori gauzatzeko zertxobait bide horretatik saihestu.

Tartasek istorio horietarako duen joera, kritikoez arrazoi osoz nabarmendu dutena, ez da beraz egilearen bitxikeria pertsonala. Haren liburua sermoigintzatik sortu da eta aho predikuntzari dagokion estilo eta berezitasunak jasotzen ditu. Liburuak batere literaturtasunik badu, hortik etorriko zaito noski⁵.

2) Bi prosa moten —azalpen hitza eta susper hitza— jarraiko tartekatzeak ere gauza bera adierazten du: liburuak aho predikuntza duela oinarri hurbil. Eta zati bakoitzaren hasiera markatzeko erak ere, ahozkoa eta ez grafikoa, ez du besterik adierazten.

3) Eta, azkenik, sermoigintzaren oinarri hori da Tartasen estiloa argienik esplikatzen duena, hala nola: idatzizko prosaren goi estiloa landu nahi ez izatea; euskara bere herrian, predikuetan ere, erabiltzen zen bezala jasotzea, hortik gora edertzeko batere gogo berezirik gabe; idazkerari jaramon handiegirik ez egitea, hots, kritiko zenbaitek seinatu duen jokabide kaotikoa; liburuak, batez ere susper hitzetan, agertzen duen estilo interperlatiboa, boketiboz eta zuketazko hizketaz josia.⁶ Berezitasun guzti hauek gure hipotesia sendotu besterik ez dute egiten.

LABURPENA

En el *Ontsa biltzeko bidia* de J. Tartas, s. XVII, la ordenación externa de la obra no coincide con la composición interna del discurso. Lo que se presenta como 1.^{er} capítulo se compone en realidad de dos partes distintas: la introducción temática al «discurso» en su totalidad y lo que realmente constituye el 1.^{er} capítulo del mismo. Argumentos temáticos, de léxico y de composición avalan esta afirmación.

5. Ikus R. Ricard, aipatu liburuan, 203. orrialdean: «... el *exemplum* es un procedimiento de predicación que se ha introducido normalmente en otros géneros religiosos; por otra parte, nadie ignora que a menudo los tratados ascéticos o místicos han sido presentados o "ensayados" en forma de conferencias espirituales, de sermones o de homilias».

6. X. Kintanak oker, nere ustez, «elkarrizketazkoa» dela dio (ikus 1. oharrean aipaturiko argitaraldiari ezarritako hitzaurrean; XV or.). Predikarien hizketa ez bait da, estuki hartuta behintzat, elkarrizketa, interperlatiboa baizik.

La prosa de la obra presenta, por otra parte, una destacable característica en cuanto a su composición: la alternancia, no siempre rigurosa, de textos declarativos y exhortatorios con claras indicaciones formales del paso de unos a otros, además de otras particularidades (empleo de formas alocutivas casi exclusivamente en los textos exhortatorios, etc.).

Pueden indicarse también otros recursos estilísticos: el paralelismo en párrafos e incluso en frases más o menos cortas de verbos transitivos e intransitivos de significado cercano (*jarraike zite eta segi ezazü; beha zite ... konsidera ezazü*, etc.), restando así pesadez al empleo repetido de las formas perifrásticas; el uso del zeugma para alargar una frase (*Jur zela, eta berrauts; handia izanen da eta grabe*; etc.), suavizando de algún modo su final; el uso de pares de términos (*oihü eta heiagora, eder eta on*, etc.); los juegos de palabras; la yuxtaposición de enunciados breves...

Todo esto nos lleva a: 1) afirmar que para elaborar su obra Tartas usó alguna(s) de las diversas colecciones de *exempla* que para uso de predicadores existían en su tiempo y siguió estrechamente la estructura de éstas con sus cuatro grandes capítulos; 2) podemos también, basándonos en las características de estilo, suponer que la prosa de la obra está fuertemente influenciada y aun condicionada por las formas del discurso oral, en concreto de la predicación, que le subyace.

LES NOMS BASQUES DES QUATRE POINTS CARDINAUX

Hans G. MUKAROVSKY

Dans sa grammaire basque¹ Pierre Lafitte remarquait, que «les linguistes rattacheraient volontiers le basque à une grande famille méditerranéenne, ce qui expliquerait ses ressemblances avec les langues du Nord de l'Afrique, des îles grecques, du caucase, et même avec le sumérien et l'étrusque».

Il y a plusieurs questions qui se posent. La première concerne l'affiliation génétique du basque, l'unique survivance d'une langue préindoeuropéenne en Europe occidentale. Les autres membres de cette famille «méditerranéenne» que je préférerais appeler «euro-saharienne»² ont aujourd'hui disparu, mais ont, évidemment, laissé des traces sur les deux rivages de la Méditerranée, surtout en Afrique et en Europe même. D'autres groupes linguistiques se sont répandus à défaut d'eux, mais il semble que quelques-uns parmi eux étaient, quand-même, anciens voisins de ces langues méditerranéennes, apparentés avec eux, à savoir sur un niveau plus réculé dans le temps. Démontrer cela était déjà le but de divers travaux comparatistes, qui visaient à établir une telle parenté du basque avec les langues chamitosémitiques ou des groupes de langues africaines, tels que je les ai entrepris moi-même³.

La seconde question concerne les contacts qu'a eus une langue dans le domaine historico-culturel, et qui remonte au-delà de son histoire connue. C'est très important, parce que des contacts de cette nature, dont le souvenir a déjà disparu de la mémoire humaine, peuvent parfois être retrouvés grâce aux traces qu'ils ont laissées dans les langues respectives.

1. P. LAFITTE: *Grammaire basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. 2e. éd. Bayonne, sans date (1962), p. 26.

2. H. MUKAROVSKY: *El vascuence y el bereber*. Euskera, vol. XVII, Bilbao, 1972, p. 10, p. 47.

3. *Ibidem*, p. 49.

Les noms des quatre points cardinaux constituent un petit secteur du vocabulaire culturel susceptible de nous rendre une telle évidence. En Eurasie, l'homme s'oriente, en général, d'après le soleil et sa révolution. Ici, le point du levant est le plus souvent l'essentiel, et les autres directions lui sont subordonnées. Ainsi, le nord est situé à droite de celui qui regarde vers l'est, et le sud à gauche. L'ouest se trouve où le soleil se couche. On pourra qualifier un tel système d'orientation de «solaire».

Dans les langues indo-européennes, le terme «est» qui fut emprunté par les parlers romans au germanique, où il est commun, et dont les anciennes formes sont attestées dans le vieux nordique *austr* ou en anglo-saxon *ēastre*, se rattache au sanskrit *uṣāh* «lumière matinale», au grecque *Eōs* et au lithuanien *aušra* «aurore», au letton *aust* «aube» et au vieil slave (*za*) *ustra* «(vers) matin»⁴. En russe, *vostók* et en polonais *wschód* veulent dire «levant». Par contre, le terme «ouest», également emprunté au germanique et qui est dans le vieux nordique *vestr* et en vieil haut-allemand *westar*, s'associe avec le grecque *Hesperos* et le latin *vesper* au sanskrit *avās* «à-bas»⁵. En russe, *západ* et en polonais, *zachód* signifient le coucher du soleil, tout comme en latin *sol occidentans*.

Conformément à cela d'une part, le terme germanique «nord», qui était *norðr* en ancien islandais et *norðterra* en anglo-saxon, correspond à l'ombrien *nertru* «à gauche» et à l'osc *nertrak* «de la gauche» parmi les anciennes langues italiques⁶, le grecque *dexios*, le latin *dexter* et le gothique *taihswa* «à droite» correspondent bien au sanskrit *dāksinā*, au vieil irlandais *dess* et au cymrique *deheu*⁷ qui signifient aussi bien «à droite» que «méridional» d'autre part. Le sud est aussi nommé d'après le soleil qui y atteint le point culminant. De cette façon, les termes germaniques pour le sud, dont le vieil haut-allemand *sundar*, le vieil islandais *suðr* et l'anglo-saxon *suðterra* «vers le sud» se rattachent tous à la racine indo-européenne + *suen-s* «soleil»⁸, ainsi que latin *meridies* et ses dérivés dans les langues modernes, et le polonais *południe* expriment le parcours par le soleil de la moitié de son éclipse.

On retrouve aussi un système d'orientation similaire au sud de la Méditerranée. En arabe⁹ les noms *al-šarq-u* «l'orient» et *al-gharb-u* «l'occident» dérivent des verbes *šaraqa* «se lever» et *gharaba* «se coucher» (du soleil), ainsi que les noms formés à l'aide du préfixe locatif *ma-*: *mašriq-* «pays de l'est» et *maghrib-* «pays de de l'ouest». *Al-šamāl-u* «le nord» de la même

4. J. POKORNY: *Indogermanisches Etymologisches Wörterbuch*. Berne, 1959 = JP 59. Vol. I, p. 86.

5. JP 59, I, p. 73.

6. JP 59, I, p. 765.

7. JP 59, I, p. 190.

8. JP 59, I, p. 881.

9. J. G. HAVA S. J.: *Arabic-English Dictionary*. Beirut, 1915.

racine que *al-šimāl-u* «la gauche» et *al-taiman-u* «le sud» de la même racine que *al-yamīn-u* «la droite». En berbère tachelhit¹⁰ du Maroc *s-zelmed* «vers le nord» s'associe avec *a-zelmaḍ* «la gauche», et *iffuis* «sud» avec *a-fasi* «droite», l'une et l'autre expression étant dérivées du radical *a-fus* pluriel *i-fass-en* «main», ce qui rappelle d'ailleurs la relation qui existe en basque entre *esku* «main» et *eskuin* «droite».

L'égyptien est remarquable pour avoir connu un système d'orientation différent de ceux que possèdent l'arabe et le berbère: En égyptien¹¹ *w m n.t*, ou *y m n.t* «ouest» correspondait à *w m n.j*, ou *y m n.j* «à droite» — ce qui est sensiblement la même racine que l'arabe *yamīn-*, et *i 3 b.t* «est» à *i 3 b.j* «à gauche». Le point d'orientation central fut donc le soleil à son zénith au sud, et non pas le levant dans l'est.

Nous nous proposons de discuter ensuite quelques noms des quatre points cardinaux en basque.

Eguzki-alde «est».

Eguzkialde du biscaien et du guipuzcoen, et *iguzkialde* des parlers orientaux tels que le labourdin et le bas-navarrais signifient la «région du soleil».

Ekh-alde, ekhi-jal-khi-gia «est».

En navarrais et en souletin, on rencontre *ekhi* «soleil» qui n'est pas un lexème en soi, mais résulte d'une contraction de + *egu-ki*¹², dont la racine est donc la même que celle de *eguzki* et *egun* «jour, clarté du jour».

Comme le suffixe *-gia* marque l'endroit, souletin *ekhi-jalkhigia* veut dire «endroit d'ou sort le soleil», ou bien «soleil levant».

Iuz-pegí «est».

Pierre Lafitte¹³ note aussi *iuzpegi* «est», littéralement «oeil (ou source) du soleil». On voit que la consonne *-g-* fut éliée en position intervocalique, ce qui fut le cas aussi dans haut-navarrais *iuzki* «soleil».

Cependant on distingue *iuzpegi* de *iguzpegi* «lieu ensoleillé» noté dans les dictionnaires de P. Lhande ainsi que de I. Lopez-Mendizabal¹⁴.

10. E. DESTAING: *Etude sur le Tachelhit du Sous. Vocabulaire Français-Berbère*. Paris, 1938.

11. A. ERMAN und H. GRAPOW: *Wörterbuch der ägyptischen Sprache*. 5 vols. Leipzig, 1926-1931.

12. L. MICHELENA: *Fonética Histórica Vasca*. 2e. éd. San Sebastián, 1977, p. 65.

13. A. TOURNIER et P. LAFITTE: *Lexique Français-Basque*. Bayonne, 1954.

14. Toutes citations sont faites selon: P. LHANDE: *Dictionnaire Basque-Français*, Paris, 1926, et I. LOPEZ-MENDIZABAL: *Diccionario Vasco-Español*. San Sebastián, sans date (1962).

Sort-alde, sork-alde «est».

Ces mots sont également des termes «solaires» quoique le nom du soleil n'y apparaisse pas. *Sort-alde* est formé de *sor-tu* «naître. *Sork-alde* est mis en relation avec *sor-gi* «lieu de naissance, source». Löpelmann¹⁵ donne une origine latine à ces mots: il les fait dériver du latin *exorior, exortus*, d'où viennent aussi le français '*sortir*' et l'espagnol '*surtir*'. Il pense que ce dernier mot serait «mêlé avec un autre radical latin: '*surgere*'» (ma traduction H. M.).

Cependant, on ne pourra guère nier une forte ressemblance entre *sork-alde* et l'arabe *šarq-* «est». Le nom dérivé que nous avons mentionné plus haut *ma-šriq-* «région du levant» exprime la même nuance. Pourrait-il donc s'agir d'une expression empruntée à l'arabe? Vu le contact tardif de l'arabe et du basque dans l'histoire cela n'est pas très probable. Mais on peut noter qu'un mot dérivé de la même racine arabe *šarq-* fut emprunté par l'italien sous la forme du nom *sciocco* qui désigne «le vent du sud-est». venant du Levant, c.à.d. du *šarq*. Nous revenons encore sur la question plus bas.

Ekhi-sar-gia «ouest».

Ekhisargia «endroit d'entrée du soleil» est usité en souletin, et forme un pendant de l'expression *ekhijalkhigia* «est». A noter que *iguzkisartze* «coucher du soleil» n'est pas employé dans le même sens.

Ekh-itza-gia «ouest».

Une autre expression du souletin *ekhitzalgia* veut dire «endroit de l'ombre du soleil». Elle est remarquable par l'inclusion du radical *itzal* «ombre», dont l'étymologie chamito-sémitique est certaine. En sémitique¹⁶ on trouve dans l'akkadien *šillu*, puis l'hébreu *šēl*, l'ougaritique *š l*, le syrien *šellātā*, l'arabe *zill, zilāl*, l'éthiopien *šelalot*. En berbère nord-africain¹⁷, on trouve dans les parlers du Rif, des beni snous et dans le cabyle *šili*, et en touarèg *tēle*. La consonne initiale de cette racine est reconstruite comme une interdentale sourde emphatique pour le proto-sémitique.

Sart-alde, sark-alde «ouest».

Sartalde «couchant, ouest» vient de *sar-tu-alde* «région de l'entrée», et est remplacé aussi par *sarkalde* en labourdin comme dans les dialectes du sud

15. M. LOPELMANN: *Etymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache*. 2 vols. Berlin, 1968 = ML 68. Vol. II, p. 1181.

16. S. MOSCATI, A. SPITALER, E. ULLENDORFF, W. VON SODEN: *An Introduction to the Comparative Grammar of Semitic Languages*. Wiesbaden, 1964, p. 28.

17. Euskera, vol. XVII, 1972, p. 36 (14.2).

des Pyrénées. M. Löpelmann écrit à propos de ce mot¹⁸: «*sarkalde* 'occident'... vient de *sarki* "'entrée' (c.à.d. du soleil dans la nuit)» et il ajoute, non sans pédanterie: «il ne vient pas de l'arab *šarq* 'orient'» (ma traduction H. M.).

Löpelmann manque d'apercevoir que ce qui correspond à *šarq*- «orient» n'est pas *sark-alde* qui veut dire «ouest», mais *sork-alde* qui désigne l'est! Peut-être il oublie que les voyelles brèves ne possèdent pas de valeur sémantique distinctive en arabe et en sémitique en général, comme elles l'ont en latin et en basque!

Certainement, les couples d'expressions *sorkalde/sarkalde*, *sorkalde/sartalde* «est/ouest» sont propres au génie de la langue basque, et s'associent bien au couple des verbes basques *sor-* «être né»/*sar-* «entrer». Mais cela exclut nullement l'existence d'une relation primaire entre *sork-alde* «orient» et le sémitique (non pas forcément l'arabe) *šarq-* «orient».

Au contraire, il est très probable que le basque ait emprunté à l'arabe le mot *esker* «remerciement» qui correspond au radical arabe *šakara* «remercier». A se rappeler de ce que l'allemand parlé en Suisse a remplacé, par l'expression '*merci*' emprunté au français, le mot '*danke*' usité partout ailleurs, pour comprendre qu'un tel emprunt n'est pas du tout unvraisemblable.

Itsas-alde «ouest».

Itsasalde signifie «région de la mer». Du point de vue géographique, cette notion est juste pour le pays basque au nord des Pyrénées, où la mer est située à l'ouest du continent. Ainsi en Euzkadi du Sud *itsasalde* signifie simplement «côte».

Argi eta garbi da hizkera hertsi hori egiazkoa balitz, euskaldun zenbaiti toki-denborazko perpaus anitz ezinezko gerta lekizkiokela. Molde horretako itzuliak, erlatibakuntzari esker sortuak, euskalki guztietan aurkitzen dira. Bistan dena, holako jokadibeak toki-denborazkoen beste perpausetan ere atzeman daitezke; zenbaitetan hitzunak haien aitzinean dudatan bezala egoten badira, geroago aipatzen ditugun arrazoinengatik gertatzen baita, eta ez de Rijk-ek erran bezalako ezintasun absoluto, zehazki mugatu batengatik. L. Michelenak galdatzen duelarik: «Es correcto *noan etxera, natorren mendia, nabilen mendia*, etc.?»», gaizki gindabilzake, Michelena hizkera batekoa edo bestekoa den finkatu nahi bagenu. Hark eman adibideak, hola ezarririk, solas ingurumen batetarik kanpo, euskaldun guzientzat dira —gutiago ala gehiago, hori bai— dudazko, bitxi, maingu aire batekin. Bizkitartean, arrazoi osoz ari da Villasante, puntu hori komentatuz, dioelarik: «los ejemplos que él

(Michelena) cita son normales y corrientes en los vascos-hablantes». Zer gisaz hori? Villasantek molde horretako erranak entzun dizkien euskalduneri, hotz-hotzean, beste deusik gabe, aurkezten balizkie Michelena adibideak, guti lirerateke besterik gabe onar litzaketanak; askok, beren mintzaketa uko eginez, holakorik inola ere erran ez dezaketela zin egin lezakete berdin⁶. Ez egiazki ezinean daudelakotz, bai, ordean, hizkuntzak oztopoak ematen dituelakotz, haien gaintzeko solas-ingurumenak, beste gauza batzuren artean, inportantzia handia duelarik.

2. De Rijk-en hizkera zabalak ez du euskaldunen erlatibogintzari buruzko arimoldea partez baizik argitzen.

Zabalegi dira haren mugak, zeren, «hizkera zabala» dutelako jendeek erlatibakuntza atzizki bakuneko kasu guztietan berdin egin dezaketela erakustera ematen baitu. Hori, ordean, ez da hala. Daukat ez dela euskaldunik absolutiboa eta ergatiboa (ISerl. sujetao edo objektoa) alde batetik, eta beste beste kasuak (funtzioak) bestetik, berdin erlatibatzen dituenik. Ipar aldean bederen datiboarekin ere agertzen dira oztopoak.

Hertsiegi ere dira, zeren de Rijk-ek ororentzat guztiz erlatibagaitz-tzat dauzkan kasuetan (soziatiboan adibidez), testu-inguru araberakoetan oztopoak gaintzi baitaitezke.

Hizkuntzak muga ezin hautsizkorik ez du ematen. Ez da hizkera hertsirik, ez zabalik, baina hiztun bezainbat hizkera. Oztopoak ororentzat, aipatu bi horietaz beste kasu guztietan agertzen dira, ez, ordean, denentzat eta beti molde berean.

Hemen bi puntu garrantzi handikoak badira:

- onesgarritasuna (akzeptabilitatea) eta gramatikaltasuna berezi behar dira;
- aztergai diren esaldiak ez dira testu-inguru egoki batetarik kanpo soilik ikusi behar.

Solas ingurumen horren inportantziaren ikusteko, Etxaideren «Joanak joan» liburutik atera adibide bat hartuko dut:

(18) *Petirik (...) morroi zegoen ugazabari erantzunik erregarriena botatzen zizkion.* (431. orr.)

Bistan den gauza da, norbaiti, hotzean eta beste deusik gabe, aurkezten bazaio holako esaldi bat, nekez ulertzen ahalko duela, edo gaizki, harentzat beste orientabiderik ez duenez geroz, «ugazaba», «morroi zegoen» hura bera izanen baita (bizkitartean biak elkarren aurkako edo direlarik).

6. Aipatu adibideak, Villasanteren *Sintaxis de la oracion compuesta* liburuan (84 eta 85. orr.) aurkitzen dira. Harrigarri da euskaldunek test-etan nola jukatzen dituzten holako itzuliak «hors contexte» emanak direlarik. Orogen buru, buru hauxe erranen nuke: zenbatenaz ere eskolatuago baitira, edo-eta hizkuntzaren «ongiaz» kezkatuago, hanbatenaz gogorkiago epaitzen dituztela.

Etxaideren elaberrian, aldiz, ez da dudarik. Irakurleak badaki Petiri morroi egon zela eta, nolabait errateko, plegu gaiztokoa baitzen gure gizona, anitz haserrabide aurkitzen zuela bere nagusiarekilako harremanetan. Manera horretan, nobelan esaldia ateratzen delarik, interpretabide bat baizik ez du: Pierre répondait de la façon la plus insolente au patron (dont?) (chez lequel?) il était domestique.

Irakurtzean (18) bezalako adibide baten onartzeak ez du inola ere erran nahi, kontexturik gabe, gisa bereko beste bat onesten ahalko dela; adibidez (19):

(19) *morroi nagoen ugazabak esan du.*

Horra zergatik nahiz, hola, idor-idorrean, biziki dudazkoa gerta daitekeen (19), ez zaidan bidezko iruditzen, onesten dutenentzat gramatikala dela erratea eta besteentzat ez.

Michelenak eman adibideekin ber gauza gertatzen da, eta zerrenda luza daiteke: *sortu naizen mintzaira, zinkurinaz nagoen gauza, bizi naizen aitamak*, bitxi kausituko bide ditu irakurle euskaldunak (ez hiruak behardaba, berritz ere diodan: ez da erregelarik); orain kontsidera ditzala ondoko aipamen hauek, lehenbiziko biak Leizarraga eta Jean Etxeparerenganikakoak, azkena, neronek hazpandar bati aditua:

(20) *nolatan bada guc dançuzquigu batbedera iayo ican garen lengoage propiaz minçatzen?* (Apos. A. II, 8)

(21) *Hanbatenaz ardurago non (...) hortzetarik (...) ala burutik erranguratzen ziezitenek ez baitute erdietan deusik, edo bederen zinkurinaz dauden mina ittipienetarik baita.* (Buruxkak, 180. orr.)

(22) *...haur batzuk ez dute bizitzen diren aitamen izena.* (Dibortziatu ondoan, ama berritz ezkondu zen haur batez mintzatzen zen delako hazpandarra)

3. De Rijk-ek aipatu «salbuespenak», ez dira ene gostuko indar berekoak.

a) ISerl. eta ISxer. ber kasuan daudelarik, oztopo guztiak altxatuak dira. Holako esaldiak solas ingurumenik gabe onartzen dira. Gonbara (23) eta (24):

(23) *Lan egiten dudan nagusia izigarri bortitza da.*

(24) *Lan egiten dudan nagusiarentzat langile guztiak alferrak dira.*

Kontuan har dezagun hemen azaltzen dugun egoerak ondoko hizkuntzetan ere baduela bere inportantzia. Funtzioen paralelismoaz mintzatzen da haientzat, eta haurren hizkuntzan nabari da oroz gaintetik haren garrantzia. Adibidez hona zer dioen Sheldonek: «Perpau konplexuetan, perpau men-

peratua introdutziten duen izenordeak aitzinekoaren («antecedent» delakoa-
ren) funtzioa ezduelarik, oso zail da haurrentzat haien tratatzea». ⁷

b) Bigarren kasu bereziarentzat, ISxer. eta ISerl.—ren kasua semanti-
koki lotuak direlarik, ez naiz segur de Rijk-ek ematen duen adibideak deus
frogatzen duenik. Hona zein den:

(25) *Nere burua il nai nuen arrazoiaz ez naiz gogoratzen.*

Nago (25) adibidean agertzen den perpaus menperatua sasi erlatiboa ez
ote den, hots *Nere burua il nai nuelako arrazoiaz* bagenu bezala.

Halarik ere, de Rijk-en oharra kontuan hartzekoa dela iruditzen zait,
baina beste gau za batzuren esplikatzeko. Partikulazki, tokizko zirkunstanzia-
letan *leku* manera horretan erabiltzen dela pentsa daiteke. ⁸ Gutiz gehienetan,
erlatibogintzaren sistema ez da aldatzen, eta *leku* elementua ez da inola ere
behar-beharrezkoa. Hona Villasantek Axularrenganik bildu dituen bi adi-
bide:

(26) *Nekbazalerik eta laboraririk baizen ezten herria* (Gero, 249)

(27) *Euskaldunik baizen etzen lekhu* (Gero, 6)

Barandiaranen ipuin bildumetan ordean itzuli batzu aurkitzen dira,
haitetan irudi bailuke *leku* hori kasu ezin ezabatu baten lexikalizatzeko erabilia
dela soil-soilik (pratikan, inesiboa):

(28) *...ta artu ama oian zeôn lekuti...* (El mundo en la ... 3, 95. orr.)

(29) *Urdûn neskamêk, sasi atzên zeôn lekuti...* (idem, 67, orr.)

(30) *... ta dili-dale oyian zaon lekuan* (idem, 123, orr.)

Askorentzat franko arraro dira holako itzuliak, eta ez dakit ipar aldean
erabiltzen diren (poesia landuan piru bereko gauzak, edo bitxiagokoak,
aurkitzen direla gauza ezaguna da). ⁹ Holako erlatiboak sistematikoak balira,
inesiboaren ezabatzeko oztopo ezin gaintutzekoak badirela pentsatu behar
genuke (eta ez da dudarik ezintasun hau tokizko beste kasu guztietara hedatu
behar litzatekeela). Ez dut uste hala den. Are gehiago dena, (30) adibideak,
oztopoak kentzen dituen egoera batetan ere, forma horiek erabiltzen direla
erakusten digu. Gisa guztiez, (28-30) adibideetako erlatibamodua —ezabape-

7. Inglesarentzat ari da hor Sheldon. Gauza bertsua frantses hurrekin ere gertatzen dela
ohartarazi du Cohen-Bacri-k. Ikus *La linguistique*, 1978, 1, 92. orr.

8. Hona zer dioen Villasantek: «Al tratarse de esta clase de oraciones, o sea, circunstancia-
les de lugar, lo más frecuente en Axular es utilizar el sustantivo *lekhu* como antecedente de la
oración adjetiva provista del consabido sufijo relativo *-n*. (...) Por este procedimiento obtiene un
equivalente del castellano *en donde, a donde, etc.*» (idem, 97, orr.)

9. Joanes Etxeberriren lanetan adibidez, usu erdal ereduari segituz: *Guztiac betan nekbaz-
que çure onen azpira ! Aingeruz inguraturic non çaudecen alkira* (Manual debozionezkoa).
Barandiaranen esaldiak anitzez onesgarriago dira azken hau baino. Beharbada mintzatzean, uste
baino gehiago agertzen dira.

nik gabe eta ISerl. funtzioa matrizaran lexikalizatuz— tokizko zirkunstantziale-tan baizik ez da agertzen (ez denborazkoetan, alta deklinabide bera delarik).

OZTOPOAK.

Ene inkestaren arabera, jada azaldu bezala, ergatiboaz eta absolutiboaz beste kasu guztietan agertzen dira erlatibatzeke zailtasunak, baina ez denetan ber indarrekoak, ez eta hitzun guztiekin molde berean.

datiboarekin.

(31) *Aita goizean mintzatu zaion gizona joan da*

(31) zuzendu didate zenbaitek, aditza iragankorrean erabiliz: *mintzatu duen*. Kontutan har, zuzentzaile horiek guztiek forma iragangaitza onartzen zutela ISerl. sujetao zelarrik, haientzat (32a) eta (32b) bata bestea bezain onegarri izanik orduan (batzuk lehena hobesten zuten):¹⁰

(32a) *Aitari mintzatu zaion gizona joan da.*

(32b) *Aita mintzatu duen gizona joan da*

Bistan dena, oso pizu gutikoak dira, oro har, datiboarekin agertzen diren oztopoak. Aditzarekilako komunztadurak, ISerl.—ren ezabapenaren ondorioak tikitzen dituelako hain segur, baina ez horregatik bakarrik, ohartu ahal izan bainaiz, datiboaren ezabapena berdin onartzen zela (eta egiten egunor-zoko solasaldietan), textu inguru egokietan, aditz komunztadura jokarazi gabe, ipar aldean maiz gertatzen den bezala.

beste atzizki bakunekin.

Oztopoak gogorrago izaten dira, eta kontextuak —bai kontextu linguistikoak, bai solas ingurumenak— garrantxi handia du. Salbuespen bakarra denborazko perpausek osatzen dute, haiekin inolako zailtasunik ez baita ageri. Funtsean azken puntu hori bi gisaz esplika daiteke: edo morfologiari so eginez, edo, urrunago joanez, ISerl.—ren sakoneko eginkizunari kasu emanez; bi azalpenak, dena den, ez dira elkarren aurkako; elkar osatzen dutela ere kontsidera daiteke.

10. Hemen «sujetoa» aipatzen dugu, eta ez kasua, pratikoago baitzaigu. Artikuluan, ordean, kasuak, eta kasuek adieraz ditzaketen funtzioak, nahasteka erabili ditugu. Funtzioaren arabera mugatzea zuzenago litzateke benturaz, baina gauzak ez dira beti hoin argi. Adibidez, forma biltzaileetan (Lafitteren «formes enveloppantes» haiek) edo holakoetan, irudi luke kasua bera dugula kontuan hartzekoa. *Semea bila dusten jendeak* (hiltzaile izan gabe), *semea bil zaien jendeak*. Sakonean genitiboa dugula hor, ez da dudarik. Ezin ukatuzkoa de bestalde, gaurko euskaran bederen, ISerl. gramatikalizatzeke joera nabari dela, aditz morfologia laidostatuz batzutan; horrela baizik ez daiteke esplika Michelenari «itzuri» zitzaion hura: *bila nenbiltzanak* (*nenbilenak* baten orde). Galdegaia eta mintzagaia euskaraz, §9 eta (25) nota.

Lehen azterbidearen arabera, kasu lokatibo guztiek sail bat osatzen dutela erran genezake (de Rijk-ek kasuak bederazka aipatzen ditu, lokatiboen sail osoa ere kontuan hartzeko dela pentsatzen dut). Are gehiago dena, denborazko perpausetan, ISxer. (ardurenik ezabaturik egon ere) nolabait kasu ezabatuaren ordezkaria dela pentsa dezakegu (*leku* bezala tokizkoetan, hor *aldi*, *ordu*, *mementu*, edo holako zerbait genuke). Orduan tokizko perpausak eta denborazkoak pareka genitzake, ISxer.—ren elipsisari garrantziarik eman gabe.

Bigarren azterbideari jarraikiz, denborazko perpausen berezitasuna azpimarratzen da. Berezitasun hori, aski garbi agertzen da euskarari, ISxer. interpretapena batere trabatu gabe ezaba baitaiteke. Lehenbiziko azterbideak ez dio esplikabide garbirik ematen gauza horri. Nago ni, denbora, berez, ez ote den elementu tematiko berezia, zenbait hizkuntzalarik proposatu duen bezala. Erlatibapena nolabait ere elementu baten tematizazioari loturik egonik,¹¹ horrela esplika genezake orduan denborazko perpausen berezitasuna.

Perpaus horietaz landa, oztopoak pizuago direla jada erranik gaude, bai eta oztopo horien gaintzeko ingurumenak zer egin handia duela.

Ingurumen linguistikoak lehenik, lexikalak adibidez.

(33a) *Atzo bazkaldu genuen ostatua hetsia da egun*

(33b) *Atzo izan ginen ostatua hetsia da egun*

Testetan, jendeen jarrera ez da beti berdina (33a) eta (33b) aurkezten zaizkielarik (kontexturik gabe). Zenbaitek (33b) onesten du, eta (33a) aldiz ez. Balirudike *bazkaldu* horrela erabiliz erlatibogintza zailagotzen dela (hiztun batek garbiki erran dit *-izkirioz erakutsi nion adibidea-*, irudi zuela ostatua izan zela bezperako jatekoa).¹²

Solas ingurumenak ere oztopoak altxa ditzake. Horrelako zerbait bagenuen Etxaideren esaldiarekin (18), baina orain aipatzera goazena ez da arraz gauza bera. *Abiatzen naizen etxea, igan naizen mendia, ateratzen naizen oihana*, eta horrekako itzuliek anitz euskaldunen hizkuntz sentimendua bortxatzen bezala baldin badute, ez da interpretagaitzak direlakotz edo, hobeki erranez, interpretapen desberdin batzuren artean hautua uzten dutelakotz. Bizkitartean, ez da dudarik solasean agertzen direlarik —eta agertzen dira—, bortxaketa hori ezitzen dela, usuenik desagertzen ere delarik. Irudi luke beraz euskaldun askok horrelako erlatiboak kontextuan baizik ez dituztela onesten,

11. Zenbait hizkuntzatan, tema ongi markaturik agertzen den batzutan, errazago da horren erakustea, hala nola Kuno-k japonésarekin egin baitu. Euskaraz besterik da. Hala ere, beste lan batetan, hipotesis honek euskararen kasuan ere funtsik badukeela erakustera entseiatu naiz (*Les relatives en basque*)

12. Holako gauzek, test horiek zein engainagarri izan daitezkeen erakusten dute.

eta bestela, zail egiten zaiela ISerl.—ri dagokion atzizkiaren ematea. Hona zenbait adibide:

- (34) *Zertako sartzen naiz ni (...) ezin athera naitbekeien oihanean?* Axular, 5.
 (35) *Nekbazalerik baizen ezten herria, dela herririk hobereana.* Axular, 249.
 (36) *Zer fruitu (...) izen zenduten orduan, orain abalkez (...) zaudeten bekhatu betan?* Axular, 251.
 (37) *Hi aicen lekua lur saindua duc* (Leizarraga, Apos. A. IX 17.)
 (38) *Eta ecin phoroga citzaquée ni orain accusatzen nauten gauçac.* (Idem, XIII 13)
 (39) *Hura dagon edo dohan tokia, denik ere, bertze zonbeit baino gutixago jo du lur-ikarak* (J. Hiriart-Urruty, Zezenak Errepublikan, 16. orr.)

GENITIBOAK ERLATIBA DAITEZKEA?

De Rijk-ek problema hori isiltzen duela errana dugu. Pratkan gauzak nola agertzen dira?

Hemen ere debeku ezin gaindiztukorik ez dugu aurkitu. Egia da ahal bezainbat ihes egiten zaiela holako erlatiboeri, adibidez, forma biltzaileak erabiliz: *Ama ospitalean duen gizona joana da*, aise onetsia da; itzuli biltzailea baztertzen badugu, ordean, besterik da, kontexturik ez bada partikulazki: *Ama ospitalean den gizona joana da*.

Batzutan, bestaldera gertatzen da; sakoneko objektoa dena genitiboan agertzen delarik, erlatibakuntza berdin egiten da: *Ni naiz çuec galdez çaudetena* dio Leizarragak (Apos. A. X 21) *Hirur guiçon hire galdez diaudec* esaldiari oihartzun emanetz (X 19). Berdintsu ari da Axular (273), honela dioelarik: *Zeren bere konzientzian barrena, ediren baillezakete, eskiribasurik bezala, galdez dauden guztiaren errepuesta*. Molde berean ere bere Manualen Etxeberri: *Iainco handia indaçy esque nagoen hunelaco gauça*¹³. Oso traba guti dela irudi luke gisa horretako perpausetan. Gisa guztiez, *zai(n) egon, beha egon*, eta holakoekin, holako erlatiboak franko aise egiten dira.

Bestela ere, oztopoak, kontextuak laguntzen duelarik, gaindi daitezke. Lagun baten autoa hartu baldin badut, horren berri dakien solaskideari erran diezaioket delako lagun hartaz hitz eginez: *autoa hartu dudan laguna...* (berritz ere, anitz euskalduni min eginen dio esaldi honen hemen hola irakurtzeak, datiboa beren interpretazionetik baztertzen badute oroz gainetik; bizkitartean egun oroz erabiltzen diren itzuliak dira). Hona zenbait adibide neronek adituak.¹⁴

13. Perpau nominalizatuekin gertatzen dena horren antzekoa da. *Hemen aipatzea luzegi liteken xebetahun batzuen arabera* (Hiriart-Urruty, Mintzaira, Aurpegia, Gizon, 77. orr.); *Jaincoac egorri-cituen orai aipatzenat goacen hauc* (Larreguy)

14. Textu idatzietan zailago da holako adibideen aurkitzea. Ez dakit Etxaideren hartan hala zen, edo beste zerbaiz: morroi zegoen (etxaldeko) ugazabari... [ikus. (18)]

- (40) ...*haurrak udalekuan ditugun aitameri...* (hemen forma implikatiboaren erabiltzeak beste genitiboa aditzean sartetik debekatu bezala du; parapausa horrelako zerbait litzateke: *(beren) haurrak gure udalekuan dituzten aitameri*)
- (41) ... *gakoa eman daukuten bortatik...* (eman diguten gakoa irekitzen duen atetik; hots, nongoa ere, edo zein atetakoa, baita eman diguten gakoa, eta handik...)
- (42) ... *Donibandarrek mariñelak empletzen dituzten herrietara...* (Irratian entzuna, erran nahia hau zelarik: vers les pays dont sont originaires les marins qu'emploient les (pêcheurs) luziens; hots euskaraz bestela erranez: nongo edo zein herritakoak baitira Donibandarrek enpletzen dituzten mariñelak, eta hara...).

ATZIZKI BIKOITZEN ERLATIBAPENA

Oso debeku zorrotza ematen du de Rijk-ek gisa horretako erlatiboentzat. Ene inkesten arabera, ordean, gauzak ez dira hain garbi. Egia da, salbu behardaba sozietiboarentzat, oztupoak gogorrigo egiten direla, baina hemen ere kontextuak du azkenean azken hitza. (9-14) adibide saila berriaz kontsideratzen badugu, ez dugu, ene irudiko, itzuli agramatikalik aurkituko. Zenbait, diren bezala, ezin konprenituzko ere dira, baina erlatiboak adierazten duen asertzioa solaskideek jada ezagutzen baldin badute, oztupoak altxatzen dira, lehen aipatu kondizione beretan, hau da, hitzunek ISerl.—ri dagokion atzizkia emanez.

Egia erran, sozietiboaz beste kasuetan, ez dut adibiderik aurkitu testu idatzietan, test-etan frogatuen berme izan daitekeenik¹⁵. Hala ere ez dut uste arrazoina den holakoetan ezintasun ezin bortxatuzkoa dugula segurtatzeko.

Sozietiboarekin ez da dudarik. Are gehiago dena, test-etan, *aita mintzatu den gizona* kontexturik gabe proposatzen delarik, askok beren interpretapenetan, ISerl.—ri, sozietiboa, bitartezkoa baino errazago eratxekitzen diote.

Beste kasuetan oso oztupo handiak direla aitortu behar da, baina hitzunen konpetentzia edo gaitasun delako hartan posibilitate hori badagoela ez daiteke uka. Gutxi erabiltzen edo baliatzen dela erratea, eta esplikatzea, besterik da. Ez naiz segur, atzizki horien anizkoitasunean datzala osorik horren esplikabidea, zeren sozietiboarekin gertatzen dena azalbide horri kontra jartzen baitzaio.

- (43) *Errak semea... hoinbertze jende, hoinbertze urte preso egona den afera horrek ez dik bertzerik ekartzen abal...*

15. Test horiek, toki eskasez, hemen ez ditut ezarri, *Les relatives en basque* deitu idazlanean aurki daitezke.

(43) adibidea, araberako kontextu batetan, denek onartu dute testetan, kausatiboa erantsirik ISerl.—ri.

Bestalde, nahiz ez dudan ongi egiaztatu ahal izan, Euskal Herrian (bestetan ere beharbada) erabiltzen den frantses herrikoian, holako itzuliak erabiltzen direla iruditzen zait. Eman dezagun: *La maison que j'ai vécu si longtemps..., l'enfant qu'ils étaient tous allés à Lourdes pour prier...*

AZKEN HITZA

Euskarazko erlatibogintza arau hertsia zenbaiten barnean kokarazi nahia franko lanjerosa gerta daiteke. Ez dut uste hemen gauzak bai-ala-ez-kako sistema sinple batek osoki azal ditzakeen.

Bibliografia

- AXULAR. *Gero*. Ed. 1964. Juan Flors. Barcelona.
- J. M. BARANDIARAN. *El mundo en la mente popular vasca*. Vol. 3. Ed. Auñamendi. 1972. San Sebastian.
- J. BOULLE. *Basque Relative Clauses*. University of Vincennes. February 1978. (fotokop).
de RIJK *Studies in basque syntax relative clauses*. (Tesis, 1972, fotokop).
- J. ETCHEBERRI. *Manual devotioenezcoa*. Bordelen. MDCLXIX. Fac. sim. Hordago 1978. Donostia.
- J. HIRIART-URRUTY. *Zezenak errepublikan*. Jakin, 1972. Oinati. *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*. Jakin. 1971; Aranzazu.
- S. KUNO. *The structure of the Japanese Language*. MIT Press. 1973.
- J. LEIZARRAGA. *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu berria*. 1571. Rochellan. Fac. Sim. Hordago. 1979. Donostia.
- L. MICHELENA. *Galdegaia eta mintzagaia euskaraz*, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Deustuko Unibertsitateko argitarazioak. 1981. Bilbo. (57-81 orr.).
- B. OYHARÇABAL. *Les Relatives en basque*. 1981. (fotokop).
- A. SHELDON. *The role of parallel function in the acquisition of relative clause in English*, in, *Journal of Verbal Learning and Verbal behavior*, 1974, 13 (272 - 281. orr.).
- L. VILLASANTE. *Sintaxis de la oracion compuesta*. Ed. franciscana Aranzazu. 1976. Oñate.

OREINA ETA GIZOREINA LITERATURGINTZAN ETA EDERGINTZAN

Txomin PEILLEN

*«Atlantika-Pireneetako sinbeste zabarrak»,
idatzi zuen Aita Lafitteren omenez.*

Lafitte jauna, behin, Bordeleko euskal ikasleen aitzinean eman zenuen hitzaldian, «Orein bilakatu neska» ren kantua ezagutarazi zenigun. Baliman, badakizu «Haizea» eresi taldeak «Ura ixuririk» izenarekin, zuk bildu kantu zaharra, eman duela, Amaia kantarisaren boz ederrez abesturik. Testu labur eta trinko hunek gure sineste zahar baten oihartzuna ekartzen digu, alegia giza-orein mituarena. Huna zer dion:

*Ura ixuririk sorginen bidean,
dohaina bildu dut Bazko Aratsean;
gauaz Mayi nuzu, egunaz oreina,
etxeke zakurrek xerkatzen nutena.*

— *Jakes, nun 'tuk horak, eztiat senditzen,
oihanpean kurri oreina xerkatzen?
Jakes, dei' zakurrak, salbazak arreba!
— Ama nola sinets Mayi daitekela?*

*Jakes zakurreri hasi da xixtuka.
Oreina hil dute kolpez ausikika.
Jakesek kanitaz eman du pusketan:
«aseko ahal da mayi gurekila».*

*«Afal, afal, Jakes, ni nuk hor lehena,
ene haragiaz betherik dupina!»
Ama sala zolan nigarra begian,
puñala sartu du bere bihotzean.*

(Pierre Lafitte, «Atlantika-Pirene-etako sinbeste zabarrak» Gure Herria 1965 p. 22)

Gizoreiñaren itxuraldaketa eta nahualtasuna.

Lerro horietan, Azkuek eta bestek bildurikoetan bezala, ikusten dugu nola euskaldun zaharrek, jendea basa ehize bilaka ditekela, sinesten zuten. Zuberoan, Ligin Margarita Harrixurikoak esaten zigun norbait, bapatean, gatu bilaka litekela eta Lafitte jaunak bere irazkinean berdin dio:

«Zenbait aldiz presuna batzuek zorte txarra atxemaiten omen zuten alimale batzuen itxura hartzen baitzuten zer nahi irriskurekin. Hala-koak zitazken gizotsoa, gizazeria eta emazte oreina, otso, azeri edo orein bilakatu eta»

Jendeen eta basa piztien harreman horiei inguru, bitxi da ikustea Erdi-Haroan, jende-izena emaiten zaiola abere sorginei (frantsesez goupil = Renard eta beharbada euskaraz azeri = Azeari, Azenari) eta bestalde Lafitte jaunak aipatu bigarren piztiarekin, otsoarekin abere-izena, jende-izen bila-katzen, Otsoa.

Urte beretan Guatemalako Maya delakoen mitologiak, *Popol Vuh* irakurtzen nuen eta denbora berean Miguel Angel Asturias-en *Hombres de Maiz* obran Euskal Herriko sineste berdina hatzeman nuen. Gizaoreinaren aipamenak liburu horren bizpahirur lekutan xehetasunekin agertzen dirade, Ameriketako Inditarren sineste hori nasaiki edasten dituztenak.

Lehenbiziko aipamenean, «Venado de las Siete-rozas» «Zazpi labakietako oreiña» izeneko ihizearen ixtorioa jakiten dugu. Ipuñ luze hortan sendagile-sorgin (curandero) den inditar batek dio Tecún anaian amak daukan zotina sendoarazteko delako oreiña hil behar dela:

«Lo dejó sin remedio salvo que le dé caza al Venado de las Siete-rozas»
(M. A. Asturias, *Hombres de Maiz*, Alianza Editorial Madrid 1972, «Venado de las Siete-rozas», atalean, 71. orrialdean)

Tecún anaiek atalaia batetik begistatzen dute ehizea eta hiltzen, baina huna non, falta zen anaia batek, dion denbora berean sorgina hil duela.

*«Venite, Hermano, Calistro mató al curandero
Y como lo mató
De la quebrada subió con el cadáver desnudo arrastrando de una pata.*

Orduan Gaudencio Tecún -ek inardesten dio eztela egia eta eztabaida bat hasten da - euskal kantuan bezala - oreiña ta sorgina nahasiz.

«Vos matarías al Venado de las Siete-rozas, no se desmiente; pero el Curandero aunque digas que son visiones lo mató Calistro.»

Gaudencio-k jarraitzen du, oreña ta sorgina bat direla.

«El Curandero y el Venado de las siete-rozas para que vos sepás eran énticos. Disparé contra el Venado y ultimé al Curandero porque uno solo los dos énticos.»

(Lib. aip. «Venado de las Siete-rozas», 71. orrialdean)

Euskal kantu deitoragarrian berdín esaten da:

*«Ura ixuririk sorginen bidean
dobaina bildu dut Bazko aratsean;
gauaz Mayi nuzu, egunaz oreina»*

Eta Jakesek amarekin eztabaidan dio:

Ama nola sinets Mayi daitekela?

Horraño Maya herritarren ondoko inditarren eta euskaldunen artean pentsabide berdina ikusi dugu, sorgin dohain bat da gizaorein bilakatzea. Hemendik aurrera ipuinak desberdinxka dirade. Bi gizaoreinak abere itxurapean hil badira, ez dakigu euskal kantuan Mayi-ren gorputza ere hatzeman denetz eta gure euskaldun anaiak ez baitu bere arreba ezagutu orein larrupean, egosarazten ari da; inditarren artean, berriz, oreina osorik egon da eta bi gorputzak arkitu:

«Es lo que pasa siempre en este caso. El que tiene la gracia de ser gente y animal al caso de perder la vida deja su mero cuerpo donde hizo la muda y el cuerpo animal. El Curandero se le volvió venado a Calistro y allá al darle yo el postazo dejó su forma humana porque allí hizo la muda, y aquí vino a dejar su forma de venado donde yo lo atajé con la muerte»

(Lib. aip. «Venado de las Siete-rozas» 73. orr.)

Asturias eta Lafitte jauna bat daude esanaz, hunek:

«zonbait aldiz pertsona batzuek bakarrik ahalmen hori daukate....

(Lan aipatuan 21. orr.)

eta harek

«el que tiene la gracia de ser gente y animal»

(Lib. aip. 73. orr.)

Beste leku batean Asturias-ek gauzak iluntzenago ditu *Nahual*-a zer den eta *Nabualtasuna* azalduz, apez batek, okerki, bere oroit-liburuan, *nabuala*, gure ingeru zaindari edo begirariarekin alderatzen duenean:

«Tiene su nahual, dicen de cualquier persona, significando que tiene un animal que le protege. Esto se entiende porque así como los cristianos

tenemos el Santo angel de la guardia el indio debe tener su nahual... sin ir muy lejos este Nichon dicen que se vuelve coyote al salir del pueblo por allí.»

(Lib. aipatuan Correo Coyote atalean, 200-201 orr.)

Apezak uste du inditar guziek ahalmen hori daukatela. Guk, agian, nahual edo itxuraldaketa, avatara-tik bereizi genezake, lehena ikusten baitugu *jendeekin gertatzen*, otso, azeri, gatu, zakur, orein bilakatuz Euskal Herrian, baita Maya -Quiché herrietan ere; bestalde «avatara» esan genezaioke *jainko baten* itxura aldatzeari hala nola Egipta zaharreko, idi, sai, zezen, gatu, baita Euskal Herrian Maia «jainkosa» delakoaren itxurak: behi, sai, saguxar eta beste pizti sakratu motak. Hala ikusten dugu bi kasuetan ez direla, gehiengotan, animale berdinak. Ainitz balizateke erraiteko euskal jainkosaren avatarez, baina hemen gizaoreinaren itxuraldaketean mugatuz, oreiñaren sinbolikaz zerbait ikertzea eramanen gaitu.

Sakrifizio eta dantza

Beste probarik behar da Oreiña ta Sorgina bat direla ezagutzeko. Bi gorputzak ikertuz ikusten da bietan tiroa ezkerreko beharri ondotik sartu zaietela:

«El Curandero tiene el postazo tras la oreja zurda mero como el Venado.»

(lib. aip. «Venado de las Siete -rozaz atalean 74 orr.)

Gure kantu zaharrak ez du holakorik agertzen, gizoreina ez da jendeek hila, baina zakurrek sarraskitua; baina horrez kanpo, badira Euskal Herrian, Azkuek, Barbier-ek eta bestek bildurik, Maya-en proba hori oroitarazten dutenak: gatu bat jende bati jokatzen zaio eta jendeak makilaz, nahiz ezpataz oin bat, esku bat kolpatzen dio eta biharamenean auzoko norbait, oin berean, esku berean zauritua agertzen da. Itxuraldaketearen irrisku bat da hau ere, heriotza kanpo eta kasu horietan ere jende hori sorgina dela famatzen da.

Ez da errez sinbolu erran nahia ematea ondoko puntuari:

ene haragiaz betherik dupina!

Naski, Grezian, Agamemnon bere alaba Ifigenia hiltzera doalarik, erhaiketa sakratuan ordezkari Artemisek orein eme bat bidaltzen dio, Pompeiko labarri margo batean agertzen den gisa; berdin, behin Egan-en idatzi genuen bezala:

«Abraham bere semearekin berdin egiter zela, ta egiteko zorian, Jainkoak axuri bat ordezkari igorri ziola.

Lamaren pean dagoen eize-ordea ez da berdina, semiten axuria, europarren oreinaren ondoan.»

(Jakin «Oreña» Jakin 18 znb. Arantzazu 1965, 30 orr.)

Asian, berriz, Kanbutxean, oreina eguzki pitzia izanki eta agorte, idorte, lehorteen sortzaile, *orein hiltzeak*, euria ekartzen du eta bestalde Angkor aldean hortarako dantza egiten diote.

Asturias-en ipuina itzuliz, Maya-Quiché ohitura jarraikiz Gaudencio Tecùn-ek orein hilaren inguruan dantza egiten du, kañaberaz jantzirik:

«Y asi vestido de caña dulce baila alrededor del Venado haciendole espavientos para asustarle. Juirte! le dice mientras baila.»

(Lib. aip. «Venado de las Siete-rozas atalean, 75. orrialdean)

Dantza hori Parisen ikusi ahal izan dut, hegoamerikar folklore talde batek emana, duela urte. Inditar dantzariak, burutik behera, orein baten adantza zeukan, eguzkiaren jaia ospatzeko.

Dantza horiek oreinaren erran nahiaz eta sinboluaz aintz erakusten digute eta Floridako inditarren ohitura batekin alderatzen bada, gehiago, zeren horiek beren Eguzki Jai Nagusiaren ospatzeko halaxe egiten zuten:

«Zeremonia baten garaian arrapatu oreinaren larrua idokitzen, belarkiz betatzen abalik eta bizitan zeukan itxura har zezan, gero fruta eta landare zintzilikatuz apaintzen. Indi horiek, Irudia Ekialdeari buruz inguratua, urtaldi on bat izan zedin, inguruan dantza eta otoitz egin obi zuten.»

(Alexander HARTLEY BURR, *Great mysteries of the North american indians*, Paris, 1962, 172. orr.)

Asturiasen liburuan gizoreinaren geroa jarraitzen badugu, urrendo erri-tua ehorzketa da. Oreña Lurpean ehortzirik dagoenean lurazalean odol ixtil bat agertzen da ta odol txarrasta irudiko batek ilargia txapastatzen, gero argi bat gauerditan pizten da ta zerua eguntzen, geroago urrezko ke bat lurretik altxatzen. Hor ikusten da oreña argiaren eta eguzki sortzearen (urrea) sinbolua dela. Pawnee izeneko inditarrek eguzkia dela diote:

«Oihanpetik, egun argiari buruz bere humeak laguntzen dituen oreña bezala agertzen dela.»

(Alexander HARTLEY NURR, *Great mysteries of the North american indians*, Paris 1962, 145. orrialdean)

Behin Jakin-en idatzi genuen:

«Oreñak ordea literaturan ta mitologian leku bereiziagoa dauka; europar mitu zahar bat da. Noizean pizti sakratua (donsua) da,

bestean madarikatua, deabruak hartua (dongea). Sha Nameh, Persiako Erregeen liburuan, George Vernadsky-ren arauera, irakurri leike: Akwan deabrua, oreñ izugarri, urre koloreko baten itxuran agertu zela, Rustam airez eroaiteko, itsaso ertzean urean pulunpatzeko. Indiko Buddhatiarren ipuinetan orein handi bat odeiez dabil mendiko arrolla ta osinen gaindi urrezko argi bat gorputzetik distiraturaz.»

(«Oreña» in Jakin 19 zbk. Arantzazu 1965, 30 o.)

Hemen Asturiasen liburuan bezala *urrezko argia* aipatzen da, eta gure euskal kantuan gauzak ez badira haiñ argi ere, Mayi neska neska-oreina, eguzkiaren sinbolu gisa dela, ondoko puntuak erakusten digu:

gauaz Mayi nuzu, egunaz oreña.

Beraz egunaren argitzearekin Mayi orein bilakatzen da, eguzki sinbolu bihurtzen eta gauarekin itzaltzen. Hemen sorginek noiz nahi egiten duten itxuraldaketatik maila bat gorago gaude, *neska-oreña argia baita*. Aurreko adibideekin sinbolikaren eta jainkotzearen mugan gaude.

Oreinaren jainkotzea.

Maya-Quiché inditarrentzat ez da oreña jainko, sorgin itxura bat baizik eta hilen munduan Nicho Aquino «Correo-Coyote» inditarrak bere ibilaldia egiten duenean, oihan hotzetan, odeien artean, lorez eta zomorroz inguratua Zazpi Labakietako Oreña arkitzen du:

«El Curandero señala con su pata de Venado entre los invicibles al Gaspar Ilóm (inditarren auzapez hila)»

(Liburu aipatuan, «Correo-Coyote» atalean, 82-83. orr.)

Ez dirudi ere Euskal Herrian ta Pirene guztian oreña jainkotu denik eta Abbé Breuil-ek «Dieu cornu», Jainko-adardun, izendatu zuen labar-irudia Leroi-Gourhan-ek orain «Sorgina» izenarekin aipatzen du. Sorgin hori giza-oreina da. Duela nonbait hamabost mila urte Magdalena garai erditsutan egina eta Trois-Frères-eko karbean Ariège departamenduan aurkitu dute. Sorgin delako horrek giza gorputza du, baina buru gaiñean oreñ adarrak, beharriak elur-oreinarenak, eta zaldi baten buztana, bere gizon «natura» agirian. (Tecun-ek bigarren dantzan, zaldi buztan idurikoa janzten du) René Huyghes-ek emaiten duen interpretapena ezin onetsia da oraingo materialke-ria pentsabide batekin egina baita:

«Le chasseur, le sorcier mimeront alors la démarche, le geste de l'animal, complétant l'équivoque par quelques dépouilles authentiques: peaux, crânes, qui renforcent l'illusion.»

Mitu guztiek ekartzen dizkiguten argiekin, irudi hortan ikusten dena da sorgina eta giza-oreiña. Gure kasuan eta gure euskal kantuarekin lotzeko esan dezagun holako irudia *Isturitzen ere* hatzeman dela hezur xafla batetan grabatua, lau giza buru ikusten dira eta baten gaiñetik *orein-adarrak*.

Sartaldean Oreiñaren jainkotzaile bakarrak Galiako keltak izan dira, baliman; ez dakigu Indoeuopar iturri batetik harturik (gorago ikusi dugu, argiaren sinbolu Indietan oreina zela), beharbada Sartaldera heldu zirelarik indo-euoparren aurrekoei mailegaturik, sinbolua jainko bihurtuko dute, *Cernunnos* izenpean. Hau dugu irudigintzan bigarren azalpena, Gundestrup-eko zilar pertz ospetsuan piztiz inguratua agertzen da, Buddha bat iduri jarria, *piztien jainkoa* ote? Reims-en nasaitasunaren jainkoa da.

TROIS-FRERES KARBEKO SORGIN-OREINA



Abbé Breuil-ek marrazkitua.

Giza hori, gau hegazi (ala leoi ala iratxo) begiekin, oreiñkide baten adarrez burua jantzirik, orein nahiz elur-orein baten sorbaldak eta belarriak dituen, gizon makurtu bat dirudi. Uzko aldean zaldi buztana, azpian gizon naturak ageri, baina Felideo baten jarreran.

(André LEROI-GOURHAN, *Préhistoire de l'art occidental*, Mazenod Paris 1971, 97. orrialdean.)

Soslan Narta -ren mitua da, baliman, literaturan ederkienik kontatua izan dena eta Georges Dumézil-ek bere *Romans de Scythie et d'alentour* Payot Genève 1970. delako liburuan ezin hobeki ezagutarazten digu nola Kaukasi mendietan Txerkez herritarrek edasten zuten; hemen laburpen bat eman beharko zaigu, artikuluaeren mugak kontuetan harturik:

Rismark aitonen semea, behin, ehizatik beltzuri sartu zen. Soslan haren lagunak galdetu zion zer zuen eta harek inardetsi hemezortzi muturretako adarrak zituen oreiña ikusi zuela, larrua urre kolore zuena. Hurbil eta gezi askoren iraitzen hasi zitzaion...denak alperrik ehizeak alde guztietarat baztertzen zituen; ezpata har eta berdin eskutik jauzi egiten. Oreiñ iheslea jarraitzea kausitzen du, baina bapatean lurpean galtzen da.

Hori entzunik Soslan-ek ez du gau osoan lorik batere egiten; Egunaren argitzean buiraka bizkarrean geziz beterik, uztaia eskuan, ezpata saihetsean Rismark-ek ihitokian oreiña ikusi zuen lekura badoa. Eguzkia sortzean, hemezortzi muturretako adardun oreiña, bere urrezko larruan, eguzkiarekin batean agertzen da. Oreiña lasterka Mendi Beltzari buruz badoa, Soslan haren ondotik lurpean karbe batetan sartzen da. Lurraren bihotzean ikusten ditu zazpi gaztelu, zazpi gizon erraldoiek, zazpi gazteluak zaintzen ari, baita Sirux *Eguzkiaren alaba* hezten eta begiratzen.

Soslan gaztelu horietarik batean sartzen da. Bere eresgailu berezi den lirarekin soinu egiten hasten da; bazter guztietarik piztiak, abereak heltzen dira, mendiek ere soinua laguntzen dute, baina gaztelutik motiko batzuez kanpo iñor ez zaio agertzen. Orain dio «*Ezin ninteke bizi, jan gabe ta borrokatu gabe, gudukatua gabe*». Berehala motikoak gazteluzain erraldoien bila badoatza; haiek Soslan harrapatzen dute; hil nahi dute beren *oreiñ eguzki-alaba* aspererazten baitu, haien ezpatek ordea ezin dute Soslan-en lepoa ebaki.

Erraldoiak harriturik beren Eguzki-alabaren ikustera joaiten dira gertatu zitzaiena kondatzera, Soslan Narta dela dionari ezin diotela lepoa moztu. *Eguzki-alaba*, oreiñ izanak inardesten diete, baldin gizon hori Soslan bada harek egurukitzen duen senarra dela ta une berean ezagutuko dutela bi sorbaldeen artean narrio beltz bat ikusten bazaio hura dela egiazko Soslan eguzkiak baitio soinean seiñale hori ikurtu. Erraldoiak Soslanen eranztera badoatza eta bizkarrean tika beltza ikusten. Sirux-ek artamendatuak entzunik Soslan-i jakinarazten diote, Eguzki-alaba ederrarekin ezkontzeko: burdinezko gaztelu bat, *Haza* zuhaitzaren ostoak, ehun oreiñ eta ehun basahuntz, eta beste kentetako ehun pizti harrapatu behar dituela. Galdera latzgarri hori entzunik Soslan

apur bat etsitzen hasten da. Zatana, bere amarengana hersatzen da ezinergia hori argi dezaion. Amak, magiazko erraztun bat emanik itsas bazterrean lurrean zirkulu bat marrazten, hor berean burdin gaztelua agerrarazten duelarik, txaramela baten soñuz eskatu dizkioten piztiak biltzen ditu eta Bedura haren emazte zenak *haza* zuhaitzaren ostoak emaiten dizkio.

Halaxe Soslan Narta Eguzki alabarekin ezkondu zen, bai oreñ baten itxuran ihitokian, argiozkorriarekin batean agertu zitzaion andere ederrarekin. Beren artean haragi griña sutsu bat piztu zen, luzaro elkarri lotuak edukiko dituenak; baina gauza guztiak, eta irrirts guztiak ez dute beti muga ta harresi gogor bat erakusten kanpotik etorritako ihardokipenei eta geroago beste *izar-alaba* bat Soslanen ganako irritsez beterik, Narta aitonen semearen ondotik ibiliko da, hartu nahiz, eta giza semea denbora berean deseginen du.

Hemen ikusten dugunetz, euskal kantuan bezala ez da gizon bat oreñ bilakatzen, baina neskatila bat halakatzen. Gure deitora bertsoek halere ez dute esaten zein zen oreñaren larru kolorea.

Ez dugu horrekin agortu oreinaren esan nahia ta gizoreinarena ere, nahiz euskal kantuak eman lezakegun argia hemen gelditzen den. Ekialde Urrunera joanaz Txinara heltzen garade Maya-rekin alderatzekotan. Ez zaigu ahaztu behar Maiak Asia iparraldetik etorritako jendeak direla, nonbait, duela hamabost mila urte abiatutako higiduran Ameriketara iritxiak.

Bi kosmogonietan oreña eguzkiaren sinbolua izateaz kanpo, suarena da, agortearena, lehortearena. Kanbutxean oreñ bat herrian sartzen delarik jendeek uste dute suaren abisua dela; hain zuzen Miguel Angel Asturias-ek dio bere ipuiñean sorgin-oreñak duela Ilom eko oihana sutan ezarri, aizkolariek balia ez zezaten, eta aizkolari, zurketarien alde etorritako soldadoak errerik hil zitezten, zeren oihaneko zuhaitzak egoitziz sorginek behar dituzten landareak, inditarrek behar dituzten ehizeak eta ireñak behar dituzten itzalak galeraztan baitirade:

«y después de las maldiciones el fuego empinose en solemnidad, el Venado, el Curandero.»...

(Lib. aip. «Correo-coyote» atalean 326.orrialdean)

Euskal ipuiñaren berezitasunak.

Bere laburrean gure deitora kantuak ez du horrenbeste ematen eta ez dugu segurtasun osorik oreñ hori arra ala emea den, herri batzutan ehizeen

izenetan nahaspila sartzen baita eta behin, idatzi genuena duela hamazazpi urte huna alda dezakegu:

«Oreina emea dela ta orkatza arra diotenak, badira. Baina aintziñan Cervus Elaphus-ari «oreiña», Capreolus capreolus-ari «orkatza» ta Rupicapra Pyrénaica-ri «basahuntza» edo «sarrinoa» zioten.»

(Jakin Arantzazu, 1965, 31. orrialdean «Oreiña»)

Gure kantuak sineste zahar baten oihartzuna ekartzen digu, baina ez da baliman haiñ zaharra, baitirudi bertso horien xedea, itxuraldaketaren irris-kuak erakustea dela. Halere hitzen latzgarritasunari ohartzen bagara, egin den garaian sorgin ahalmen hortan sinesten zuten gure aintzinekoek. Sineste hori beste aintzekin alderatu baldin badugu, komeni da berriz, lehen bertsoan bereziki iker dezagun, hola ikusten dugu Bazko aratsean neskatila batek ez duela ura ixurtzera utzi behar sorginen bidetik urketari dabilanean:

Ura ixuririk sorginen bidean, dohaina bildu dut Bazko aratsean.

Debeku horren ondotik, beste bi puntuek bigarren sinestea ekartzen digute, alegia oreiñ bilakatu neska, argi ta eguzki agertzean sinbolua dela, Maia, Narta, Inditar, Persiarren artean bezala: *gauaz Mayi nuzu, egunaz oreina,*

Geroago aipatzen den etxeko zakurren ehizeketak ez du, agian, sinbolu erran nahirik, baina arriskuaren morala izan nahi luke.

Ikusi dugu nola ama semeek eztabaidatzen duten neskaren itxuraldaketa eta akarra berdina sortzen da Tecun anaien artean Asturiasen obran. Eztabaida horrek bigarren bertsoa betetzen du, batere hitz gehiegirik gabe.

Hirugarren ahapaldian Jakesen ehizea ikusten dugu eta Asturiasen ipuinean bezala gure basa-piztiak hil behar du, bi kasuetan oreiña sorgin izanki; Asia erdiko ta Kaukaseko ipuinetan ehizlariek ezin dute oreiña hil hala nola Jon Done Julianen eta San Hubertoren bizitzetan giristino alorrean.

Laugarren ahapaldian euskal ipuina besteen gandik bereizten da, behar-daba, itxuraldaketaren arriskua paroxismo goihen batera eramateko, anaiak oreiñ sorginetik jangura du eta amak bere burua hiltzen; ezin dugu arkitu beste mitologietan holakorik, nahiz Astuariasen ipuinean, ama eri baten gatik den sorgin-oreiña hiltzen, nahiz eta oreiña sakrifizio ordari bezala agertzen den Ifigenia salbatzeko, bere aita Agamemnonek hil nahi duenean.

Sineste ardatz, kultur ardatz?

Mitu horren ondotik Eguzki Sortaldetik Sartaldera ibili frango eman dugu, ezugu beharbada jakinen sineste hori ez denetz oreinaren itxura beretik, harreman gabeko jende mota berezien artean sortu, adarrek zuhaitza,

bizi zuhaitza, oroitarazten baitute, eta ehize horren zalutasunak, lastertasunak eguzkiaren jalkitzea gogora ekartzen, baita denbora berean suaren irudia, basoetan sua pizten delarik hura baita lehenik oihanpetik agertzen; halere beste bide bat ikus genezake jende harremanetan. Ez ote da ikusten paleolithos aroan Europa guztian elkartrukeak badirela, mesolithos garaian trukeak Indietako mugetara heltzen direla, neolithos garaian megalituen sinestea Europa ta Asia herri gehienetan hedatzen dela, orduan ez dugu beharbada, urrunegi joan behar eta ustegabeko kidetasun baino gehiago harreman hutsak onhar genetzazke, inbasioak eta herri aldaketak kontuetan hartuz. Eta Edergintzazko pitxi ta ontziak trukatzan zirelarik ez ote zituzten saltzaileek haiei zegokien ipuiñak kondatzen.

Ardatz batez lotzen baditugu sorgin-orein, orein-eguzki sinestea daukaten herriak ez dugu etendurarik aurkituko, Euskal Herritik hasiz, kelt herrietan gaindi, Eskitoen artetik, Kaukasira, gero Indietara, geroago Txinara eta dakigularik Ameriketako inditarrak jatorriz Mantxuriatik eta ipar Txinatik abiatu zirela, elkarganatu ditugu herrialdeak. Halere gizaoreinaren irudia ardatz horren muturretan baizik ez da hatzematzen, Maia-Quiché herritarren eta euskaldun pirenetarren artean. Beste herrietan oreiñ hutsa da azaltzen, brontzeko pitxietan, gerriko belarrietan, harma zati, zaldi edergailu. Stepetako Edergintza izenez ezagutua den hori, Mantxuriatik Hungariaraiño hedatzen da tai gabe eta Frantzia ere, Kaukasiako Sarmata indoeuropearrek Frantziako Beauce-herrialdea populatu dutelarik holako brontzeak ekarri dituzte, Chateaudun-eko Erakustokian ikus ditezkenak inguruko hiltxobititik atereak. Beraz ez dira sinesteak eta gauzak bakarrik kurritu, jendeak ere.

Beste japoniar margolari askoren gisa Katsushika Hokusai-ek, bere herritarren bizi-elixiraren bila igaiten duten Mendia, Hots Fuji mendiaz Ehun irudigintzak, *Fugaku-Hyakkei* liburu ederra argitaratu zuenean, oreiña ez zitzaion ahaztu. 1834. urtean bere bilduma ederrena eman zuenean Zorionaren Jainkoa, oreiñ baten itxurapean ematen digu ehizea, lepoa luzaturik, burua gibelera itzulirik zeruan dabiltzan hirur saguxarren behatzen ari da, urrunean Fuji mendiaren tini xuria elurrez estalirik, eta beheko aldetik laño mehe arin bat igotzen delarik.

Euskal mitologiaren ikuspegitik, irudi horrek gure bi pizti sakratu biltzen ditu, hain zuzen saguxarra (gau-ainhara) zorion ekarlea baita gure herritarren sinestean hala ikusi dugun bezala oreiña argiaren sinbolua, ere.

«Margo xuriz» ko makimono marrazki zahar batean, XII. mendean eginikako *Chōju-giga* delako ipuiñean, «*piztien eta txorien kondaira irriegingarrian*» ikusten da nola, untxia, lapina *oreiña* muturreko eta sokaz kabestrutua, tximinoaren gana eramaten duen. Shinto-ko sinesteen satira ote? ala sakrilegio batzuen gisa ez al da fede baten jarraipena ezagutarazteko? Zer nahi izanik ere Japon-eko sineste horrek Altai herrietako sinesteak gogoratzen ditu. Ez dugu uste, Zorion Jainko izen horrengatik Txinatik, nahiz Indietatik etortzako sinbolua denik.

Budismuaren *Jātaka* delakoetan buddha Zakiamuni-ren aintzin edo lehen bizitzak kondatzen zaizkigunean, notinak piztiak dira. *Urrezko oreiña* Bodhixattva bera da, beren griña minez Buddha-k etsipenetik salbatzen dituenak. Lehen predikuaren sinboluak ere Benares-eko oreiñak dira. Erakasle Handiaren erakaspentak sinbolu gisa *Basa-oreiñaren indarra* du, piztia bezala laister hedatzen eta kurrizten baita.

Ikonografian eta mitologian irudi ospetsuenak Artemis-Diana ta oreiñaren estatuak dira. Esaten da grekotarrek nonbait auzo herrietatik hartu zutela sinestea; nondik nahi, basoetako jainkosa zen, ihizlaria, lasterka ta korrika urrezko adarrak zituzten bost oreiñ-ema arrapatu zituela eta lau, bere guardiaren tiratzeko erabili. Sineste hori ez baldin bada Euskal Herrian kontserbatu, gure euskal kantuak badu Artemis-ekin gertatuaren egitea: Artoon, Aristaios artzainaren semea ta Thebai hiriarren finkatzaile izandako Kadmosen ilobañoak zion Artemis baino sotilagoa zela ihizean. Behin, oihan baten erditan, iturri baten urean ninfa-iturri neskekin bainatzen ari, Jainkosa ikusi zuen eta beha egon; bereala *oreiñ bilakatu zen eta bere zakurrek jan zuten*.

Euskal herrian, behintzat, Isturitzeko hezurtean ikusten den giza-oreinen irudiak, gure ipuiñ zahararen sineste ikurra izan ditek, gure herria haiñ kontserbakorra izanki (Ez al ditugu uztarri, golde, laratz eta suburdinetan ikusten paleolithos garaiko sinboluak grabaturik). Euskaldunen artean, baita beste europarren artean ere, halaxe aintzin-historiatik hondar batzu iritxi xaizkigu, batzutan apur bat itxuragabeturik heldu.

Agian, mitologiak ez daki irakurriz, René Huyghes-ek oreiñaren interpretapenean, anka sartze edo huts ederra egin du, basa ehize horren irudia uste baitu, beti, ehize-magia bezala erabili dela: oreiña harrapatu nahi zenean, hil nahi zenean, Trois-frères-eko sorginak erakusten omen digun legez, orein buru batekin basa piztiaren ihakina egin behar zuten. Baina zergatik oreiña eta ez beste ehize mota guztiak?

Gure mitologia, sineste, sinbolu hondakinak ere baliagarri dira Edertia ulertzeko. Holako edergailuak beti lanerako ta jaterako egiten zirela, materialkeriaz kutsatutako pentsabidea da eta kosmogonia aberats eta olerkitsuan bizi ziren jendeen ez aditzea. Huna Lafitte kalonjeak argitaratu ipuiñ zaharrak, eraiki argi txirristak eta oreiñaren ondotik bisitatu ditugun oihanpe iluntsuak.

RÉSUMÉ

Nous partons d'une légende basque à caractère mythologique recueillie par le chanoine Pierre Lafitte et publiée dans un opuscule consacré à la cosmogonie basque sous le titre de *Atlantika-Pireneetako sineste zabarrak* (les croyances anciennes des Pyrénées Atlantiques) Gure Herria Bayonne, 1965, 30 p.

Le texte de cette chanson peut se traduire ainsi:

*Ayant renversé de l'eau sur le chemin des sorcières,
le soir de Pâques j'ai reçu un don;
la nuit je suis Marie, le jour un cerf,
que les chiens de la maison poursuivent.*

—Jacques où as-tu les chiens, je ne les entends pas?
—Dans le sous-bois ils vont cherchant le cerf.
—Jacques, rappelle les chiens, sauve ta soeur!
—Mère comment croire que (cela) puisse être Marie?

*Jacques a commencé à siffler les chiens.
Ils ont tué le cerf à coup de morsures.
Jacques de son couteau l'a coupé en morceaux:
«va t'il se repaître de Marie»*

*«Dînes, dînes Jacques, je suis bien celle d'autrefois
dont la chair remplit la marmite!»
Mère au fond de la salle les larmes dans les yeux,
a enfoncé un poignard dans son coeur.*

L'analyse de ces vers nous a conduit à évoquer les phénomènes surnaturels des métamorphoses d'humains en animaux, des avatars des dieux en bêtes et pour cela nous avons comparé notre texte particulièrement, avec un livre de Miguel Angel Asturias *Hombres de Maiz*, dans lequel se trouve décrit un phénomène de métamorphose dénommé par les indiens *nahualisme* et d'autre part dans la même épopée mythologique le récit principal nous montre un sorcier se transformant en cerf. Cette légende possède de nombreux points communs avec la chanson basque.

Beti bezala, determinanteak subkategorizatu behar dira, aurreko ala atzeko lekuan doazen arauera.

(14) erregelek ematen diguten egituren adibideak hauek dira:

(15.1)



(15.2)



Ordinalak ez digute problema handirik ekartzen. Normalean, ordinalak determinante definituekin gertatzen dira: *bigarren liburua, azken hiru etxeak*. Beraz,

$$(16.1) \quad \text{IS} \rightarrow \{ \pm \text{Ord} \}$$

$$\quad \quad \quad \{ + \text{Def} \}$$

$$(16.2) \quad \text{IS} \rightarrow \text{Ord} + \text{IS}$$

$$\left[\begin{array}{c} + \text{Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right] \quad \left[\begin{array}{c} - \text{Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right] \text{E} = \text{edozein ezaugarri}$$

Zenbait adjetibo, bereziki nazionalitatezkoak, izenaren aurrean doaz, euskal adjetibo gehienak ez bezala: *Euskal Herria, Frantses Bidea, ingeles giltza*. Hauek lortzeko, (17) aski dugu:

$$(17) \quad \text{IM} \rightarrow \text{Adj} + \text{IM}$$

$$\quad \quad \quad \{ + \text{Adj} \} \quad \quad \quad \{ \pm \text{Adj} \}$$

Erregela hau (12.5).aren kidea da; adjetiboak, noski, subkategorizatu behar dira izen multzoko lekuen arauera.

Beste hitza bakoitza da, leku berezia duelako izen sintagman eta beste edozeinekin gertatu ahal delako. Beraz,

$$(18) \quad \text{IS} \rightarrow \text{beste} + \text{IS}$$

Izen propioak eta beste zenbait izen sintagma determinanterik gabe gertatzen dira: *Patxi, Bilbo*, (baina *Patxi galant hori* edo *Patxi galanta*, ez **Patxi galant*), *Artzai joan zen Ameriketara* (Goenagak esplikatzen duen legez, *Artzaina joan zen Ameriketara* zeharo desberdina da). Erregela sintaktikoen lana da, holakoak beren lekuetan ipintzea; hemen, behar dugun guztia hau da:

$$(19.1) \quad \text{IS} \rightarrow \{ \pm \text{Det} \}$$

$$(19.2) \quad \text{IS} \rightarrow \text{IM}$$

$$\quad \quad \quad \{ - \text{Det} \} \quad \{ - \text{Adj} \}$$

$$(19.3) \quad \text{IS} \rightarrow \{ \pm \text{Num} \}, \{ \pm \text{Def} \}$$

$$\quad \quad \quad \{ + \text{Det} \}$$

(7.1) erregelak izenlaguna kategoria sartzen du, baina beste erregela bat behar dugu izenlagunaren barruko egitura adierazteko. Izenlagunak hiru moetakoak ditugu: *-ko* sintagmak, genitiboak, eta perpaus erlatiboak. Beraz,

$$(20) \quad \text{Izlg} \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} \text{Alg} + \text{-ko} \\ \text{IS} + \text{-en} \\ \text{P} + \text{-n} \end{array} \right\} \quad \begin{array}{l} \text{Alg} = \text{aditzlaguna} \\ \text{P} = \text{perpaus} \end{array}$$


Adibideak: $[\text{Alg} \text{Euskal Herrian}] + \text{-ko} \rightarrow [\text{Izlg} \text{Euskal Herriko}] \text{gazteak}$

$[_{IS}gizon\ zuhurrak] + -en \rightarrow [_{Izlg}gizon\ zuhurren]$ irudiak

$[_{P}ni\ bizi\ naiz] + -n \rightarrow [_{Izlg}ni\ bizi\ naizen]$ lurrian

Erregela horri esker, izen sintagma bat edo gehiago izen sintagma handiago baten barruan ager daiteke -- adibidez, *Aldapeko sagarraren adarraren puntan*, beheko egitura baitu:

(22)



(Hemen, K = kasu atzizkia.)

(*-ko* atzizkiaren ibilera dela eta, ikus Lafitte (1944, 62. horr.), Mitxelena (1972, 119. horr.), Goenaga (1980, 94. horr.).)

Azken finean, elkartziaz zertxobait gehiago esan behar da. (7.2) errege-lak bi izen sintagma elkartzeko bide ematen digu, baina izen sintagmez gainerako gauzak elkar daitezke: bi izen, bi adjetibo, bi izen multzo, bi izenlagun, etab. Izan ere, edozein kategoria elkar daiteke moeta berbereko beste batekin. Hau lortzeko, erregela *generalizatu* bat behar dugu:

(22) $\alpha \rightarrow \alpha$ Junt α ($\alpha =$ edozein kategoria)

Erregela horren bidez, IM \rightarrow IM Junt IM idatzi ahal dugu, edota I \rightarrow I Junt I, edota Izlg \rightarrow Izlg Junt Izlg, etab.

Orain, proposatu ditugun erregelen zerrenda oso bat eman dezagun:

(23.1) IS \rightarrow Izlg + IS

(23.2) Izlg \rightarrow $\left\{ \begin{array}{l} Alg + -ko \\ IS + -en \\ P + -n \end{array} \right\}$

(23.3) IS \rightarrow beste + IS

(23.4) IS \rightarrow { \pm Det }

- (23.5) IS → IM
[- Det] [- Adj]
- (23.6) IS → {± Num}, {± Def}
[+ Det]
- (23.7) IS → {± Ord}
[+ Def]
- (23.8) IS → Ord + IS

$$\left[\begin{array}{l} + \text{ Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right] \quad \left[\begin{array}{l} - \text{ Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right]$$
- (23.9) IS → IS + Det

$$\left[\begin{array}{l} + \text{ Num} \\ + \text{ Def} \end{array} \right] \quad \left[\begin{array}{l} + \text{ Num} \\ - \text{ Def} \end{array} \right] \quad [+ \text{ Def}]$$
- (23.10) IS →
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{IM} + \text{ Det} \\ \quad \left[\begin{array}{l} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{array} \right] \\ \text{Det} + \text{IM} \\ \left[\begin{array}{l} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{array} \right] \end{array} \right\}$$
- (23.11) IM → {± Grad}
- (23.12) IM →
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Grad} + \text{IM} \\ \quad [+ \text{ Adj}] \\ \text{IM} + \text{Grad} \\ \quad [+ \text{ Adj}] \end{array} \right\}$$
- (23.13) IM → {± Adj}
[- Grad]
- (23.14) IM →
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{IM} + \text{Adj} \\ \quad [\pm \text{ Adj}] \\ \text{Adj} + \text{IM} \\ \quad [\pm \text{ Adj}] \end{array} \right\}$$
- (23.15) IM → I
[- Adj]
- (23.16) $\alpha \rightarrow \alpha \text{ Junt } \alpha$ (α = edozein kategoria)

Zerrendako erregela guztiak erregela sintagmatikoak dira, eta orden gabekoak. Horien bidez, euskarazko zeinnahi izen sintagmari egitura bat eman dakiok. Eta ez dugu transformaziorik behar.

Eskerrak: Beti bezala, nere euskal lagunei esker beroenak eskeini nahi nizkieke, eman didaten laguntzagatik, eta bereziki Esther Barrutia nere emazteari. Artikulu bonetako okerrak nereak dira, noski.

Gainera, Patxi Goenagari asko zor diodala esan behar dut; Goenaga, ia bakar-bakarrik, euskal sintasiaren ikertzapenean hasi da bere liburu bikainaren bidez.

Azken finean, agur beroenak eskeini nahi nioke Aita Lafitte-ri, eta nere estimua adierazi bere kontribuzio baliotsuagatik euskalaritza arloan. Atzerriko euskalari asko bezala, ni ere Aita Lafitte-ren liburuaz hasi nintzen euskaraz ikasten.

Erabilitako idazlanak:

G. GAZDAR (Agertuko), «Phrase Structure Grammar», G. K. PULLUM eta P. JACOBSON-EK prestatzen duten *On the Nature of Syntactic Representation* liburuan, D. Reidel (DORDRECHT).

P. GOENAGA (1978; bigarren edizioa 1980), *Gramatika Bideetan*, Erein (Donostia).

J. B. HARYMBAT eta B. PONS (1963), *Méthode basque pour débutants*, Editions Ezkila; bigarren edizioa (1980), ELKAR (Zarautz).

Abbé ITHURRY (1979; lehen edizioa 1894-1907), *Grammaire basque*, Ediciones Vascas (Donostia).

P. LAFITTE (1944; hirugarren edizioa 1979), *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, ELKAR (Donostia).

K. MITXELENA (1972), *Zenbait Hitzaldi, ETOR (Bilbo)*.

R. P. G. de RIJK (1972), «Relative Clauses in Basque: A Guided Tour», P. M. PERANTEAU, J. N. LEVI, eta G. C. PHARES-ek prestatu zuten *The Chicago Which Hunt* liburuan, Chicago Linguistic Society (Chicago).

M. SAGÜÉS (1980), *Gramática Elemental Vasca*, TXERTOIA (Donostia).

UMANDI (1976), *Gramática Vasca*, Kardaberaz (Tolosa).

T. H. WILBUR (1970), «Ergative and Pseudo-Ergative in Basque», *Fontes linguae vasconum* II:4, 57-66 horr.

EUSKAL DIALEKTOLOGIAREN ATARIAN

Patxi URIBARREN

Gaiaren aurkezpena

Bi arrazoi nagusik bultzatu naute aipaturiko gaiari buruz gogoketak egitera. Alde batetik, idazlantxo hau hain hizkuntzalari eta euskalkien azterlari sutsua dugun P. Lafitte jaunaren omenaldirako idatzia izateak; bestetik, azken garai honetan Euskal Herrian zehar gure mintzaera desberdinen altxor agortezina sakontasunez aztertzeo gogo biziak ikusteak.

Hain zuzen ere, gaur egunez, hasia dugu Euskaldunok gure dialektoen (euskalkien) azterketa lana. Hori dela eta euskalkiak zenbat, zeintzu eta nolakoak diren aztertzeraz jo aurretik egoki etorriko zaigu dialektologiari buruzko zenbait ikuspuntu hausnartu eta kaleratzea, horrek gaia sakonetik aztertzeo bideak eskeiniko dizkigu eta. Kontutan hartu behar dugu, hartu ere, hasera haseratik gure euskalkiok euskararen dialektoak baino ez ditugula.

Euskalki horiek, bestalde, ez ditugu hor nonbait kasualitate hutsez sorturiko zerbaitzu. Hor ditugu, bai, begibistan gaur egunez, baina beraien zergatiak eta iturburuak aztertzen ahaleginak egin beharra dugu. Azterketa horretarako gai apur bat eskeintzea litzateke lerro hauen asmo nagusia.

Dialektoen izatea eta definizioa

Dialektoen izateaz jabetzeko, sarritan bestetara uste baldin bada ere, ez daukagu hizkuntzen inguruan aparteko azterlanik egin beharrik. Ardura eta arreta gutxienezko bat hartu eta hizkuntzetara hurbildu den edonork bat batean ikusi izan du, sarritan harritzeko zerbait iruditu bazaio ere, hizkuntza horien Lurraldeetako barrutian hizketa desberdinak erabiltzen direla.

Askotan, nahiz eta hiztunak giza-talde ber-bereko partaideak izan eta denek hizkuntza bakarra eta berdina darabilela uste, beren arteko mintzaerak nahiko desberdinak agertzen zaizkigu. Halako kasuetan, dialekto desberdinez mintzatzen direla esan ohi dugu.

Zer genuke, bada, dialektoa? «Hizkuntza batek Lurralde konkretu batetan, isoglosa batzuei jarraituz hartzen duen era mugatua dugu. Isoglosa horien ugaritasunak, dialektoaren bakartitasuna tajutzen du. Hala ta guztiz ere dialektoen mugak zehaztu-ezinak izan ohi dira».¹

Dialektoek ematen diguten Lurralde Lurraldeko era desberdinezko aurpegi hori, bi faktore ezberdinen eragipenek sortua izan daiteke: *Hizkuntza bakarra zenbait arrazoinen eragipenez sakabanatuz joateak sortua* edo eta *hizkuntza desberdinak, elkarren ondoan egon eta bakar bat egiterakoan hor hemen gelditutako aztarnek osotua*.

Hizketa desberdin horien sortzea, bestalde, herriaren historia-ibilaldian zehar eta prozesu luze baten altzoan egin ohi da. Beraz, gizonaren historiari hertsiki loturik agertuko zaigu. Hori dela eta komenigarri izango dugu gizartearen eta hizkuntzaren ibilaldi korapilotsu historikoa batera aztertzea. Hau, danau kontutan izateak zenbait oztopo kendu eta argirik ugari eskeiniko digu!

Dialektoen oinarrian gizartea dago

Hizkuntzalari gehienek, era batera edo bestera diotenez, gizartearen ibiladi historikoak bultzatzen eta tajutzen du hizkuntzaren bizitza. Ez dugu, inoiz ahaztu behar hizkuntza dugula gizonok elkarren artean harremanetan jarri eta elkar ulertzeko medio nagusia.

Beraz hizkuntzen eta gizonen bizitzek elkarren artean gorapilotsu loturik dihardutenez, komenigarri izango dugu hizkuntza baten inguruak aztertzerakoan, hizkuntza hori harremanetarako erabiltzen duen giza - taldearen une bakoitzeko egoera historiko konkretua ez ahaztea.

Azken batetan, dialektoen oinarrian gizon ezagun batzuk osoturiko gizarte egin bat izanik, nahitaezko iruditzen zait, asmakeria antzuetan astirik ez galtzeko, errealitate horretan finkatzen diren abiapuntu batzu gogora ekarriz jokatzea, gure hausnarketek dialekto horien iturburu garbietara eramán gaitzaten. Hori horrela, zera esan genezake:

a) *Ez dago hiztunen artean berdintasun osorik*: Bizitzako beste zenbait alorretan egunero frogatzen dugun gizonen arteko desberdin izatea, argi agertzen zaigu hizkuntz-alorretan ere. Guraso berdinen semeak izan arren denetan berdinak diren pertsonak aurkitzea ezinezkoa gertatzen zaigun bezala, hizkuntz alorretan eta berdintsu jazotzen da; ezin berdintsu alor eta une guztietan mintzatzen den hiztunik aurkitu. Hori dela eta onar genezake oso osoan, zenbait azterlan sakon eginda gero ondorio gisa Martinet jaunak dioskuna: «Ez da inongo Lurraldean hizkuntz alor guztietan beti berdintsu mintzatzen den giza-elkarte linguistikorik ezagutzen. Gizon gehienak, egoera

1. Fernando LÁZARO CARRETER: *Diccionario de Términos Filológicos*. Madrid (1977).

konkretuetako premien arauera, hizkuntza-bakarreko mintza-molde desberdinak erabiltzeko gai izan ohi dira»².

b) *Ez dago hiztunen artean gaitasun berdunik*. Oraindik gehiago ere esan genezake, hots, giza-elkarte bakoitzeko partaide guztiek ez dutela hizkuntza erabiltzeko kapazitate berdina. Chonsky-k, berak ere, bere teoriaran fenomeno multzokatzearen aldeko jokera agertzen baldin badu ere, onartu egiten du hizkuntza berdineko hiztunen arteko gramatika-moldeetarako desberdin izate hori. Eta baita ere, mezuaren interpretapen semantikoak hiztun bakoitzaren ezagupen horrek baldintzaturik egotea.³ Badirudi, hau hain agiriko zerbait izanik, aipatu beharrik ere ez zegoela. Hala ere Kontutan hartzekoa dugu, zenbaiten huts egiteak (adibidez, hizkuntzen irakaskuntza antolatzean) hau eta antzerakoak ez gogoratzetik sortzen dira eta.

c) *Hizkuntzaren bizitzako esentzia herriaren historian datza*. Izan ere, hizkuntza ez dugu hor nonbait gauetik goizera bat-batean sortutako landara arraroa. Hizkuntzaren ibilera historikoa, mintzatzeko erabiltzen duen gizartearen barneko oinarrian dauden ekonomia eta giza-taldeei loturik egotean datza. Hori dela eta, gizarte elkartu nazional berean hizkuntz-mota desberdinak ager daitezke. Ezin da, ba, zientifikoki hitzik egin herri osoko aintzinako *hizkuntza bakarrari* buruz. Fikzio hutsa izango litzateke, hizkuntza nazionala gizatalde eta giza-moetatik kanpo aztertzea. Hemen zera aitor genezake: Hizkuntzak bere barneko mendez mendetako altxorrari esker, herriaren historiari argia ematen dio eta historia horrek hizkuntzaren aldaketak eta ulertzeko bideak eta datuak eskeintzen dizkigu. Hizkuntzaren izatea, azken batetan, herriaren historia bizia baino ez dugu.

d) *Hizkuntza ezin da laborategian aztertu*. Hizkuntzaren ibilaldi historikoa eta giza-elkarreana hain elkarlotuak izanik, ezin dira elkarrekin zerikusirik ez balute bezala aztertu. Hizkuntzalari batzuen akatsa, hizkuntzak gizartearekin duen lotura hertsia hori kontutan ez hartzea izan da. Hori dela eta, Errusoek, Txekoek (Pragako eskolak), Jakobson eta Martinet-en jarraitzaileek garrantzi handia eman diote hizkuntzaren giza-inguruari. Ahalegin handiak egin dituzte hori azaltzen. Hauen eritziz hizkuntza ez dugu, gure asmakizunek aditzera eman nahi diguten errealitate kutsatugabea edo, eguneko bizitzan gizonaren izate konkretuei loturik agertzen zaigun errealitate mugatua baino.

e) *Hizkuntza hiztunen eskutan dago*. Hizkuntzak hiztunen ahoan hartzen du bere bizitza eta izatea. Hori dela eta garrantzi handia izan dute hiztunen arteko jokerekin: bizimodu konkretuekin: ofizioekin, giza-mailekin... hizkuntza bakarreko zatiketetan. Zenbait arazo sortu izan dira hortik: Dialek-

2. André MARTINET, *Elementos de Lingüística General*. Madrid (1965) 182 orr.

3. V. SÁNCHEZ de ZAVALA, comp., *Semántica y sintaxis en la Lingüística transformatoria*. I, Madrid (1974) 282 orr.

toen arteko hizkuntzak («komunak» deituak) eta hizketa bereziak, hots: *hizkuntz-inguru kanpotarretako barremanetara moldatuak* eta *giza-mailetako barremanetan erabili ohi direnak*. Hau da, hiztunek tajutzen dute hizkuntza eta tokian tokiko eta unean uneko erabilera ezarri. Hala ere, hiztun bakoitza giza-elkarte nagusiagoko partaide izanik, giza-moldeek mugatua izan ohi da bere erabilera konkretu hori. Hiztunak ezin du hizkuntzarekin nahi duena egin, gizarateak baldintzaturik baitago. Horri esker, giza-molde sozialak aldatu arren, hizkuntzak lehengoan jarraituko du, bizimodu berriari erantzuteko beharrezko zuzenketak eginez.

Dialektologiari buruzko eritzi nagusienak

Dialektoak gizaratearen ibilaldi historikoari hertsiki loturik direla esan ondoren, berehalaxe datorkigu ondoko galdera: baina nola aztertua izan da historian zehar arazo hau? Benetan ba du garrantzirik gaur egunez honetaz mintzatzen aritzeak?

Eta oraingoa ere, nahiz eta ezin esan gure errefracuak dioena «*zenbat buru hainbat aburu*» oso osoan betetzen denik, nahiko sakabanaturik agiri zaizkigu eritziak. Eritzi hauek, gizonok ingurumariko morroi izanik, korronte linguistiko jakin batzuen inguruan sorta ditzakegu:

a) *Ipar Ameriketako linguistika estrukturalak*, geografia eta giza-bizitza tarteko zirela, hizkuntza bereko partaideen artean sortzen ziren zatikatzeak azpimarratu zituen, *Hizkuntza standard-a* (hezia), *sub standard-a* (sendikoa) eta *tokiko dialektoak* bereiztuz. Bonfield-ek, berak ere, hizkuntza standard-a interesatzen zaiolako halako bereizketak bitxikeriazat jotzen dituen arren, ofizio desberdinetako hiztunen arteko desberdintasunak aitortzen ditu.

b) *Linguistika deskriptiba deitua delakoak* giza-barneko talde desberdinen eta partaide bakarren arteko berezitasunak alde utzirik, giza-talde baten une historiko batetako hizkuntz-sistema aztertzen du. Beraz, zertzo bat baztaturik izango du dialektologiaren mundua.

c) *Linguistika sinkronikoak*, alderantziz, linguistika deskriptibaz gainera beste zenbait ikerketa alor ukitzen ditu: Adibidez, *dialektologia sinkronikoa* deritxona, hau da, *hiztun bakarren* eta *hiztun multzatuen* arteko ohitura linguistiko desberdinen azterketa sistematikoak.

Hori dela eta Chomsky-ren bereizketa kontutan hartzea komeni zaigu: Hizkuntzen konpetentzia bikoitza da: *substantiboa*, edozein gizonek (homo sapiens) hizkuntzarako duen ahalmena eta *formala*, motibapen sozio-kulturalek baldintzatzen dutena, aldakorra, beraz, mezua kodigo batean zein bestean ahalbideratzen duena.

Beraz ezin ditugu inolaz ere hemen orain Robin Lakolf-en hitz hauek ahaztu behar: «Edozein hizkuntzalarik, nahiz honelakoa nahiz horrelakoa izan

bere ikuspuntu teorikoa, hizkuntzaren gorabeherak egoki eta zintzoki aztertu nahi baldin baditu, ezin ditu inguruak sortutako faktoreak ahaztu».⁴

Hizkuntz Pragmatika delakoa, ba, hiztunen giza-egoera desberdin guzti horiek kontutan direla *kodifikatzeak* egitea izan da. Izan ere, Hizketaren ekintzak, erregela neurtuak ditu, beraien artean sozio - kulturalak bide direla, noski.

Hizkuntzek berezko erregelak dituzte

Dialektoei buruz egiten ari garen hausnarketa honetan, beste konzeptu jakingarri batekin egin dugu topo, hots, hizkuntz-erregelekin. Hizkuntzek, historian zehar gizartearekin eskuz esku badihartute ere, beren dinamika propioa dute. Hortik sortzen da hizkuntzen barneko dinamika hori tajutzen duten erregelak ezagutu beharra. Jarraian, ba, erregela horiek zer-nolakoak azaltzen saiatuko naiz.

a) *Hizkuntz-erregelak ez diraitsuak*. Lehenago esandakotik ateratzen denez (hizkuntzak gizonaren izateari loturik diren neurri berean, hau bezala aldakorrak izango baitira) gogotan hartu behar dugu hizkuntzen bizitzan erregelak baldin badira ere, hauek ez ditugula inolaz ere, gizadian ohi den bezala (erregela fisikoak eta nahitaezkoak eta aldaezinak izaten dira)itsuak, hizkuntz-normek ez baitute haien antzeko aplikapen generalik eta osorik. Hizkuntzek, bada, ez dira inoiz matematika, fisika edo logika huts izango.

b) *Denborak eta espazioak baldintzatutak dira*. Oraindik gehiago: fonetikako erregelak deitzen eragipena, era nahasi handi batetan denborak eta espazioak baldintzatua dugu. Nahiz eta une historiko berean eta lurralde berean aritu, fonetikako erregela horiek ez dira berdin ezartzen tipo berdineko hitz guztiei. Adibidez: Parkatu/Bake edo eta ZuzenKI/OnGI.

c) *Erregela horiek aldakorrak izan ohi dira*. Lege fonetikoaren eta berauen hedapenaren arteko erlazioa aldakorra eta kasuala izan ohi da. Schuchardt-ek, *dialektoa* zer den galdetu ondoren (neogramatikoek ere erabilia zuten hitz hori) argi eta garbi frogatzen digu ez dela inolaz ere bizitzarekin zerikusirik ez duen asmakizun abstraktoa edo. Aurkitu ere, *Hizkuntza* edo eta *Dialekto* berbera duten gizataldearen barnean, sekua, adina, kultura eta abar direla bide, hainbat *hizketa indibidual* desberdin aurkitzen ditugu. Baina nola sortu ohi da hori?

1) *Modaren indarrez*: Hizketa desberdin horiek eragipena dute elkarrengan, hizketa-modak indar handia baitu. Baina beti elkarren arteko desberdintasunak guztiz desagertzera heldu gabe.

2) *Pertsona «ospetsu» eragileen indarrez*. Denok dakigunez, sarritan, pertsona eragileen (giza-elkarteko beste hiztunek ospetsutat jotzen dituzte-

4. Ibidem.

nean, noski) mitzaera edo hizketa gogo biziz eta indarrez jarraitua izaten da eta horrek erraz sortzen ditu hizkuntzarengan aldaketak eta aipaturiko erregelak aplikaezin bihurtzen dituen izugarritzko nahasketak. Hau imitazioaren eragipenez egin ohi da. Schuchardt-ek garrantzi handia emango zion honi hizkuntzen nahasketak ikertzerakoan.

d) *Hizkuntzen sailkaketa zerbait erlatiboa da.* Esandako guzti hori kontutan hartzen baldin badugu, hizkuntzak sailkatzea, *dialekto*, *subdialekto* eta *idioleto* etan, zerbait erlatiboa dela ikusten dugu. Dena dela, lege fonetikoaren *nahitaezkotasun-eza* onartzea, dialekto, subdialekto eta idioleto horiek onartzea beste litzateke, nahiz eta bereizketa horretan, fonetikoak aparte, beste zenbait elementu ere tarteko izan.

e) *Hizkuntzek ez dituzte muga zehaztuak.* Schuchardt-ek indar berdinez gaitzetsi ohi zuen neogramatikoez erabiltzen zuten *aldi linguistiko* delako hori, haiek hizkuntzen bizitzako *aldi berean lege fonetikoak betebeharrezkoak* zirela defendatzen zuten eta.

Hizkuntzen arteko muga geografiko zehatzik izaten ez denez, hizkuntza baten barneko mugaketa kronologikoak ere geure buruetako asmakizun hutsak izaten dira: egin ere fase batetatik bestera aldatzea igarri gabe egiten da, dialekto batetik besterakoa bezala. Horregatik ezin dugu zehaztu noiz bukatzen den aldi bat edo eta noiz hasten bestea, dialekto bat non bukatzen den eta non hasten bestea ere tajutzea eginezina den bezala.

f) *Hizkuntzen egoerak ez dira berdinak izaten.* Neogramatikoez, doinu-aldaketak nahitaezkoak egiteko, hizkuntz-egoera berdinak aipatzen zituzten, baina Schuchardt-en eritziz ez da halako egoera berdinek inoiz gertatzen, hitz bakoitza inguru berezian aurkitzen delako, eta hori doinu berdintsua itxuraz beste hitzen pareko agertu arren.

Aldaketa fonetikoetan, eduki ere, garrantzi handia daukate hizkuntz-gaiaren erabilerak, hots, maiztasunak nahiz urritasunak. Sarri erabilia den hitz batek gutxi erabilia denak baino aldaketa ugariagoak eta sakonagoak edukiko ditu. Alderantziz, kanpotik sartutako edozein aldaketa fonetikok ezin izaten ditu erraz erabiliak diren hitzak aldatu.

g) *Hizkuntzen erregelak erabiliaren erabilez sortuak dira.* Honetaz eta argi mintzatzen zaigu Schuchardt. Hizkuntzaren aldaketak ez direla guk asmatuz ezarritako erregela-nagusiei jarraituz egiten, hiztun konkretuen erabileraren eragipenez baino frogatzen digu. Hau ere kontutan hartu beharko dugu hizkuntz-erregelen duten balioa eta ez gehiago emateko.

Hizkuntzen baitan ikaragarritzko automatismoa izanarren ez da itsumutuan jokatzeko. Aldaketak pertsonen erabileraren fruitu izaten dira eta hiztuna nolako egoeratan aurkitu halako aldaketa bereziak sortzen dira. Aldaketok eta hizkuntzen arteko desberdintasunak, neurri handi batetan, giza-egoera historiko konkretuen ondorio izango ditugu. Berez giza-mintzamena bakar

bakarra dugu toki guztietan. Hori dela eta hizkuntzen artean antz handiak daude eta batzu ikertzeak besteak ulertzen laguntzen digu.

h) *Ondorioak:*

1) Hemen, ba, erdibide batetik abiatu beharra dugu. Neogramatikoek eragipen handiegia ematen diete erregela fonetikoari. Schuchardt-ek, ostera, hainbatetan gaitzetsi egiten ditu hizkuntz-aldaketan oinarriak, hiztun konkretuen jokarak larregi azpimarratuz.

2) Neogramatikoek, hizkuntzaren izatea hausnargaitzat hartu eta aldatu erregela jakin batzuen bidez egiten direla ikusiz, hizkuntzaren bizitzako eboluzioa zehatz mugatuz josten dute, hizkuntzek historian zehar berdintsu irauten baitute. Schuchardt, ostera, hiztunen hizketa desberdinetatik abiatzen da, hizkuntzaren aldakortasunera heltzeko zenbait adibide konkretu tarteko dituela.

3) Schuchardt-en eta neogramatikoen arteko desberdintasuna ez dela soilki filosofikoa esanenez. Helburu eta metodologia ezberdinak erabiltzen dituzte. Lehenak *hizketa*, hau da, une konkretu batetako hizkuntzaren izate konkretua hartzen du aztergaitzat eta besteak, hizkuntzaren arduraren batipat, mendez mende iraun duen sistemaren arduraren.

4) Zer esan ba? Alde batetik hori ditugu gehienetan zehatz bete ohi diren oinarriko zenbait erregela, eta bestetik erregela horiek ez direla beti automatikoki eta aldi guztietan berdina betetzen nabari zaigu. Badirudi oraino honetan egia ez dela ez gorri ez zuri, gorri-zuri edo *hori* baino.

Hizkuntzaren aldaketak, batez ere fonetikoak, dudarik gabe, erregela jakin batzuei jarraituz egin ohi dira, bai, baina erregelak betetze hori ez da zehatz-zehatza, maila batetako baino, betetzerakoan izakera pertsonalei eta loturik egiten da eta.

Dialekto motak

Ikusi izan dugunez, hizkuntzak nahiz eta beraien barneko dinamika berezia izan, gizarte konkretu batzutan gorpuzten dira eta inguru geografikoak eta gizarteak baldintzaturik aurkitzen dira. Dialektoak aipatzean eta aztertzean ere, bi eragipen horiek, geografikoa eta gizartekoa kontutan ditugula jokatu beharra dugu. Eragipen horien arauera, bi motako dialektoak izango baititugu: dialekto *horizontalak* eta *bertikalak*:

a) *Dialekto horizontalak* edo geografikoak, hizkuntzaren zabalera geografikoak baldintzaturik sortutako *hizketa bereziak* ditugu. Inguru desberdinek, ibilera historiko desberdina sortu izan dute eta hizkuntza berberaren barneko eboluzio desberdina ekarri. Desberdintasun hau etendura egite-raino heltzen denean, hizkuntz-zatiketa sortu dela esan ohi da. Ikus, adibidez, hizkuntza erromanikoak: *latinetik* gaztelania, frantsesa, italianoa, galego-


portugesa, katalana, ...sortu ziren. Hizkuntza moderno hauek, zenbaiten eritziz, zientifikoki, oraindik latinaren dialektoak izango genituzke.

b) *Dialekto bertikalak*, Giza-maila desberdinetako hizketen desberdintasun finkatuari deitzen dizkiegu. Hauen artean entzunenak: *hizketa kultoa* eta *hizketa arrunta* deituak ditugu. Baina beste maila berezi batzu ere izan daitezke: *lanbide desberdinetako hizketak* edo eta *talde berezien hizketa mordoi-loak* (*jergak*).

Hizkuntzaren funtzionamendua

Dialekto hauek nola sortu ohi diren eta sakonetik ulertzeko, beharrezkoa zaigu, baita ere hizkuntzaren funtzionamendua ongi ezagutzea eta funtzionamendu hori kontutan harturik jokatzeko. Horrek asko lagunduko digu dialektoen barneko mamia ongi jasotzen.

Begira nola agertzen zaigun hizkuntzaren funtzionamendua kuadro honetan.



A/B/C/D/ = Komunikazioa egiterakoan jasotako hizketa neurtua.

a/b/c/d/ = *Leben abstrakzioa*: hizketa neurtu hori, aurrez erabili izan den ereduaren argiterazte eta egi-bihurtzeratzea da. Hizketa dugu, baina une berezi eta pertsona desberdinen une konkretuetako *aldagarrietatik at harturik*.

a'/b'/c'/d'/ = Hizkuntzaren barneko egitura nahitaezkoak adierazten ditu, ohiturak eta alde utzirik. Elkarte linguistiko osoaren eremuetako elementu berdinak mugatzen dituen da.

Normatik Sistemara aldatzerakoan, aukerako edo ohiturazko diren elementu guztiak erazten dira. Au da, *aukerazko aldagarriak* eta *konbinaketako aldagarriak* uzten dira, nahitaezko bereizgarriak (funtzio pertinentea) zain-tzen direla.

Honako hau jazo obi da:

SISTEMA: *Oposaketa funtzionalen* bilkura da. Marka bereizgarriez osotua.

NORMA: Sistemaren *egiterazte taldetua* (kolektiboa) da; bere barnean sistemaz gainera giza-taldearen ohitura ezbeharrezkoak (–pertinenteak) ditue-
nez *gizartearen hizkuntz-obiturak* adierazten ditu.

Norma soziala eta *sistema eskuartzen ditu*; Hau da, guk erabiltzen dugun norma *inguruko gizartearena* eta *hizkuntz-sistema baten barruan sortua* da.

HIZKETA: *Normaren egiterazte indibiduala* dugu. Norma, berdina izanik, gizatalde batetako pertsonak, bakoitzak espresibide berezien bidez, egin ohi duten hizkuntz-erabilera adierazten du.

Norma indibidualak eta *norma sozialak* eta *sistema eskuartzen ditu*. Hitz egiten dugunean: *sistema baten barruan gizarte obituren arabera* geure era bereziz, EGITEN DUGU.


Beraz, *hizkuntzaren oinarrian sistema* dugu: *Euskal sistema*, euskara beste hizkuntzetatik bereizten duten bereiztasunen bilkura da. Horren ondoan *euskal norma* agertzen zaigu: euskara hori alderdi handietan konkretatzen den era nagusia. Eta *hizketa* konkretatze hori adierazteko hitzunek hartzen dituen bide desberdinak.

Guk ez dugu sistema bera ikasten, sistema horren elementu orokorrak erabiltzen baino. Sistemak muga orokorrak eskeintzen dizkigu, besterik ez. Beraz,

HIZKUNTZA: Eredu ideala. Sistemak adieraziko luke.

EUSKALKIA: Eredu soziala. Normak adieraziko luke.

HIZKETA: Erabilera indibiduala. Euskalki barneko euskararen erabilera pertsonala



BERAZ:

–SISTEMA NORMAren bidez HIZKETA n gorpuzten da.

–HIZKETA aldatuz NORMA aldatzen da eta SISTEMAren eragi-pena.

a) *Aldaketaren pausoak:*

- 1) *Hiztunak* bide berria hartzen du.
- 2) *Gizarteak* bide berri hori onartzen du.
- 3) *Hizkuntzaren sistema aldatu egin da* (barneko aldaketa sakona egin delako).

b) *Definizioak:*

Sistema: «Elkarrekin lagunkide diren elementu linguistikoek multzoa da».

Norma: «Gramatikaren erabilera zuzena orokorki edo konkretuki jatu-
zen duten ezaugarri linguistikoek multzoa da».

Hizketa: «Pertsonen gogoko eta adimeneko ekintza indibiduala da».

c) *Ondorioak:*

–Hori dela eta edozein hizkuntzaren eremu-barrutian norma desberdi-
nak sortuko dira eta horiek hizketa bereziak ekarriko dituzte.

–Hala ere, nahiz eta gizarte-egoera soziala hainbatetan arin aldatu,
hizkuntza ez da neurri berean aldatzen. Hizkuntza aldagaitza da eta horri
esker ez zaigu elkar ulertzeko nahasterik sortzen gizarte-aldaketak hain
handiak izan arren.

Nola erlazionatzen diren dialektoak

Gizarteak hizkuntzaren bizitzan hainbesteko eragipen handia izanik,
sarritan gizatalde batek, beste baten hizketako zerbaite hartu egiten du,
elkarren alboan edo elkarrekin harremanetan direlako. Pertsonen artean ere
askotan jazotzen da elkarrenganako eragipen hau, honelako edo halako
hizketari toki berria egiteraino.

Gogora dezagun zer ari den jazotzen gaur egun Bizkaiko zenbait tokitan:
/–ekin/ erlazio atzizkia geroago eta zabalagoa egin zaigu, /–gaz/ baztertuz.
Honetan eragipen handia dute, dudarik gabe, irratiek, abestiek, liturgiak,...

Berdintsu gertatzen da zaharren hizketa gazteen ahotan aldatuz doanean.
Hala nola oraindik euskaldun diren zenbait herritan gaur egun ez da bereizten
dizut/zaitut edo eta *daikelleike* aditz formen artean. Eta honela beste zenbait
eta zenbait kasutan.

Norbaitek uste izan dezake, bestalde, halako aldaketak une konkretu
batetan edo bat batean sortzen direla. Baina ez dago halakorik. Hizkuntz-
aldaketak astiro eta aldi luzearen buruan gertatzen dira. Eta normalki aldaketa
hori azkeneraino egiten ari den tartean nahaste batetan murgildurik biziko
gara.

Halako zer bait izango dugu, seguraski euskara batuaren kasuan ere. Aldaketa, astiro astiro egingo da, norma batzu erantziz eta beste batzu jantziz. Biren bitartean bai bata (zaharra) bai bestea (berria) elkarren ondoan batera izango dira.

Hori dela eta euskalkien arteko mugak ere ez dira zehatz-mehatzak eta argi taxutuak izango. Euskalkiak sistema berdinetik sortutako norma desberdinak direla onartzen baldin badugu, sarritan urrutiko bazter desberdinetan norma berdina erabili ohi dela ikusi ahal izango dugu. Eta alderantziz, elkar joka dauden mugetan norma desberdinak agertuko zaizkigu. Lehen kasuan jatorri berdina gogoratuko digute; bigarrenean, elkarren arteko nortasuna bereiztu nahiaren indarra.

Sarritan, gainera, norma hauen eremuak, hiztun desberdinen mugainguruetan, elkarren artean kateaturik edo nahasturik agertuko zaizkigu, batek besteari eragipen egiten diola.

Muga geografikoak mapetan egiten dira eta kito. Baina muga linguistikoak ezin dira hala egin, nahiz eta inguru geografikoak eragipen handia izan euskalkiak sortzerakoan eta berauen iraupenean.

Euskalkien mundua aztertzerakoan izate labankor hori kontutan dugula ekin beharko dugu, hizkuntza, itsasoko olatuen antzera, hemen aurrera eta han atzera, orain gora eta gero behera jokatzu agertzen zaigu eta.

Azken hitzak

Lantxo honetan laburra izan behar eta zenbait pentsamendu laburki plazaratu baino ezin izan dut egin. Euskaldunok lur-sail zabalak ditugu haitzurtzen edo jorratzen ekiteko. Nere lantxo hau izan bedi beste zenbait oihan ilun honetan bideak urratzen bultzatzeko.

Bibliografia

Alvar, CATALÁN, COSERIU, G. de DIEGO, GRANDA, JORDAN, I. MORALES, MARCOS, M. PIDAL, SALVADOR, Abad: *Lecturas de Sociolingüística*, Ed. EDAF 14, Madrid, 1977.

ALOKUTIBOA LOPEZ-ENGAN – (1782)

Xarles VIDEGAIN

Korpusa

Gure korpusa itzulpena da, hain zuzen 1782an Lopez apezak Alfonso Rodriguez-en *Práctica de la perfección cristiana* (1609) erlisionezko liburu famatua euskarara itzuli zuena, frantses itzulpen batetatik abiatuz.

Liburuaren tituluak honela dio:

«ALPHONSA RODRIGUEZ, JESUSEN COMPAGNHACO Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat heuzkarala itçulia heuzcara becic eztakitenen daco. =Preciua hoguei-eta bost soz = AVIGNHONEN ANTONIO AUBANEL Liburu Salçaliaren, eta Aita Seindiaren choil Imprimu çaliaren Beithan = M.DCC.LXXXII. Superioren aprobacione eta permissioniareki.

Liburuak 466 orrialde badauzka (ikus VINSON, Bibl., 228 orr.)

Zilegi bekit hemen Lafitte jaunaren eskertzea, ondoko lana egin bait dut berak prestatu didan Lopez-en liburuaren ale bat baliatuz.

Bestalde, alokutiboa euskal aditzaren eskema orokor batean sartzen baita, J. Allières-ek proposatzen duen aditzaren eskema hartu dut gidari (1.taula). Gauzak laburtu beharrez, ez dugu forma bakoitzaren textotingurua ematen; erreferentzia guziak agertuko dira Toulouse-ko unibertsitatean prestatzen ari garen lan batean.

1. Alokutiboaren definizioa

Aski ezaguna den bezala, Ostibarreko euskalkiaren ezaugarri haundientaririk bat da alokutiboaren erabilkera. Usaia hori erran behar dugu hurbiletik segitzen zuela Lopez idazleak ondoko etsenplu hauek erakusten diguten bezala.

1. Taula

1

I _o			I _{oo}			
IZAN			IZAN			
Er.		Pot.	Er.		Pot.	
+Or.	DA		DATE (KE)		ZAIO	ZAIIOKE
-Or.	Erq.	ZEN	ZATE (KE)EN		ZITZAION	ZITZAIIOKEEN
	Es.	↳ W LITZ	LITZATE (KE)		↳ W LITZAIIO	LITZAIIOKE
-DI-			-DI-			
+Or.	DADI		DAITE (KE)		DAKIO	DAKIOKE
-Or.	Erq.	ZEDIN	ZAITE (KE)EN		ZEKION	ZEKIOKEEN
	Es.	↳ W LADI	LAITE (KE)		↳ LAKIO	LAKIOKE
Erq.	BEDI		BEKIO			
T _{oo}			T _{ooo}			
UKAN			UKAN			
+Or.	DU		DUKE		DIO	DIOKE
-Or.	+Erq.	ZUEN	ZUKEEN		ZION	ZIOKEEN
	Es.	↳ LU	LUKE		↳ LIO	LIOKE
-ZA-			-ZA-			
+Or.	DEZA		DEZAKE		DIEZAIIO	DIEZAIIOKE
-Or.	Erq.	ZEZAN	ZEZAKEEN		ZIEZAIION	ZIEZAIIOKEEN
	Es.	↳ LEZA	LEZAKE		↳ LIEZAIIO	LIEZAIIOKE
BEZA			BIEZAIIO			
DAKIN	DAKI	DAKIKE	-IRO-T _{oo}	DIRO	DIROKE	
	ZEKIEN	ZEZIKIEN	ZIROEN		ZIROKEEN	
	↳ LAKI	LAKIKE	↳ LIRO		LIROKE	
DOAN I _o	DOA	DOAKE	I _o	DOAKIO	DOAKIOKE	
	ZOAN	ZOAKEEN	ZOAKION		ZOAKIOKEEN	
	↳ LOA	LOAKE	↳ LOAKIO		LOAKIOKE	

NOR sailean (1.0) hartzen badugu lehen etsenplua:

«Guero umilitathiaren guri gomendatceco ordeinhu batez beçala, apaltcen *duçu* bere goihentcian bere Dicipulier huinhen ikuzteranokuan,» (257.15).

duçu agertzen da eta ez *da*.

NOR-NORI sailean (1.00) horra etsenplua:

«Ene Aita, banitatezko edo urgulezko goguaketa bat jin *ciaaçu*» (15.2).

ciaaçu agertzen da eta ez *zait*.

NORK-NOR sailean (Too), eman dezagun:

«Jesu-Christoc erraiten *dici*» (256-3).

dici agertzen da eta ez *du*.

NORK-NOR-NORI sailean (Tooo).

«Platonec hori ikussiric galdeguin *cirakoçun* cer ari cen; ihardesten *dirakoçu*: Platonen urguliaren huinhen petan erabilten» (259-23).

cirakoçun eta *dirakoçu* agertzen dira, ez *zerakon* edo *derako*.

Etsenplu hauen ondotik, alokutiboak diren formen definizio hau proposatzen dugu: *aditz-forma bat alokutiboa da, 2garren edo 5garren pertsonako marka hartzen duelarik, nahiz eta 2garren edo 5garren pertsona hori ez den aktante bat*.

Definizio honen ondorioz, toka edo noka mintzatzea ez dela berez baitezpada alokutibo bat erran behar da; 2garren pertsona, emazte ala gizon izanik, aktante bat balinbada, forma neutro bat baizik ez da agertzen. Hi *haiz*, eman *dauk*, erran *dakok*, eman *daun*, erran *dakon*, forma neutroak dira.

Beraz gure iduriko, biga dira aditzak onart dezazkeen tratamenduak. Lehenbizikoa, tratamendu neutroa deituko dugu; toka, noka edo zukako mintzatzeko manierak onartzen ditu.

Bigarrena, hemen gehienik interesatzen zaukuna, tratamendu alokutiboa deituko dugu. Berriz erran dezagun forma alokutibo batek 2garren edo 5garren pertsonari dagokion marka bat hartzen duela, 2garren edo 5garren pertsona hori aktante bat ez delarik. Gertatzen dena da alokutiboa bera toka, noka edo zukakoa izan ditekela. Lan honetan zukako alokutiboa baizik ez dugu kontuan erabiltzen, salbuespen zenbait ez ezik: *dic*, 429-21; *die*, 430-6; *thie*, 430-8; *eztuc*, 144-20; *tuc*, 430-10; *ciroiãt*, 250-21.

Bestalde, aktanteek normalez hartu behar dituzten kasuak alokutiboak ez ditu batere kanbiatzen. Tratamendu neutroan aktante bat nominatiboan badago, ber kasuan egoiten da, alokutiboa sar dadin ala ez. Adibidez:

«Philosophac urrun cituçu» (259-8).

Tratamendu alokutiboan dago; tratamendu neutroan, «Philosophac urrun ciren» izan zitekeen. Gauza bera gertatzen da ergatibo eta datiboarekin.

Alokutiboak ez du hortan zeren aldatzerik. Erran nahi baita forma alokutibo batean dagoen 2garren edo 5garren pertsonako markak ez duela kiderik aktanteetan.

2. Alokutiboaren maiztasuna

Lopez-ek derabilan alokutiboaren maiztasuna agertu nahi genuke 2. taulan. Taula hontako forma bakoitza zenbaki batez segitua da, zenbaki horrek aintzineko formaren okurrentziak adierazten dituela. Ezker, forma neutroa agertzen da; eskuin, forma alokutiboa.

NOR sailean, *izan* aditza hartuz orain-aldi errealean, *da* 4 aldiz agertzen da lehen berrogeitamazazpi orrialdeetan, *duzu* alokutiboa kasik 100 aldiz agertzen delarik.

NOR-NORI sailean, proportzioa ez da askoz ttipiagoa: *zako* aldi bakar batez agertzen delarik eta *ziakozu* 14 aldiz.

NOR-NORK sailean, *ukan* aditzak *du* forma 7 aldiz agertzen du, *dizi* alokutiboa 69 aldiz.

NORK-NOR-NORI sailean, *derako* behin agertzen da, *dirakozu* 32 aldiz.

Beherago, aditz-laguntzaileetaz bestalde, aditz-trinkoek ez digute besterik erakusten, bereziki *egon* aditzak. *Dago* behin agertzen den aldean, *diagozu* haren kide alokutiboa, 33 aldiz agertzen da.

Portzentaiak baliatuz, horrela ager daiteke alokutiboaren maiztasuna orain-aldi errealean.

Io,	IZAN	→	% 95
100,	IZAN	→	% 93
Too,	UKAN	→	% 89
Tooo,	UKAN	→	% 98
Io	EGON	→	% 98
Too	-io-	→	%100
Too	-IRO-	→	% 77

Dato hauek orain-aldiari doakiote. Iragan-aldira iragaiten bagara kuriosa da egin dugun oharketa; ezagun da iragan-aldiko formak homofonoak direla perpaua txertatuaren marka harturik ala ez. Hala nola konparazione erraiten den:

«Jin behar zen gizona zaharra zen».

Bietan *zen* erraiten da nahiz lehenbiziko *zen* horrek erlatibozko marka ekartzen duen. Orain-aldian biak ongi bereizten dira: *da* eta *den*.

«Jin behar den gizona zaharra da».

Lopez-engan eta alokutiboari esker, iragan-aldiko bi forma homofono horiek biziki ongi bereizten dira: adibide berbera hartuz honela erran zukeen Lopez-ek.

2. Taula

		Or. Err.		Irag. Err.		Or. Pot.		Irag. Pot	
I ZAN I _o	DA 4 ₍₌₅₇₎	DUÇU 95	ø (can)	ÇUÇUN 4 ₍₌₄₉₎	DATE 3	DUKEÇU 17	ÇATEEN 1	ÇUKEÇUN 3	
-DI- I _o	-	-	-	-	DAITE 11	DIETEÇU 41	ø	ÇIETEÇUN 1	
I ZAN I _{oo}	CAKO 1	ÇIAKOÇU 14	ø (cakan)	ÇITÇIAKOÇUN 20	-	-			
UKAN T _{oo}	DU 7	DICI 69	ø (can)	ÇICIN 10 (=57)	DUKE 7	DIKECI 4	ÇUKEEN 2	ÇIKECIN 2	
UKAN T _{oo}	DERACO 1	DIRAKOÇU 32	ø (cakan)	ÇIRAKOÇUN 49	-	-			
JOAN I _o	DUHA 3	DHAÇU 10	ø (cakan)	ÇIHAÇUN 2					
EGON I _o	DAGO 1	DIAGOÇU 33	ø (cakan)	ÇIAGOÇUN 7					
IBILI I _o	ø	DIABILAÇU 1	ø	ø					
-IO- T _{oo}	ø	ÇIOÇU 31 (=37)	ø (cican)	ÇIOÇUN 3					
ÇAKIN T _{oo}	DAKI 2	ÇIAKIÇU 3	ø (cakan)	ÇIAKIÇUN 1		ÇIAKIKEÇUN 1			
-IRO- T _{oo}	DIRO 3	ÇIROÇU 26	ø (cican)	ÇIROÇUN 1					

«Jin behar *zen* gizona zaharra *zuzun*—»

Eta hori gure 2.taulan garbiki ikusten da; *zen*, *zitzakon*, *zien*, *zerakon*, *zuken*, *zagoen*, *zakien* bezalako formarik ez da behin ere erabiltzen nun ez den perpaus txertatu batean sartua. Aldiz, frangotan agertzen da heien forma alokutiboa: *zuzun* 4 aldiz lehenbiziko berrogei orrialdeetan, *zitzakozun* hogeii aldiz, *zizin* hamar aldiz, *zirakozun* berrogei ta bederatzi aldiz, *zihazun* bi aldiz, *ziagogzun* zazpi aldiz etabar.

Potentzialean ere alokutiboa nausitzen zaio forma neutroari, hala nola *-di-* aditzean *dieiteçu* 41 aldiz agertzen delarik, eta *daite* 11 aldiz bakarrik.

3. Formen deskripzioea

Aintzinetik seinalatu nahi genukeena da Lopez-en alokutiboak argi ta garbi atxikitzen dituela forma neutroek izaiten ahal dituzten oposizio guziak, diatesaren aldetik nola aditz-tireten aldetik, erran nahi baita balentzien aldetik eta aditz-aldien aldetik.

Tratamendu neutroak lau balentzi-era ezagutzen ditu:

- NOR (Io) edo toki batetako intransitiboa.
- NOR-NORI (Ioo), bi tokitako intransitiboa.
- NORK-NOR (Too), bi tokitako transitiboa.
- NORK-NOR-NORI (Tooo), hiru tokitako transitiboa.

Alokutiboak ez ditu batere nahastekatzen.

Tratamendu neutroak zazpi aditz-tireta baditu.

- Orain-aldi erreala/potentziala.
- Iragan-aldi erreala/potentziala.
- Ebentual erreala/potentziala.
- Inperatiboa.

Alokutiboak denak errespetatzen ditu.

Morfologiaren aldetik so eginez, forma alokutiboak forma markatuak direla erran daiteke; *dalduzu*, eta *dateldukezu* bi pareak gerorako utziz, alokutiboek zerbait gehiago hartzen dutela aditzera emaiten digute beste forma guziek. Beraz, alokutiboa forma markatua da.

Marka hori zoin den? Ez dela beti berdina ikus daiteke ondoko tauletan. Halere eta laburtzeko, hiru dira alokutibo baten kausitzekotan baliatzen ahal diren eraiketak:

1. Lehenbizikoa da *izan* aditzaren alokutiboen kausitzeko *ukan* aditzak Too sailean dituen formak mailegatzea.

Adibidez da → duzu
naiz → nuzu

2. Bigarrena, eta emankorra da, bi elementuren barneratzea forma neutroetan; *i* bat da lehen elementua, *zu* da bigarrenkoa.

Adibidez: derako → diakozu
 daite → dieitezu
 zako → ziakozu
 dago → diagozu
 zauden → ziaudezun,

eta zenbait lege fonetikoren gorabeheraz, eraiketa hontan sartzen dira ere:

du → dizi
 zuen → zizin
 luke → likezi.

3. Hirugarren manera ez da batere hedatuena eta hiru aditz baizik ez du hunkitzen; *jakin*, *-iro-*, *-io-*. Orain-aldi errealean, 3.garren pertsonan dagoen *d*-aurrizkia z-batetara kanbiatzen da.

Adibidez: badaki → baziakizu
 diro → zirozu
 dio → ziozu.

Azken salbuespen hauek kenduz, aditz-tireten markak diren D-, Z-, L-aurrizkiak ez ditu alokutiboak batere aldatzen. Osterantzean, kasu gehienetan fermuki errespetatzen ditu 2.taulak erakusten duen legez. g9Inperatiboaren marka, B-aurrizkia, ez da hunkitua modu honek alokutiborik ez baitdiro onart).

Ikus ditzagun orai aditz bakoitzaren formak.

3.1.1o.

3.1.1.1. IZAN (3.taula)

Orain-aldi errealean *ukan*-eko forma neutroak dira *izan*-eko formak alokutiboak.

niz → nuzu
 da → duzu
 guira → guituçu
 dira → dituçu

Texteinguruak anbiguitaterik ez digu uzten bereziki aktanteen markari esker.

Bestalde, eta G. REBUSCHI-k esplikatu duen bezala, *da/duzu* formen arteko sinkretismoa urtzen da iragan-aldira pasatzen bagara; *duzu* neutroak *zindien* emaiten du, *duzu* alokutiboak *zuzun* emaiten du.

Gauza bera gertatzen da bi potentzialeetan; *date/dukezu* parean, *dukezu* neutroak *zindukeen* emaiten du iragan-aldian, *dukezu* alokutiboak *zukezun* emaiten du.

IZAN I.

3. Taula

	Or. Err.		Erag. Err.		Oa. Pot		Erag. Pot		Eb. Pot	
1	NIZ	NUÇU	NINÇAN	NINDUÇUN	-	-	-	-	BAI NINGATEKE	-
2	-	/	-	/	-	/	-	/	-	/
3	DA	DUÇU	CEN	ÇUÇUN	DATE DATEKE	DUKEÇU	ÇATEEN	ÇUNEÇUN	BAL LİÇATE	LUKEÇU
4	MAGÜIRA	GUITUÇU	-	-	GÜIBATEKIDA	GÜNUKEÇU	-	-	-	-
5	CIRA	/	-	/	CIRATEKE	/	-	/	-	/
5'	CIRETE	/	ETCINETEM	/	BAITZ- CIRATEKE	/	-	/	-	/
6	DİRA	DITUÇU TUÇU	CİREN	CİTUÇUN	DİRATE DİRATEKE	DİTUKEÇU TUKEÇU	-	-	-	-

Ebentual erreala ez diteke akomea alokutiboarekin perpaus nausi batean ez baita sekulan agertzen ahal, beraz, *balitz*, *baleza*, *balu*, *baladi*, *baleraco* bezalako formek ez dute alokutiborik. Ebentual potentzialak, aldiz, badauka:

lizate → *lukezu*

Lukezu ez da agertzen forma neutro bat gisa.

3.1.2. -DI- (4. taula)

Errealari dagokion alokutiborik *-di-* aditz-laguntzaileak ez du erakusten lehengo arrazoinarengatik berarengatik; perpaus menperatu batean baizik ez baita agertzen ahal *-di-* ko formarik.

Aldiz, hiru Potentzialeek alokutiboa badaukate. Heien egiteko erregela sinplea da; «i» izkia sartzen da, eta «zu».

daite → dieiteçu

zaiteen → zieiteçun

laite → dieiteçu

Ohartarazi nahi genuke polimorfismoa agertzen zaigula forma neutroetan, biga baitdira potentzialeko markak: -TE, -TEKE; *daite* 4 aldiz agertzen da, *daiteke* 7 aldiz. Alokutiboan -KE marka ez dugu atxemaiten, -TE bat aski zaio alokutiboari potentzialaren markatzeko.

Di- Io

4. Taula

a	Or. Err.		Or. Pot		Irag. Pot		Eb. Pot	
1			NAITE	-	NINDAITESEU	-	-	-
2			-				-	
3			DAITE DAITEKE	DIGITEÇU DIEITEÇU	ÇAITEELA	CIGITEÇUN	LAITE	LIEITEÇU
4			SEPAI- KRISTE GUITAKE	DIE GUISITEÇU GUITAKEÇU	-	-	-	-
5			CITAKE		-		-	
5'					-		-	
6			DAISTE DITAKE	DIEISTEÇU DIEISTEÇU	-	-	LITAKE	LIEISTEÇU

3.2. Ioo

3.2.1 IZAN. (5.6. taulak)

Ioo IZAN

5. Taula

	1	2	3	4	5	5	6
0							
1	∅		-	∅			-
2		∅			∅	∅	
3	ÇAUT CIAAÇU		ÇAKO CIAKDEÇU	ÇAUKULA CIAGUCU	ÇAUCU	ÇAUCIE	CEE CIEÇU
4	∅		-	∅			-
5		∅	ÇAZKONAZ		∅	∅	
5		∅			∅	∅	
6	ÇAUSKIT CIAZRIDATÇU		ÇAZKO CIAZKOÇU	ÇAIT- ÇAUSKIÇU CIAUSKIÇU	ÇAUSKIÇU	ÇAUSHICIE	CESTE-M -

OHARRA: GELATXO BELTZATU BATEK ALOKUTIBORIK EZ DEZAKE ONART

IZAN Too Irag. Em.

6. Taula

	no	1	2	3	4	5	5	6
0		∅	-	-	∅	-	-	-
1		-	∅	-	-	∅	∅	-
2		-	-	CITÇAKO-IA	-	-	CITÇAUCIEN	EZ PAITE CITÇAREN
3		-	-	CITÇAKO-IA CITÇAKOÇUN	-	-	-	CITÇIÇIÇUN CITÇIÇIÇUN
4		∅	-	-	∅	-	-	-
5		-	∅	-	-	∅	∅	-
5'		-	∅	-	-	∅	∅	-
6		CAUZKIDAN	-	CITÇAKO-IA CITÇAKOÇUN CITÇAKO-IA CITÇAKOÇUN	-	-	-	-

Sail huntan formarik ez zauku agertzen aktante guzietan, baina hori gertatzen da alokutiboan nola neutroan.

Alokutiboaren eraiketa sinplea da: $i+zu$.

zako → ziakozun

zauk → ziaazu, (*t*-aren bariantea, *da*-k bere konsonantea galdu du)

zee → zieezu

zauzkit → ziazkidatzu

zitzakon → zitziakozun

Orain-aldi eta Iragan-aldi errealek bestalde, ez dugu alokutiborik atxemaiten lekat ebentual-potentzialeko forma hau:

Litzauzkeguzu (I.34)

3.2.2. -DI-

-DI- aditzak ez du alokutiborik NOR-NORI sailean.

3.3. Too

3.3.1. UKAN (7.,8.,9.,10. taulak)

Hemen ere *i* izkia eta *zu* marka sartzen dira aditz-forma neutro batean alokutiboaren egiteko. Gertatzen dena da, *i* horrek herts-erazten duela *zu*-ren [U]soinua, formaren bokalismoa bi *i*-rekin gelditzen delarik.

Du formak ez du **diuzu* emaiten, baizik eta *dizi*

Zuen-ek formak ez du *ziuzun* emaiten, baizik eta *zizin*

UKAN Too On. Err.

7. Taula

oo	1	2	3	4	5	5	6
1	∅	-	NU Nici	∅	-	-	NUTEN NICIE
2	HUT	∅	-	-	∅	∅	-
3	DUT ETICIT DICIT	-	DU -ci, ETIC DICI	BAITUBU Diici	DUÇU	DUÇIE	DUTE -ci DIE
4	∅	-	GUITU GUITICI	∅	-	-	BAGUITUSTE
5	CITUT	∅	EZPACITU	-	∅	∅	-
5'	-	∅	-	-	∅	∅	CITUZTEN
6	TUT TICIT	-	TU BAITUTU Tici	BAITUTUGU TUGUN Tiici	TUÇU	BITUCIELAKAZ TUCIELAKAZ	BAITUTUZTE TUZTEN TICIE

UKAN Too Itzq. Err.

8. Taula

	1	2	3	4	5	5	6
1	∅	-	-	∅	-	-	BANINDUTEN NINDICIEN
2	-	∅	-	-	∅	∅	-
3	NIEN NICIN	-	CIEN CICIN	GUINDIEN	CINDIEN	-	CUTELA CICIEN
4	∅	-	-	∅	-	-	-
5	BAITZINTUPAN	∅	-	-	∅	∅	-
5'	-	∅	-	-	∅	∅	-
6	-	-	CITHIEN CITICIN	QUINTHIEN	-	-	CITUZTEN CITHIEN CITICIEN

Bilakaera fonetiko hunek badu abantailik, zeren eta intransitibo eta transitiboaren arteko oposizioa garbiki atxikitzen bait du alokutiboan, bokalismoari esker.

XARLES VIDEGAIN

Duzu (Io) ≠ dizi (Too)
 Lukezu (Io) ≠ Likezi (Too)
 Zukezun (I) ≠ zikezin (Too)

UKAN Too Or. Pot. 9. Taula

	1	2	3	4	5	5'	6
**							
1	∅	-	-	∅	-	-	-
2	-	∅	-	-	∅	∅	-
3	-	-	BADUKE	DUKEGUNEZ	DUKEÇU	-	ESPATUKETE
4	∅	-	-	∅	-	-	-
5	-	∅	-	-	∅	∅	-
5'	-	∅	-	-	∅	∅	-
6	-	-	DITUKEEN BAYTINEK	DITUKEGUN	TUREÇU	-	-

UKAN Too Eb. Pot. 10. Taula

	1	2	3	4	5	5'	6
**							
1	∅	-	-	∅	-	-	-
2	-	∅	-	-	∅	∅	-
3	BA NUKE	-	LUKE	EZKINDUKI	CINDUKE	-	LUKETE-IA
4	NIKECI	-	LIKECI	EVINDIKECI	-	-	LIKECIE
5	∅	-	EZKINDUSHELA	∅	-	-	-
5	CINDUKET	∅	ETLINTUREN	-	∅	∅	-
5'	-	∅	-	-	∅	∅	-
6	-	-	-	CINDUKAREN BAYTINEK BAYTINEK	CINDUKAREN LINTVAREK	-	ESPATUKETE

3.3.2. -ZA-

-Za- aditzak gure korpusean ez du alokutiborik agertzen, hiru salbuespen kenduz.

Lehenengoa, orain aldi Potentzialean: *eskitzakecie* (T64)

Beste biak, Ebentual Potentzialean: *litçakecu* (T36)

guinçakecu (T46. eta T34).

Anbiguitate hau forma neutroetatik datorke, zeren eta Lopez-en hizkuntzak nahasten baitditu bi formak: *baguintça* batzutan T46 bat delakotz eta bestetan T34.

Bestalde -za- aditzaren ziloa aintzetan -iro- aditzak betetzen du Lopez-engan, geroago ikusiko dugun bezala.

3.4. Tooo

3.4.1. UKAN (11.12. taulak)

Alokutiboa egiten da Too sailean bezala, beraz *i* izkia eta *zu* sartuz; beraz, forma guziak *di*, *zi* edo *li* batez hasi behar dira. Halere, erran behar da batzutan *i* izkia ez dela beti agertzen eta ondoko bikoteak ikusten direla: *dirakoçut*/*derakoçut*, *diragucu*/*deragucu*, *dirauzkigeçulderauzkigeçucu*, bainan beti *i* izkia duten formak *e*-koak baino gehiago agertzen dira.

UKAN Tooo Or. Err. 11. Taula (1)

		1	2	3	4	5	5	6
3	1	Ø	/	DERAUT ZERANCU DIRANCU DIRADRCU	Ø	DERADRCU	-	DERAATE DIRAACIE
	2	DEREAT	Ø	/	/	Ø	Ø	/
Ikasi-berri 62.

Judu hitzaren kokaeraz:
 Populu judu 57.

Karietarat:

-Ren — 53.

-Lako atzizkia:

Begiratuko direlako esperantzan 54.

Larri-larria (adv.) 62.

Medioz:

-En — 12.

Nahi balin bazira 57.

Nola 58.

Non ez den abantzten 31.

Nork ere 20.

Nun ere 12.

Nun ez ziren galtzen 44.

Pondutik:

-N — 23, 31.

Zonbat ere...eta bein berean 20.

Perpauk kausalei buruz oharra.—Perpauk kausalei bagagozkio, hona hemen gure azterketaren ondorioak:

Ezen 5 aldiz ageri da: 11, 27, 33, 53, 68.

Lakotz 5 aldiz: 17, 22 (bi aldiz), 41, 56.

Naz geroz 5 aldiz: 40, 54, 58, 60, 62.

Alabainan (kausal kutsua somatzen zaio, nahiz eta ez beti garbi) 6 aldiz: 16, 17, 32, 40, 44, 68.

Lakoan (kausal kutsua somatzen zaio) 3 aldiz: 24, 41 (bi aldiz)

Zeren. Lapurtar zaharretan hain ugari azaltzen den juntagailu hau liburuskan ez da behin ere azaltzen.

Bait- aurrizkia. Noiznahi eta zernahitarako erabiltzen du. Mendebalekoentzat zaila da oso aurrizki honen zeregin guztiak mugatu eta sailkatzea. 39 aldiz agertzen da liburuskan (galdetzaile anaforiko barekin erlaziotan dagoeneko kasuak kontatu gabe). Hona hemen orrialdeak: 7 (hiru aldiz), 8, 10, 12, 15, 20, 22, 23, 28, 30, 31, 32, 38 (bi aldiz), 54 (bi aldiz), 66 (bost aldiz), 68 (hiru aldiz), 72. Oker legoke, ordea, pasarte horiek guztiak kausaltzat joko lituzkeena. Askotan erlatibo huts-garbiak dira. Zenbaitetan, bai, kausal kutsua dute. Beste batzuetan, zein sailletan sartu behar diren esatea ez da erraza.

BUKATZEKO

«Bon pain de ménage plutôt que pâtisserie»: Jujamendu hau egin zuen Lafitte jaunak Salvat Monho-ren poemei buruz (LAFITTE, *Poèmes Basques de Salvat Monho*, Editions Ikas, Bayonne 1972; 21. orriald.). Banago gauza bera ez ote den esan behar liburuska honi buruz. Hizkeraz jatorra da oso, nahiz eta, hegoaldekoentzat bederen, ehotzen zaila izan. Zailtasun hori heldu zaio, baitipat, txoko jakin bati mila estekaz estekatua egotetik. Mamiari bagagozkio, mezu bat dakar. Eta hau da mezua: fedeak soilki argi lezakeela bizitzearen misterioa.

Arantzazun, Maiatzak 24, 1982.

RESUMEN

«Idek eta zabal gogo-bihotzak» (Abre y dilata mente y corazón) es el título de un opúsculo publicado por Lafitte (bajo el seudónimo de P. Ithurralde) en 1974. Está dirigido a los jóvenes. En siete enjundiosos capítulos trata de esbozar la actitud con que el cristiano debe vivir hoy su fe, teniendo en cuenta los retos y exigencias que la civilización actual plantea a ésta. El artículo ofrece un breve resumen del opúsculo y un estudio del mismo desde el punto de vista lingüístico. Subraya una de las características del autor: la de escribir en un euskera muy castizo y muy vinculado al pueblo, pero de una determinada zona, que es lo que le hace ser relativamente difícil para la comprensión general. Por lo demás, reconoce que el estilo de Lafitte es también rico en formaciones nuevas, obtenidas de la entraña de la lengua. Finalmente, se ofrece un espécimen del vocabulario, giros y construcciones que se hallan en el citado opúsculo.

HAZPARNE-KO
MARTIN LARRALDE (1782-1821)
BERNARD LARRALDE (1771-1853)
J. BAPTISTE LARRALDE (1804-1870)
HIRU PERTSULARI BORDAXURI-TARRAK

Piarres XARRITTON

Hazparneko aldean egundaino sortu den kantu ezagutuenaren inguruan idatzi duen ikerlana bururatzean, Jean Haritschelhar-ek zion honelatsu: «Martin Larralde Bordaxuri, Plumaineko premuaz» bestalde, beste "Larralde Bordaxuri" bat izan dela, XIX. gizaldiko lehen menderdian, kantu ontzaile hautaren fama zuena, badut uste. Halako aldi batez mintzatuko natzaizue, Bernard Larralde Bordaxuri, Martin Larralde Bordaxuri-ren osaba horretaz» (HARITSCHELHAR, Jean, *Martin Larralde Bordachuri, le poète galérien*, Bayonne, 1962, orr. 29).

Haritschelhar jauna ez zaiku berriz, nik dakidala, alor bererat itzuli, bainan haren bidetik aintzina joanez, nihaur ohartu naiz Hazparneko Larralde Bordaxuritar pertsulariak izan direla, ez bakarrik biga; bainan ere hiru: 1. Martin Larralde Bordaxuri Plumaineko premu aipatua. 2. Bernard Larralde Bordaxuri, Martinen osaba. 3. J. Baptiste Larralde Bordaxuri, Bernard-en semea, Donibane Lohitzuneko Dr. Larralde mediku famatua.

Batere urrunago ibili gabe, hor dugu gure eranaren berme, Hiribarren Azkaindar idazlearen lekukotasuna. Honek ezen argitaratu zuen 1853 an *Eskaldunak* pertsu liburua, Baionan, nihongo xehetasunak dauzkana orduko bizilagunez eta gertakariez. Hazparneko herriaz ere eta heritarrez mintzo da hain zuzen, 4. kapituluan, «Merkatudun herriak» aipatzean:

*Hazparnen egiten da merkatu bandia,
Erran ere diteke Lapurdin nausia;
Nondik nahi jotzen du haziendak harat,
Badoake beharra metan hautatzerat.....*

Eta hazpandarren sineste ta bertute paregabeak(?) goretsirik honela:

*Sinestean herririk ez da hobeago,
Jende guzia kasik ongiari dago...*

Hiribarren-ek aipu ditu orduko hazpandar ezagutuena: Garat-Pikasarri eta aita Deyheralde, misionesteiko buruzagiak, Hirigoyen Eihartzeko anaia aberatsak, bai eta ere sorterritik urrun Daguerre eta Zabaloa «espainol eginak» (sic). Hona orai mirikuak:

*Mirikuak badire aipamen dutenak,
Mihiz bezala kaskoz ongi berreginak:
Harriague, Durruty, zuen omen ona
Ingurutan izanen menden laudamena.
Donibanen Larralde hainitz da prezatzen...*

Hona beraz 1853 an, Donibanen jarria zegoen Larralde medikua, hazpandar ekarria.

Gehiago oraino, hazpandar ezagunen lerroan jartzearekin gero, Bordaxuri pertsularia, Hiribarren-ek honela dio:

*Aipatua izan da kantaz Bordaxuri,
Bazakien ematen gatza pikoeri.
Miriku den semeak itxitzen omen du;
Herriak prezaturen deus agerzen badu.*

Bordaxuri-tarrek «Larralde» sinatzen zutela ohartuz geroz, ikusten dugu Donibaneko Larralde medikua, Bordaxuri seme zela beraz, alde batetik, eta berak ere ordukotz pertsulari fama bazaukala, bestetik.

Plumaineko premu Bordaxuritarrrik, egia erran, aipatzen ere ez digu gure Hiribarren-ek, bainan hazpandar «ohoragarriez» mintzo da bakarrik, ez galerianoez eta bestalde, 1853 kotz aspaldian zendua zen «zorigaitzeko premu» Plumaienekoa: estakuru ederra, bakean uzteko.

Dena dela, hor dauzkagu gure hiru Bordaxuri-tar pertsulari hazpandar-ak. Paper zahar zenbait ikertu ondoan, hiruak nahi genituzke zerbait aipatu.

1. MARTIN LARRALDE BORDAXURI (1782-1821)

Martin Larralde Bordaxuriz ez dugu ainitz erraite beharrik, Jean Haritschelhar-ek bildu bait ditu eta argitaratu, hartaz eta haren obraz bil zitezkeen xehetasunak oro: Badakigu beraz Hazparne Plumaienean sortu zela 1782 ko urtarrilaren 7 an, Guillaume Larralde Bordaxuri eta Marie Ithurbide Plumai-en semea, Martin; Peña Arbeldegiko osaba Martin eta Urkurai Ikatzurietako Mari izan zituela bataioan aitabitxi amabitxiak. Ama galdu ondoan zen Martin bere aitarekin samurtu, Plumaieneko etxe-partearen gainetik. 1815

eko Jondoni Joanetan zuen tiroz kolpatu Jean Ospital, Peña Kaselarren-bordako etxetiarra, Plumaieneko nagusiaren kondu belarretan ari zena. Uztailaren 4 ean preso hartu zuten Hazparneko jandarmek eta Baionara ereman. Paueko «asisetan» Azaroaren 28 an, urte berean agertu zen Martin Larralde Bordaxuri eta sekulako galeretara kondenatua izan, «delako Ospital tiroz hil nahi izan duelakotz». Ondoko urtean, Agen-eko lagun zenbaitekin, Rochefort-eko galeretan sartzen da, Abuztuaren 5 an, gure 35 urteko gizon gaztea. Han berean hil beharra zen bost urteren buruan 1821 eko Abendoa-ren 19 an.

Galeretan ordea «leher egin» aintzin, Martin Larralde Bordaxuri-k, Plumaieneko premuak eman zituen bere pertsu lazgarriak:

.....Paubeko hirian,
 Burdinez kargaturik, oi, presundegian,
 Bai eta kopiatu denbora berian,
 Orok kanta ditzaten Hazparne herrian.

Zuzen zabilan hazpandar pertsularia ezen mendeurren baten buruan, XX. gizaldi honen hastapenean, Pierre Broussain Hazparneko auzapezaren beraren ahotik biltzen zuen Azkue jakintsunak haren garrasiaren oihartzun samina (AZKUE, R. M. de, *Euskalerrriaren Yakintza*, IV, 152.orr.); bainan Hazparnetik urrun ere, oihartzun bera entzun zezakeen bai Azkuek berak, Nafarroako Lesakan edo Imotzen (AZKUE, R. M. de, *Cancionero Popular Vasco*, 470. eta 516-517. orr.), bai Jose Mendiague Hazparneko guarda seme pertsulariak, Buenos-Aires-eko ostatu zokoetan (MENDIAGUE, Jose, *Es-kualdun Kantuak*, Buenos-Aires, 1900, 76-77. orr.). Halako aipamena izan zuen Martin Larralde Bordaxuri-ren kantuak euskaldun guzien artean! Halako lekua hartu euskal literaturaren alorrean!

2. BERNARD LARRALDE BORDAXURI (1771-1853)

Aita, Peña Bordaxuriko semea, zuelakotz, Martin Larralde, Plumaieneko premuak, «Bordaxuritar arrazako» zaukan bere burua. Ez zen bizkitartean bera Bordaxuriko semea. Hona orai beste pertsulari bi, Hazparne Peñako Bordaxurian berean sortuak: Bernard Larralde Bordaxuri eta honen semea. Battitta Larralde Bordaxuri.

Hazparneko herriko-etxetik eta Baionako herriaren liburutegitik bildu ditugu hemengo berri larrienak: XVII, XVIII. gizaldietako bataio, ezkontza, heriotze ageriak ez dira beti osorik begiratu Hazparden eta, egia erran, ez dugu Bernard Larralde Bordaxuri-ko semearen bataio ageririk aurkitu Hazparneko paperetan 1771-1772. urte-etan. Orduantsu zitekeen bada sortua gure gizona ondoko konduen arabera. Ezen XIX. gizaldiko liburuei esker, ongi jarraitzen gataizkio Bernard Larralde Bordaxuriri heriotzeraino. Hiru

zentsu liburu baditugu alabainan Hazparneko herriko-etxean, XIX. gizaldi-koak: 1804, 1809 eta 1831 eginak.

1804 *ean*, Peña Bordaxurian bizi dira:

2944	HIRIART Dominique	62	urte	laboraria
2945	LARRALDE Bernard	32	»	oihalkina
2946	LARRALDE Marie	30	»	
2947	HIRIART Jeanne	73	»	
2948	DOYHENARD Etienne	11	»	

1809 *an*, etxe berean, bi eskualde jarririk, daude:

HIRIART Jeanne	80	urte	mutxurdina
HIRIART Dominika	74	»	alarguntsa
LARRAN Marie	35	»	ezkongai
LARRALDE Bernard	37	»	merkataria
ETCHEVERRY Marie	26	»	
LARRALDE Marie	9	»	
LARRALDE Baptiste	5	»	
LARRALDE Gratianne	4	»	
LARRALDE Marie	2	»	

Hortik beretik nabari da, 1804-1809 arte horretan zer bait aldaketa handi gertatu dela Bordaxurian. Jean Haritschelhar-ek ezagutarazten digun Gilen Bordaxuri eta Marie Plumaienen ezkontza paperetik (HARITSCHELHAR, Jean, op. cit., 3. orr.) badakigu haur-haurretik burasoak galdu zituela, Bernat, Bordaxuri-ko seme gazteenak. Geroztik, eta beste haurrideak oro etxetik joan ondoan, Bernat Larralde bakarrik gelditu zen, bere arreba Marie Larralde-kin, Hiriart sendiaren aldean, «duranguier» edo oihalkin eta ezkon- gai, 32 urtetan.

Bainan 1804 etik laster, Bernat Larralde ezkondu zitekeen, Marie Etcheverry-rekin. Honek, gure iduriko, neska bat baitzuen, gazterik ukana, Bernatek ama-alabak hartu zituen eta laster jin zitzaioten Battitta, lehen semea. Hauen ororen paperik ez dugu aurkitu, zorigaitzez. Graxianaren eta Mari tipiaren bataio ageriak ditugu bakarrik eskuratu Hazparneko herriko-etxean: 1805 ean Graxiana-rena eta 1807 an Mari-rena. 1809 ko zentsu liburuan halere ikusten dugu Bordaxuri-ko Bernat Larralde eta Marie Etcheverry-ren familia, bere kondu ongi finkatua: Hiriart-arrak beren es- kualde ezarririk eta Bernat, etxeko nagusia, ofizioz aldaturik, oihalkin-en orde, merkatari dugunaz gain.

Aldaketa handiagoa oraino bizkitartean ikusten dugu 1831 ko zentsu liburuan. Hor gara zinez ohartzten Bernat Bordaxuri hau zitekeela Plumaie- neko iloba Martin galerioanoaren «osaba burjes diru fornizalea», Jean Haritschelhar-ek sumatu zuen bezala (HARITSCHELHAR, Jean, op. cit.,

29.orr.). 1809-1831 artean alabainan Bordaxuri-ko etxe txarretik Eiheraberriko etxe ospetsurat aldatzen da Bernat Bordaxuri bere familiarekin; Peñako basa-bazterretik, Hazparneko karrika erdirat hots. Hona beraz 1831 an Bordaxurian bizi ziren 10 lagunak:

LARRALDE Marie	—	—	
ETCHEVERRY Jean	45	urte	ehulea
ETCHEVERRY Gracieuse	3	»	
AUGUSTIN Marie	30	»	
ETCHEGARAY Marie	20	»	
BEHERAN Marie	34	»	
SANGLA J. Baptiste	35	»	oihalkina
SANGLA Baptiste	3	»	
SANGLA Marie	1	»	
ETCHELOUS Catherine	42	»	

Beste zehaztasunik gabe, Marie Larralde izen deiturrekin hor dagoen andre hori bera dugu beraz 1831 an Bordaxurian bizi den Larralde-tiar bakarra. Hori bera dukegu ordea, 1851 ko Apirilaren 20 ean, Hazparnen hiltzen dena, 97 urte zituela. Jean Vergez delako baten alarguna omen zen, bainan ez dugu jakinen Bernat Larralde-n arreba, ala izeba, ala nor ote zen. Dena dela, Bordaxuri-ko egoiliar guziak bestenaz kanpotik etorriak dira, iduriz, Eiheraberrirat joana den Bordaxuri-ko nagusi handiaren kondu hor sartuak nik uste.

«Eiheraberria»-ren izena bera galdua dugu gaur Hazparneko «Jean Lissar» karrikatik, bainan 1831 an hor zegoen ospetsu, «Turiandea»-ren (gaurko «Guyenne & Gascogne») eta «Purrutenia»-ren (gaurko «Errimoztea») ondoan. Salerospen handia zerabilan bezala etxeko nagusiak, bere ogi bihi merkatuarekin, «blatier» -zioten frantsesez- familiaz bestalde, sehi alde gaitza bazaukan hor bildurik. Hona bada bizilagun guzien izenak:

	LARRALDE Bernard	59	urte	«blatier»
	ETCHEVERRY Marie	50	»	
	LARRALDE Gracieuse	25	»	
	LARRALDE Jeanne Marie	23	»	
	LARRALDE Saint-Martin	13	»	
sehiak	AINGUIRAT Marie	17	»	
	LAMBERT Eline	7	»	
	DURRUTY Marie	54	»	
	VILLENEUVE J. Baptiste	27	»	«scribe»
	VILLENEUVE Marie	26	»	
	VILLENEUVE Laurence	23	»	
	VILLENEUVE Claire	21	»	
	PRUEL Philippe	59	»	tratulant

«Izkribau» eta sehiak bazter utzi-ta Bernat Larralde Bordaxuri-ren familiari begiratu zuzen heldu zaizkigu gogora: izen edo adin aldaketa izpi bat gora behera, 22 urte eratzikiz geroz, hor ditugu zuzen 1831 an, 1809 ko, Bernat eta Mari burasoak, Gaxuxa eta Mari edo Janamari bi alabak. Geroztik sortu zaie Bordaxuritarrei Xemartin seme gaztena. Bainan eskas ditugu Maria eta Battitta, bi zaharrenak, Maria ezkondu zitzaizen menturaz. Battitta berriz, mediku gaia, eskoletan zitekeen. Badakigu alabainan urte zenbait barne, Bordaxuriren semea, Larralde jaun medikua Donibane Lohitzunen «prezatu» izanen dela.

Anartean, Bernat Larralde Bordaxuri-k, bere «osaba burjes» fama gairidurik, diruak mundu honetan oro gairiditzen omen bait ditu, pertsulari omen handia bildua zuen. Bestenaz ere 1830 etik 1848 ra diruaren eta burjesen boterea nagusitu da Parisen Louis Philippe erregearekin: Ongi baino hobeki doakio hazpandar aberatsari handikien lausengatzeko eta ...milikat-zeko ofizioa.

Hona beraz 1845 eko uda minean Nemours eko dukea, erregeren bigarren semea, Euskal Herrira heldu, andere dukesarekin. Baionan dugu Abuztuaren 20 an. Hain zuzen bezperan, Paubeko asisetan jujatuak izan dira 10 bat Ziberotar: Mitikileko Behope delako bat buru, asaldatuak ziren Mauleko merkatuan aintzineko Jondoni Joanetan. Bihiaren garestitzea estakuru, desmasia ederrik ba omen zuten eginik. Bazterren jabaltzeko heldu zitezkeen beraz printzeak gure eskualdeetara («Sentinelle des Pyrénées», Bayonne, 21, 23 Août 1845, sqq.).

Baionatik Hendaian barna Iruñeko itzulia egin zuten frantses printzeek eta gero Dantxaria-tik Kanbora sartu ziren Irailaren 9 eko. Kanboko dantzak eta pilota partidak nahasi omen zituen eguraldi txarrak, bainan gero Laka-rreko Harispe jeneralaren Jauregira joan baitziren Hazparne, Irisarri eta Donibane Garazin gairid, Hazparnen iragaitean entzun zituzten Bernat Bordaxuri pertsulari, eta merkatari famatuaren konplimenduak:

*Heskualdunak iratzar gaiten, bai zuti gazte guziak,
Gure Printziari emaitako arribadan oboiak.
Zer plazerra duien Heskual Herriak,
Printze bat aldiari ikustiaz,
Bere Printzesa maitiarekin herri hautan pasatziaz!
Orai printze, sarri errege, baitu botere handiak.
Bezi beraz zuek gaztiak, guziak besta gorritan,
Alegera elgarrekilan Printziaren ohoretan! (Bis, bis, bis).*

*Gure Jainkoari behar 'tugu orok eskerrak bihurtu,
Printzek nahi dituztelakotz heskualdunak bisitatu.
Ez girade behar nihor lotsatu,*

Haien borondatiak estimatu:

*Gure malurrak ikusirik nahi gaitu sokorritu,
Gure zoriona berekilan hunat ekarri derauku.
Bezi beraz zuek gaztiak,*

*Printzia pasatzen denian gure mendi handi haultan,
Behar girade presentatu bakotxa gure bortetan,
Buketa koloriak orok eskutan,
Sar dadin Heskualdun bihotzetan.
Ikusiko du nola garen jeneralian penetan,
Urrikaldurik heldu zauku herri hauen fagoretan.
Bezi beraz*

*Gure Printzia orok dugu gure ahalaz oboratu,
Bainan orai nahi ginuke Comte Harispe aipatu:
Hura behar dugu orok maitatu,
Zeren harrek gaitu oboratu,
Heskual Herrian holakorik oraino ez da agertu,
Bere «action»-e loriosez oro ditu merexitu,
Bezi beraz*

*Oraino aipatuko dute Frantzian Heskual Herria,
Comte Harispe-k eman dako sekulako ohoria:
Izkiriba daite haren bizia,
Aski da egia erraitia,
Guretzat eta ondorekoen ainitz kontsolagarria,
Oroitzapentzat izanen da Lakarreko jauregia.
Bezi beraz*

*Comte Garat Lapurtarra da, nahiz Parisen sortia,
Haren odolian kausitzen da Heskualdunen sabantzia.
Orai da bakarrik bera bizia,
Lapurtar guzien gidaria,
Kredit handien jabe dago Parisen eta gortian,
Bera borondatez betia Heskual Herrien gainian.
Bezi beraz*

(«Phare des Pyrénées», Bayonne, n.º 744, 17 Septembre 1845).

1845 eko Irailaren 9 an Bordaxurik Hazparnen eman pertsu horiek nola hartu zituen Augustin Chaho batek interesgarri zaigu ikustea; hona zer dion Baionako bere aldizkarian: «A propos de chansons, un improvisateur re-

nommé de Hasparren, Mr. Larralde Bordachuri en a composé une en l'honneur du passage de LL.AA.RR. Il est fort heureux pour notre spirituel confrère en poésie, que la gravité des magistrats en France ne s'abaisse jamais à s'occuper de chansons... L'improvisation de Mr. Larralde Bordachuri n'est point satirique, elle est plaintive et laudative à la fois... mais il s'y trouve un hémistiche bien hardi:

Orai printze, sarri errege.

Si la rime est riche, elle n'est point exacte» (ARIEL, Bayonne, n.º 50, 14 septembre 1845). Zuzen ari zen gure Ziberotarra, ez baitzen sekulan «erregetu» beihalako printzea, bai eta zuzen ari ere, lausengu guzien artetik zinkurina doa sartzen bazakiela hazpandar pertsulariak, ohartzearekin.

Den bezala erraiteko, Bordaxuriren kantuen «gatz» aipu baitzuen Hiribarren-ek, aitor dezagun beste Bordaxuri galerianoaren pertsuek balinbadute ere gatz eta biper nahikoa, Bordaxuri osabaren kantuetan ez dugula aurkitu ez gatzik ez biper liparrik, baina bai olio eta gozoki gehiegi. Ez gaiten bada harri: zinkurina eta laudorio, nigar eta espantu, badute maiz holakorik besteen meneko dauden eta heldutasunera heltzekoak diren herrialdeen kantuek. Eta Bordaxuri-ren ondotik aurki genezake oraino, Iparraldean ala Hegoaldean, goiko mailetan ala beherekoetan, gure herritar asko, Pariseko a la Madrileko handiki kasta ororen eta Euskal Herriko horien eskumakil piltzarrenen aintzinean ahuspekatu denik.

Horiek oro bait zekizkien Augustin Chaho Basaburutarrak, «Ariel» bere aldizkarian iragarri zuen Hazparneko kantuen ondotik, beste kantu berri bat aterako zuela oraino Bordaxurik, «Euskal Gardiaren» ohoretan egitekoa zen bazkarian: «Mr. Larralde Bordachuri improvisera un chant nouveau au prochain banquet de la garde vasco - bayonnaise» (ARIEL, n.º 51, 21 septembre 1845).

Frantziako Iraultzaren ondotik herri guzietan gobernuak moldatu zuen bere aldeko lagunekin «Nazionearen Gardia», «Garde Nationale» deitua. Bestalde, edozein ospakuntzaren ohoretan biltzen zituzten ere, beren arma, bezta gorri eta zaldiekin, «Ohorezko Gardia»ko gizonak. Orduko kazeten arabera, Nemours-eko dukearen eta dukesaren ohoretan, Garat kondea eta Harispe kondea buru, bildu zituzten horrela Baionako eta Euskal Herriko «Ohorezko Gardia»-ren zaldizko ederrak; horra zergatik Bordaxurik kantatu zuen:

*Gure Printzia partitu da, orok dugu ohoratu,
Orai behar girade beraz haren Gardiaz mintzatu:
Baionesak ditu ainitz laudatu,
Dio, bek direla seinalatu.
Lapurdiko floria berriz Kontiak dauku manatu:
Printzia eta populua, oro ditu satisfatu.*

*Biba, biba, gure Kontia!, Senaturraren semia,
Izan zaitte orai bezala Lapurtarren gidaria! (Bis).*

(coplac Larralde Bordachouri Hasparndarrac, 1845-co 7-en 19-an emanic, Hescualdun gardiaren ohoretan. 1845,7 koplak).

Bide beretik, ondoko urtean, Madrilen ezkont-laguna harturik, Pariseko Erregeren beste seme bat iragan baitzen Baionan: Montpensier-ko dukea, honi ere beste 9 koplak atera zizkion Bernat Bordaxurik. Eta «L'Adour» deitu Baionako kazeta berriak berehala argitaratu zituen (L'ADOUR, Bayonne, 30 Octubre 1846). Besterik ere egin zezakeen Bernat Larralde Bordaxurik, handik laster 1848 ko Iraultzak ez balu uzkaile Louis Philippe erregearen alia. Ez dugu jakin orduan erregezale gelditu zen Bordaxuri, ala Chaho eta Topet Etxahun eta beste frango bezala errepublikazale agertu zen. Dena dela Inperio berri bat ja sortua zen Parisen, Napoleon III.aren Inperioa (1852) Hazparneko herriko etxean hartu zutelarik Bernat Bordaxuri-ren hil berria. Ezen horko paperek diote: 1853 ko Otsailaren 15 an, Hazparne karrikako Eiheraberrian hil izan dela Bernard Larralde, ofizioz ogi bihi saltzale, «blatier», Marie Etcheverry-ren senarra. 81 urte zituen (Hazparneko herriko-etxeke heriotze liburua, 1850-1860).

3. JEAN BAPTISTE LARRALDE BORDAXURI (1804-1870)

Aitortu izan dugu Jean Baptiste Larralde Bordaxuri-ren bataio paperrik ez dugula aurkitu Hazparneko herriko-etxean, ez eta haren hatzik 1804 eko zentsu liburuan, bainan 1809 ko zentsu liburuan agertzen zaigu bere buraso ta haurrideekin, Bordaxuriko egoiliarren erdian, 5 urte dituela.

Bestalde Donibane Lohitzuneko herriko-etxean ibili gara heriotze liburuak ikertzen, «Docteur Larralde», Donibaneko mediku ezagunaren berrien ondotik eta hor irakurri dugu: 1870 eko Martxoaren 21 ean, Donibane Lohitzunen, Ospitaleko karrikaren I.ean hil izan dela Jean Baptiste Larralde, jaun medikua, Bernard Larralde eta Marie Dominique Etcheverry-ren semea, Hazparnen sortua. 67 urte zituen.

Ez da beraz guretzat ezbaian gelditzerik: Argi dago Donibaneko Larralde medikua. Hazparne Bordaxuri-ko seme zela. Gehiago dena ere, Hiribarrenek zion bezala, Larralde medikua pertsuzale zela gaztedanik, sumatzen dugu: Julio de Urquijok salatzen digu Larralde-ren kantu liburu bat, eskuz idatzia eta guziz aberatsa, erosia zuela (URQUIJO, J. de, *Revue Internationale des Etudes Basques*, 1923, 158.orr.). Liburu eder hori ez dugu zorigaitzez aurkitu Donostiako Urquijo-ren liburutegian. Urquijo-ren esku-izkribuen kondua ez omen dute oraino(?) egina. Baina norbaitek noizpait Larralde-ren kantu liburua eskura baleza, euskal literaturaren historiak menturaz asko irabaz lezake.

Anartean bagaude gure buruari galdeka, zergatik ote, Larralde medikuak berak ez digun behinere, bere Bordaxuri-tar etorkia agertu.

Bordaxurian sortu edo bederen bizi izana gatik, gero Eiheraberrirat etorria zela bere etxekoekin, bazuen Battitta Larralde aski estakuru «Bordaxuri» izena Hazpamen uzteko, Donibanera joan zelarik. Bainan bestalde – ala bere lehen kusi galerianoaren gatik, ala bere aita dirudun eta diruzalearen gatik, ez genekike «Bordaxuri» izen hori bera jasangaitz zitzaiola Battitta Larralderi, badugu beldurra.

Dena dela, Larralde medikuak ez du bere burua pertsulari bezala agertzen Hazparneko aita Larralde Bordaxuri hil arte. Urruñako Euskal Festetan, 1856 eko Irailaren 9 an, du partehartzen lehen aldikotz pertsu lehiaketan. Partehartzen eta lehen prima irabazten: Makila zilarreztatua eta untza urrea, Luis Luzien Bonaparte printze euskaltzale eta inperadorearen kusi lehenak eskuratuko diona. Hona saristatu zituzten koplak:

HERRIKO BESTA

Airea: Hau da frantses histuendako alengrantzia handia.

*Herriko besta denaz geroz, aurten kantuen suieta,
Nik ere zerbait erran nahi dezagun denbora pasa.
Ez naiz, sobra dakit, sasoina gan da,
Gehiago gazte; bai hala da.
Bainan egun huntan zabarrrik nihon kausitzen ote da?
Ez, tanburren xirolen soinuuz guziak airosten gira.
Goazen beraz, zahar gazteak, goazen herriko plazara!
Atseginez hain aberats den egun huntaz gozatzeraz.*

*Egun guziz familiak dira, milla gisaz barraiatzen,
Anaia arreba josienak elkarren ganik urruntzen;
Amak nigarretan umeak deitzen,
Harren botza nihork ez aditzen.
Bainan Herriko Bestarekin guziak etxerat biltzen,
Beren buraso maite hoiek amultsuki besarkatzen.
Egun eder, egun gozoa, atseginez gaintitua,
Berantegi aditu duzu gure bihotzen oihua!*

*Gizon gazte, gorputz lerdena, hunat gerriko gorria!
Eta zuk, neskatxa kriketa, laster kaxa soin xuria!
Goizetik denbora dago garbia,
Nibon bedoi bat ez, zer loria!
Jadan urrundik ikusten dut plaza jendez estalia;
Lot beraz zuen makilleri, lagunak! Gaiten abia!*

*Goazen beraz, zahar gazteak, goazen herriko plazara!
Atseginez hain aberats den egun huntaz goatzera.*

*Plazarat heldu garenean, zer zaiku kolpez agertzen?
Sei herronketan gazteria; zaharrak ez ziren azken;
Zortzi pillotari dira jokutzen,
Begiak dituzte lilluratzen,
Nahiz oraino bere botza nihork ez duen altxatzen,
Segur naiz bakotxak gogoz bederen duela kantatzen:
Egun eder, egun gozoa, atseginez gainditua,
Berantegi aditu duzu gure bibotzen oihua!*

*Aurten Urruña lehen dugu, besta guzien nagusi:
Ikusten dut eta balere kasik frogarik ez aski,
Zein goradanik den Printze bat jautsi,
Gurekin egungo kide jarri.
Eskaldunak! ez da sekulan Jaun hori behar ahantzi.
Ez orai bakarrik biotzez, kanta dezagun goraki:
Biba! Biba, gure Printzea! hanbat talenduz betea,
Talenduen berdina dago xoilki zure bertutea.*

*Nahiz milla gauza nintuzken oraino nik erraiteko,
Printzeaz mintzatuz geroztik, guziak litezke flako.
Lurrera zerutik ez erortzeko,
Muga da nere ustez ixiltzeko.
Aski beraz, bestalierrak; orai etxerat gateko
Amarra zuen eskarpinak, ama guri beira dago.
Goazen, goazen, goazen gibelat, bainan heldu den urtean
Aurki gaiten, nere lagunak, aurtengo toki berean.*

(LE MESSENGER DE BAYONNE, 15 Novembre 1856)

Bizpalau oharpen bagenituzke Battitta Larralde Bordaxuri-ren lehen kopla andana horretaz egiteko. Eta lehenik, kantuaren airea ez dugula ezagutzen, bainan emanak diren hitzetarik sumatzen dugu Frantziako Iraultza Nagusiaren ildotik doala delako doinua.

Euskararen aldetik, «milla», «pillota», «makilla», «kaxa», «gan», «gaterko» eta holako lapurtar porroxa zenbait gora behera, baxenabartar moldeak eta ereduak dira nagusi, Hazparneko berezitasun bat edo besteekin, hala nola «nintuzken».

Aitarenari konparatuz, semearen hiztegiak, idazle eskolatuagoarena den bezala «garbizale» dirudi. Pertsuaren egitura aldiz tinkoago eta aberatsago. Perpausa bera halere lasai eta laxo dator hazpandar batzuen elasturiak kutsatu balu bezala.

Oroz gainerik aitortu behar dugu, kantu horren azken bi koplak irakurri-ta, semeak ez diola aitari zorrik handi-mandien lausengatzen hasten delarik. Atzo Erregeren semeek aita: «Biba! ta Biba!» ari zen bezala-bezala, orai berdin ari zaigu semea, Enperadorearen kusiari: «Biba! ta Biba!-ka». Beharrik beste biderik hartu baitzuen Larralde medikuak ondoko urteetan!

1857 ko Bestetara ez zen agertu Donibaneko mediku pertsularia. 1858 an aipamen bat eman zioten «Eskualduna» deiturik bidali zuen kantuari. 1859 an lehen prima irabazi zuen berriz Bartitta Larralde, «Lo Lo, nere maitea!» bere sehaska kantu berriarekin, Zazpi koplak dauzka, «Ene izar maitea!»-ren airearekin emaiteko ontuak. Ez ditugu hemen ezarriko, eskual kantu liburu gehienetan sartuak bait dira: Ikus *Kantu Kanta Kantore*, 245.orr. Herriak ontzat hartu dituela seinale. Etxahun Irurik, geroztik, ontu dizkigun: «Lo hadi ainguria!», eta holako zenbait koplaren grazia goxoa aurkitzen diegu pertsu horiei, guhaurek.

1860 an «Xori ohatzea» aurkeztu zuen Larralde medikuak, «Abbadia-ren lehiaketa»-ra eta honelako komentarioa egin zuen Baionan Duvoisin kapitainak: «Mr. Larralde, couronné à deux précédents concours, nous a donné cette année une jolie pièce intitulée: «Chori ohatzea»:

*Adi zazu nigarrez, xori gaixo hori,
Umeak gal beldurrez, oihuz dago zuri...*

Les traits irisés de la plus aimable poésie se trouvent répandus. On y rencontre des réflexions trop graves peut-être...» (C. DUVOISIN, *Le Courrier de Bayonne*, 23 septembre 1860). Aipamen horrekin utzi baitzuten beraz jujeek Larralde jaunaren olerkia, Duvoisin-ek berriz ere argitu nahi izan zuen bere eta beren lagunen xedea:

«Le concours de poésie basque veut rester pur et en dehors des passions malsaines. Relever l'art chez nos compatriotes, l'encourager, l'anoblir, le perfectionner, tel est le but que se sont proposés les honorables fondateurs du concours. Imprimer au sentiment national une vive impulsion dans la sphère du beau est une mission vraiment patriotique méritant l'appui chaleureux de tous les Basques» (C. DUVOISIN, *Le Courrier de Bayonne*, 26 septembre 1860).

Nork ez zituen horrelako xede ederrak onartuko? Eta geroxeago, 1874 ean Sarako jujeek politikaren sukar gaiztoa beren artean sartzera utzi zutenean, aita Aranek Bizkaiatik bidalitako pertsu beroak saristatzen zituztela:

*Ea bada mutillak, jaiki gogorturik,
Fusilak baionetak hartu berbertatik,
Jaungoikua ta Marija doguz gure aldetik,
Europa kontra izanik ez dogu beldurrik...*

Badakigu zer zalapartak sortu ziren: Ikus, GUILBEAU, M., *L'Avenir des Pyrénées*, «Concours de poésie basque à Sare», Bayonne, 19 Septembre 1874.

Larralde jaun medikuaren pertsuekin ez zen bada holako lanjerrik: Erromantikoen bide sentimentaletatik zabiltzan ardura. Bizkitartean 1862 ko lehiaketan juseek baztertu zuten oraino haren «Brioleta»: Donibaneko medikuaren kantu horren bai eta beste askoren - bereziki Elizanbururen «Ikusten duzu goizean»-en – aintzinean ezarri zuten Elizanburu-ren «Apexa eta Lorea» (*Kantu Kanta Kantore*, 19, 33, 150.orr.).

1863an ere, Urruñako bestetan, bigarren lerroan uzten dute Battitta Larralde igorri duen «Xoriñoa kaiolan»:

*Zertako ni kaiolan, zer eginik gaizki?
Ez ote dut bada izan bihozminik aski?
Airetan ibiltzeko, Jaunaren dohainak
Eta ez preso egoteko ditut nik begalak.*

*Beharbada nigarrez, barur atzo danik,
Ene haurrak ni galdez daude goseturik.
Laster hetaratzeko, idek beraz bortak!
Maiz heien bazkatzeko ditut nik begalak.*

*Alargun bat naizela ez dautzuet erran,
Helas, hil zitzaizkizala laguna segadan.
Harren miña arintzeko eta eginbideak
Bienak betetzeko ditut nik begalak.*

*Iragan arratsean egin dut nik amets,
Umez aipu denean amak zer ez sinets?,
Ohatzetik hurbilsko zabiltzala etsaiak.
Lanjerrei aintzintzeko ditut nik begalak.*

*Baina berantegi den nago beldurturik
Nihon ez dut aditzen auben minik baizik
Ez ez da dudatzeko, galdu ditut haurrak.
Orai nik deusetako ez ditut begalak.*

*Doluz errebel, Jauna, hasi naiz mitzatzen:
Nere azken oreña hari da hurbiltzen.
Zerurat airatzeko, umentzat alferrak,
Zaizkit baliatuko, agian! begalak.*

(URRUÑAKO ELIZA BESTA, *Coplarien gudua*, Bayonne 1863).

Lehen aldikoei konparatu-ta, pertsu hauek erakusten dute, gure uztez, pertsularia bere ofizioaz ongi jabetu dela, baina ez ote du oraino haren doinuak halako mindulin, nigarti aire bat begiratzen? Non dira bada Bordaxuritar kusiaren ziri zorrotz eta oihu saminak?

1864 ean azkenean, bere lore usain eta xori kantu guziak bazterrera utzi zituen Larralde medikuak, berak bizi zuen bizitzea gogoratu zitzaion eta atera zuen «Mutil Zaharra», bere kantu hoberena, Sarako Bestetan untxa urrea eta makila zilarreztatua, hots lehen prima, berriz ereman zuena:

*Bakarrik bizitzeaz unhatua franko,
Xede zerbait banuen lagun bat hartzeko,
Bainan orai andreak zenbat ez du behar!
Ez, ez, nabiago dut egon mutil zahar.*

Eta horrela heldu dira hameka koplak, zuzen eta zorrotz. Ez ditugu hemen ezarriko, berez aski ezagunak bait dira (Dr. A. Goyeneche, *Eskualdun Kantaria*, Bayonne Lasserre, 1894). Arrakasta gehiegi zutelakoan pertso horiek, ez ote dituzten zenbaitek beren kantu liburuetarik baztertu, bagaude ere. Dena dela, Larralde mediku donadoari laster erantzuna bota zion Ezpeletatik Josep David (1829-1910) mediku sentonak:

.....
*Zafra zagun diona: «Gauden mutil zahar!
Jaunak, haren gainean etsenplurik ez har!
Aberats balin bada, dena da paper tzar,
Eta beharra bada, segur dena piltzar.*

*Bizioz betetzen da, gizon mutxurdina,
Tabakoz usaindurik, sudurra zikina.
Sosa du bere jainko, elkor tzar egina,
Edo dena tripan du bere atsegina...*

(NEHOR, *Mutil zabarrari*, «Gure Herria», 1922, 164-166.orr.).

1865 eko urte berean Battitta Larralde ikorri zuen azken kantu bat, «Eria ezagutzaz betea errexiñoletarentzat» deitzen zuena. Jukeek eman zioten ohorezko saria. Hartze zuen gaixo medikuak: Ez zen alabainan ainitz zahartu eta, erran dugun bezala, 1870 eko Martxoaren 21 ean hil zen Donibane Lohitzunen, 67 urteetan, Battitta Larralde medikua, Hazparneko Bordaxuritar hirugarren pertsularia.

Hazpandarrek orain arte ohoratu ditugu oroz gainetik nonbaitik etorri arrotzak, edo nolazpait diru puska bat egina zutenak, edo pilotari fama zerbait izan dutenak. Noizpait menturaz ohartuko gara beste hazpandar aipagarriak ere izan dugula: Elhiar-tarren fama ez badute bildu beren bizian, beren herritarren oroipena hartze dute gure ustez, Garat-Pikasarririk eta Londaitz-behere erretorak, Manex Hiriart-Urruty Joanosederraenekoak eta Piarres Broussain Barrandegikoak eta Josep Mendiague Guarda-semeak eta Clément Mathieu apezpikuak eta Gilen Cazenave kantariak eta beste askok. Oroituko garenean agian bilduko ditugu orduan liburutto batean Hazparneko hiru



«Bordaxuría». Peña (Hazparne)

Bordaxuritarren kopia guziak. Anarthean Euskal literaturaren alorrean ildoa ideki digun erakasleari eskaintzen dizkiogu lerro xuhur hauek (P. LAFITTE *Le Basque et la littérature d'expression basque, en Labourd, Basse - Navarre et Soule*, Bayonne, 1941, 51.orr.).

POST-SCRIPTUM

Ikerlan hau eginez geroz, BAIONAko Erakustokian edo Museoaan aurkitu ditugu DARANATZ Kalonjeak bildu DUVOISIN kapitainaren paperetan J. Baptiste LARRALDE BORDAXURI medikuak ABBADIAREN Lehiaketetara igorri olerkiak, bai eta ere haren aita Bernat LARRALDE BORDAXURI-ren kondu Duvoisin-ek jartzen dituen bi edo hiru pertsusaio: «L'Emigrant, par Larralde-Bordachuri, père du médecin poète», deitzen du lehena, eta honela dio:

*Orai hasten niz kantatzen neure penen deklaritzen:
Eztitasunez bete lore bat aspaldi dut adoritzen,
Haren ganikan urruntzeaz bihotza zaut erdiratzen...*

Honelako 8 kopia ba dira.

Bigarrena «Tourments de l'Amour» deitzen du eta errepika honekin emaiten:

*Goazen, goazen ene laguna, zoin gure maitien aldera,
Gure pena doloren beier deklaratzera,
Bai eta kontsolatzera...*

Hirugarrena berriz guhonek aipatu duguna: «Coplac, Larralde Bordachouri Hasparndarrac (sic) 7en 19an emanik, HESCUALDUN-GARDIAREN ohoretan». 7 kopia dira, paper berezian inprimaturik.

DE(B)E - DU(T)E, DAI, DEBIE ADITZ - JOKOAK GIPUZKERAZ. BIZKAIERAREN ERAGINTZA

Pedro de YRIZAR

Bihotz-bihotzez eskeintzen diot lantxo hau Pierre Lafitte, euskalari jakintsu eta adiskide maiteari.

Gauza jakina da bizkaiera eta gipuzkera, alkarren ondoko euskalkietatik, alderik handiena dutenak dirala. Baino, hala ere, bizkaierako eta gipuzkerako adizkiak ez dute danak muga bakarra: aditz-joko bakoitzak bere muga du; isoglosak ez dira danak batera etortzen.

Gainera badira adizki batzuek, bizkaieratik gipuzkerara poliki-poliki aldatzen diranak. Bizkaierako eta gipuzkerako adizki hutsaren tartean badira beste aditz-joko bitartekoak. Hauetako bat aztertu nahi nuke, arinki bada ere. Adizki horrek, gipuzkera hutsean, *dute* behar lukela dirudi, «haiek ekarri *dute*», baino, ikusiko dugunez, aditz-joko hori ez dute gipuzkerazko herri gehienetan erabiltzen.

Hara hor gipuzkerazko herrietan erabiltzen dituzten aditz-jokoak:

Hernani-aldeko hizkeran

dute Hernani, Astigarraga (baita ere *due*), Donostia, Pasaia

due Astigarraga (baita ere *dute*), Orio, Lasarte, Igeldo

Tolosa-aldeko hizkeran

due Tolosa (baita ere *dute*), Alkiza, Albiztur, Andoain, Berastegi, Bidania, Beizama, Gaztelu, Zizurkil, Oresa, Aduna, Anoeta, Elduain, Leaburu, Asteasu, Lizartza

Azpeiti-aldeko hizkeran

debe Azpeitia, Azkoitia, Arroa, Getaria (baita ere *due*), Deba, Mutriku (baita ere *deue*; Astigarribian, *deue*), Zumaia? (sic Bähr), Urrestilla, Aratz-erreak, Matxinbenta (baita ere *dee*), Oikia, Zarautz (baita ere *due*)

- dee* Aizarna (baita ere *debe*), Aizarnazabal, Aia, Itziar (baita ere *debe*), Errezil
due Zumaia, Zarautz (baita ere *debe*), Zumarraga, Aginaga (Azkoitia), Oraa (Zumarraga), Getaria (baita ere *debe*)
dabe Elgoibar

Zegama-aldeko hizkeran

- due* Zegama (baita ere *doe*), Gabiria, Mutiloa, Amezketa, Itsasondo, Zaldibia, Otzaurte (Zegama), Ursuaran (Segura), Arama, Ormaiztegi, Brinkola (Legazpi), Itsaso, Ezkioga, Orendain, Alegia, Beasain, Lazkao, Abaltzizketa, Bedaio (baita ere *dute*)
doe Zegama (baita ere *due*), Legazpi, Ataun (baita ere *doia*), Aia (Ataun)
doia Ataun (baita ere *doe*), San Gregorio (Ataun)

Burunda-aldeko hizkeran

- dai* Olazti, Ziordi, Urdiain, Altsasu, Iturmendi, Bakaiku
due Dorrao, Unanua

Etxarri-Aranatz-aldeko hizkeran

- debie* Etxarri-Aranatz
dabie Lizarragabengoa

Zehetasun gehiago nere «Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca»n, II, 143-144 orrietan. Hemen aditz-jokoak pizkat laburki aurkezten ditugu, danak batera hobeto erakusteko asmoakin.

Hauek ipini ditugun mapatxoan, idatzi ditugu gainera beste inguruetako euskalkien, adameneko herrietan darabilzkien aditz-jokoak.

Gipuzkeraren sartaldean, bizkaieraz hitz egiten dute. Markina-aldeko hizkeraz mintzo diranak *dabe* esaten dute; Bergara-aldekoak ere *dabe* (oñatiarrek, *daue*), eta Gatzaga-aldeko hizkera darabilten herriak *daue* esaten dute, bai leintzarrak, bai aramaiarrak. Aditz-joko hauek sartaldeko eta Gipuzkoa-aldeko bizkaierakoak dira. Sartaldeko bizkaieran berriz *daud(i)e*, *daur(i)e*, *deud(i)e*, *deur(i)e* aditz-jokoak erabiltzen dituzte ghienean.

Gipuzkeraren sartaldean iparreko goinaparreraz hitz egiten dute. Irun-aldeko hizkeraz mintzo diranak *dute* darabilte (Arano-aldean, *due*); Intza-aldeko hizkera darabilten herrietakoak, *due* (Larraunen *dui* ere esaten dute); Uharte-Arakil aldeko hizkera darabilten herrietan honela: arbizuarrak, *dubie*; uhartearrak, arruazuarrak eta lakuntzarrak, *dube* (irañetar edo «iintarrak», *dute*).

Orain ikus dezagun, mapan, adizki honen aldakuntza gipuzkeran, sartal-detik hasita sortalderuntz:

1. **Beterriko gipuzkeran** (bizkaieraren *dabe*-tik, iparreko goinaparreraren *dute*-raino).

a) *Barnean*

	<i>dabe</i>	→	<i>debe</i>	→	(<i>debe-dee</i>) ¹	→	<i>dee</i>	→	<i>due</i>	→	(<i>due-dute</i>) ¹	→	<i>dute</i> ³
Elgoibar ⁴			Azpeitia		Aizarna		Aizarnazabal		Alkiza		Astigarraga ²		Hernani
			Azkoitia		Itziar		Aia		Andoain				
						Errezil					

b) *Itxas-aldean*

	<i>debe</i>	→	(<i>debe-due</i>) ¹	→	<i>due</i>	→	<i>dute</i>
Mutriku ⁵			Zumaia		Orio ⁶		Donostia
Deba			Getaria		Igeldo		Pasaia
			Zarautz				



1. Bietara.
2. Baita ere, egoaldeago, Tolosan eta Bedaion.
3. Aditz-jokoan iturburuei begiratuaz, egokiago izango litzake horrela: *dabe* → *debe* → (*debe-dee*) → *dee*; *due* ← (*due-dute*) ← *dute*.
Eta hurrengo errenkadakoak ere berdin.
4. Bonaparterentzat, Elgoibarren bizkaieraz hitz egiten zuten; Azkuarentzat (eta baita ere guretzat), gipuzkeraz. Egitan, Elgoibarreko hizkerak, gipuzkerazko eta bizkaierazko bereizgarriak ditu. Ikus nere *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, II, 244.
5. Baita ere *deue*; Astigarribian, *deue*.
6. «Erizkizundi»ko azterpena egin zanean, zaharrak *dute* esaten zuten.

2. **Goierriko gipuzkeran** (bizkaieraren *daue*-tik, iparreko goinaparreraren *due*-raino).

Alde hontan aldameneko bizkaierak ez du *b*-rik, ez Leintzen, ez Oñatin, eta aldameneko goinaparrerak ez du *t*-rik. Hortaz, goierriko herrietan *doe-due* darabilte; *doia*, ataundar berezitasuna da.

3. **Sakaneko gipuzkeran** (ez du, orain behintzat, ikutzerik bizkaierakin; sortaldean, Sakaneko goinaparreraren aditz-joko hurrena *dubie* dugu; haruntzago, *dube*).

Burundan *dai* esaten dute; Ergoienen (Ergunen), *due*; Etxarri-Aranatzen, *debie*; Lizarragabengoan, *dabie*.

Goraxoago esan dugu orain Sakaneko gipuzkerak ez duela ikutzerik bizkaierakin. Nolanahi ere jakingarria da, Sakaneko aditz-joko *dai*-ri buruz, Oñatin (bizkaierako herririk hurkoena), «hika», *xuai*, *xonai* esaten dutela. Ikusi dugunez, «zuka», *daue* esaten dute (ez *duai* edo *dai*).

Beste aldetik, berriz, sortaldean, Larraunen, *dui* erabiltzen dute, hau ere *dai*-ren bukaera ber-berakin.

Azkenik, aditz-joko hauei dagozkien Patxi Altunaren hitz jakingarri batzuek aipatuko ditut; Mitxelenaren iritzi itzaltsua dakarte, Gipuzkoan, XVII-garren mendean, aditz-joko *debe*-k zuen zabaltze handiei buruz (*Eus-ker*a, 1956, 172):

«Bizkai-aldetiko kutsua ere ba-degula (Patxi azpeitiarra da) uste det, noizbait Mitxelena'tar Luis Jaunak, nere adiskide jatorrak, ezezko-antza eman ba'dit ere. *Dute* ez baña *debe* esan oi degu guk. Adibidez «Biyer datozela esan *debe*». Mitxelenak zidanez amazapigarren mendean «debe» esan oi zan Gipuzko geienean.»

Hau irakurri nuenean, Koldo Mitxelenari galdetu nion bere iritzi horren sustraiaz. Erantzun zidan, alde batetik, Ochoa de Arinen «Doctrina»; beste aldetik, XVII-garren mendeko hiru gutun, Azpeitiko moja batek eginak.

«Doctrina» horren izen-burua horrela da: *Doctrina christianaren explicacio Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan Erri Noble onen instanciaz escrivitu ceban beraran Vicario eta Capellan D. Joseph Ochoa de Arinec, Pueblo onetaco aurray iracasteco, ...*; 1713-garren urtean argitaratu zuten, Donostian. Arinek erabili zuen aditza, Dodgsonek, 1910-12 urtetan, eta Oregik, 1972-garrenean, aztertu dute. Josu Oregik zehazki eta argiro aurkeztu ditu aditz-joko horiek (*Fontes*, 1972, 12, 353-369).

Gu aztertzen ari garen adizkiak buruz, era hontako aditz-jokoak dakarzi: *debe* (13), *debea* (4), *debe-* (28), (*ez*)*tebe* (1), *dabe(ela)* (1). Mako arteko zenbakiak, zeinbat aldiz agertzen dan aditz-joko bakoitza adierazten dute.

Garrantzi handikoa da jakitea XVII-garren mendean, Ordizian, *debe*, *debea* erako adizkiak erabiltzen zituztela; inoiz *dabe* aditz-jokoa ere bai, behintzat *dabe(ela)* dakar, bein bakarrik bada ere. Mende hartan, aditz-joko horiek Ordizian egiazki erabiltzen bazituzten, beraien mugak, ordundik honera, bide luzea egin dute, sartalderuntz eta baita ere iparralderuntz, mapatxoan argiro ikusten danez.

Goragoago aipatu ditugun gutunak, Irigarayk argitaratu zituen (*Egan*, 1955, 1-2, 10-12). Gero Satrustegik erderaztu zituen (*Fontes*, 1979, 31, 59-70) eta itzulketa honeri buruz Irigarayk ohar batzuek azaldu zituen (*Fontes*, 1979, 33, 549-550). Guretzat adizki jakingarriena lelengo gutunean dago (I, 8-10):

- I. 8 «.....çuc vste de-
9 çu monjak debela contentu gucia aen
10 artean ere bada cerbayt»

Erderaz, nere iritziz, horrela izango litzake:
«tú piensas que las monjas tienen to-
da la satisfacción. También entre
ellas hay algo».

Hemen ere gure zorioneko aditz-joko *debe(la)* daukagu. Baino guretzat ezta gora-bera handikoa. Alde batetik, eztakigu Azpeitiko moja hori nungoa zan jaiotzez eta, beste aldetik, azpeitiarra balitz, adizkiak ez luke aldaketarik izango, orain ere, Azpeitian, *debe* erabiltzen dutelako.

Baino 1956-etik gaurko eguneraino urte asko joan dira eta neretzat garrantzi handikoa da Mitxelenaoren oraingo iritzia jakitea. Galdetu diot eta honela erantzun dit:

«Lehen pentsatzen nuenari eutsiko nioke, gutti gora-behera, orain ere, eta orduan baino oinarri gehixeagorekin. Eremuz eta jendez neurtzen bada, esan daiteke besterik gabe *due* (*debe*) dela gipuzkeraz gehien erabiltzen den adizkia. Hau, ordea, aho hizkerari dagokio soil-soilik. Idazkietara jotzen badugu, bestea, *dute* alegia, ageri da nagusi. Egoera horren sustraiak Larramendigan aurki daitezke, gorago ez bada. Bere *Arte*-an, egia, *deü-e* (*deu-e* adierazteko edo) eta *dute* erakutsi zuen, baina erabili, bera euskaraz ari zenean, *dute* erabili zuen.

Hortik, noski, *dute* (eta *duen*, *zuen*, *zuten*-en) etorkizun zabala eta argia, Ubillos, Agirre eta bestek *due* (*duan*, *zuan*, *zuen*) usatu zutelarik ere. Hortik, Lardizabal zaldibiarraren bitartez, azkenik Bonapartek gipuzkerazko adizki jatortzat onartu zuenez gero.»

RESUMEN

Es bien sabido que el vizcaíno y el guipuzcoano son los dialectos contiguos en los que las diferencias son más marcadas. Sin embargo, los límites de las formas verbales vizcaínas y guipuzcoanas son diferentes para unas flexiones y para otras. Las isoglosas correspondientes a las distintas flexiones no coinciden.

Por otra parte, existen algunas flexiones en las que el paso entre las formas que, en cierto modo, pudiéramos llamar características de uno y otro dialecto, tiene lugar de un modo gradual. Entre aquellas formas verbales típicas de cada dialecto, se encuentran, distribuidas sobre el terreno, variantes cuyas diferencias son mínimas, con lo que la transición tiene lugar de un modo casi continuo.

En el presente artículo, examinamos una de esas flexiones, la indefinida «ellos lo han» y exponemos la progresiva sucesión de sus variantes, dentro del dialecto guipuzcoano.

Se exponen algunas consideraciones sobre la posible extensión de la forma *debe* en el siglo XVII.

EUSKERAZKO BERTSOKERAK

ZATARAIN'darr Anbrosi

«Orixe» zanak eskaturik' oraiñ ogeitamasei urte inguru idazkitxo bat egin nuan, eta idazki artan esandakoen muiña besterik ez tet oraiñ agertuko.

Lenengo' *bertso* izenaren adierazpena gaztelerazko *verso* izenarena *eztala* esan bearko det, *estrofa* izenarena baizik. Ingelesez *verse* itzak *line* adierazten du batzuetan, eta beste batzuetan *stanza*; alemanez ere berdin, *Vers* itzak batzuetan *Strophe* adierazten du, eta beste batzuetan *Gedichtszeile*. Gaztelerazko eta italerazko *verso* eta prantzesezko *vers* adierazteko' guk ingelesek eta alemanek bezela *lerro* edo *bertso-lerro* esan genezake.

Oraiñ askok *bertso* itzaren ordezt *ahapaldi* itza darabilkie, euskaldunago dalakoan noski. Baiña adierazpen ori Azkue'ren oker bat besterik ezta. Ona Azkue'k bere iztegian diona: *Ahapaldi* 1.º (S. P., BN-am) estrofa, copla: Bizpahirur ahapaldi egin ditudalakotz, izan niz kondenaturik (BN).—2.º injuria. Erran behar da miserikordios dela Jainkoa, hunelako ahapaldiak, hunen itxusiak, pairatzen dituenen. (Ax. Villasante'ren agerpenean 89; 197 a). Ikusi Sota-Lafitte-Akesolo iztegian *ahapaldi* itza.

*
* *
*

Euskal kanta geienen bertsoak iru sail nagusitan sartzen dira: lerro aundizkoak, lerro artaiñazkoak, eta lerro ttikizkoak. Lerroak berriz'puntutudunak naiz puntugabeak dira.

Lerro aundi puntudunak zortzi piku (eleki, izki, «silaba») ditu, puntugabeak berriz amar, bosna izkizko bi zatitan. Lerro artaiñak zortzi izkiko puntugabeak eta zazpi izkiko puntudunak izaten dira. Lerro ttikiak berriz' zazpi izkiko puntugabeak eta sei izkiko puntudunak.

Bertsoak geienetan lau, sei, zortzi naiz amar lerrokoak dira. Arruntenak puntua bi lerrotik beñ eduten dude, baiña puntu geiagokoak ere ugari dira.

Ona bertso arrunten zerrenda, bertsojera bakoitzeko adibide batekin:

Lauko aundia:

(10 - 8p)²

Aitta San Migel Iñurreta'ko,
zeru altuko loria:
agura zarrak dantzan ikusi
ta ak egitten jok barria!

Lauko artaiña:

(8 - 7p)²

Kazkarotak badakite
trikun-trakun egiten,
oilloñuak ebatsi ta
sasipean gordetzen.

Lauko trikia:

(7 - 6p)²

Altzak orria zabal
Begoña-ganean,
asko be zabalago
Basobaltz-aldean.

Seiko aundia:

(10 - 8p)³

Joxe Joakin, nere laguna,
zor dizut grazi aundiya;
¿siaskatikan etortzen al'da
dontzellatasun guztiya?
nik berdiñian nayago nuke
amak besuan aziya.

Seiko artaiña:

(8 - 7p)³

Hasperena, habilua
maitenaren borthala:
habil eta erran izok
nik igorten haidala;
bihotzian sarr hakio
hura eni bezala.

Seiko trikia:

(7 - 6p)³

Oles ezkonberriak,
Yaungoikoak gau hun:
toberaketan gatoz
bost edo sei lagun,
zuen baimenarekin
kantatu ditzagun.

Zortziko aundia:
(10 - 8p)⁴

Deboziorik batere gabe
plaza batera bezala,
maiz elizara doazin oiek
¿zer ari dire orrela?
Gorputzez mezan, gogoz tabernan
egon izaten gerala:
gure arimen lazakeriak
Yinkoak barka ditzala.

Zortziko artaiña:
(8 - 7p)⁴

Jentetan den ederrena
vmen dvzv agota:
bilho holli, larrv xuri
eta begi ñabarra.
Nik ikhusi artzaiñetan
zv zira ederrena:
ederr izateko aments
agot izan behar da?

Zortziko ttikia:
(7 - 6p)⁴

¿Norat zoazi hola,
zu adixkidia?
-Donapaleo'ra dut
egungo segida;
urreño bat deramat
bertze baten bilha,
baldin laphurtarr hoiek
jalgitzen badira.

Amarreko aundia:
(10 - 8p)⁵

Kantoreño hauk gure herrian
amodioain gainean,
berri-berriak emanak dire
bazko-biharamunean.
Uso-paloma xuri eder bat
nendukan sare-artean;
ene sareak usorik gabe
mihatu nituenean'
harritu nintzen lumatu gabe
nola joan zen airean.

Amarreko ttikia
(7 - 6p)⁵

Sortzean bezalaxe
xortean agertu,

buluzgorri bainintzen'
han naute ikertu;
aitzindaria etzen
lan hortan izertu,
duda-mudarik gabe
ninduen onhartu:
mainku oker naizela
ezpaitzen ohartu.

Amabiko ttikia
(7 - 6p)⁶

Probintziarrek zuten
prekozionia,
berekin ekarria
pertsu-emailia:
berendako zeukaten
De todos modos el dato de Ajanguiz, patria del minero retrotraería un poco hacia los tiempos forales ya que no solo en documentos antiguos de Vizcaya del año 1570 sino hasta la misma época en Iturriza, Ajanguiz era uno de los puertos con «rentería» de hierro.

Así esta leyenda en su círculo reducido posee caracteres de alteración y de olvido de detalles que bien pueden atribuirse a su recitador actual (por cierto muy popular y del que se aducirán en el presente volumen otros recitados). Nuestros recitadores de aldea lo mismo que escribe docto del Evangelio que «*profert de the sauro sue*», saben comprender lo propio y lo extraño, lo viejo y lo nuevo (*nova et vetera*).

Sólo la crítica del exámen interno podrá dilucidar como en el presente caso la parte y la parte.

En resumen, esta leyenda del minero no podría engañarnos sobre su tipismo y arcaísmo, no posee en realidad el grado de valor que para nuestra

historia eclesiástica antigua buscamos, ya que ni el mismo original remonta a la fecha límite de la investigación, pero ni su repartición geográfica prueba una penetración antigua en nosotros. Sobre todo hemos podido comprobar la necesidad imperiosa de someter cada leyenda o tipo de ellas a un análisis y comentario minucioso antes de utilizarlas como testimonio histórico.

Esta leyenda que también cundió por Alemania limítrofe, bien pudo haberse inspirado en aquella narración idílica que trae SAN GREGORIO de Tours sobre el subdiácono goloso que suplantaba el vino de la ofrenda. En fin, leyenda edificante sobre devoción a las Misas de Requiem y sobre la práctica útil de las ofrendas por los fieles. Pero hay otras leyendas y otros temas de literatura oral vasca más aprovechables para el objeto de nuestra encuesta.

DR. P. LAFITTE ETA ZUHURTZEA

Antonio M.^a LABAYEN

Onela zehatz, -edo «*deblauki*», Axular'en, itzez-izendatuko genduke Uztaritze'ko maisu aundia: gizon langille aspergaitz, jakintsu zuhurra. Gaztetandik lanean zaildua, agertzen zaigu, beti elburu bati lotua. Jainkoa eta eskualdungoaren alde bai «*mugaz hunaindian bai baraindian*». Bere solasak dira emen aren omenez oroit-arazi nai dutugunak. Zuhurtzea aipa dugu bai, zuhurtzearen atxikimendua bere jaioterrik-Luhosoa-Lapurdi-Benabarre'ko mugan dagonetik datorkio. Baita ere XX mendearen asieran jaioa izatetik. Erdal-Eskual gurasotik sortua etxean bi mintzaera aditzen oitua izan zan, maitasuna bien artean banatua. Au ere zuhurtzea da!

Piarres (Dr. Lafitte Iturralde) zer jaun aundi billaka dan bestek esan bezate. Bestek araka, lerroz, lerro azken 50-60 urteotan bururutako lanak. Bai eskuaraz, bai prantzesez; eliza gai, literatura eta kantuz. Zerbait opa nai nere aldetik eta laburkiro bederen ark «GRAMMAIRE BASQUE» (Navarro-labourdin littéraire) eman zion itzaurre edo aintzin-solasetik apur batzu itzuliko dizkitzuet, besterik eziñean... Lafitte'k galdegiten digu: zer da Gramatika?. Gramatika ontsa itzegin eta idazteko omen da, lehen ziotenez. Orain, aldiz, gramatikaz beste zerbait adierazi nai digute: izkuntzaren jakintza. Alegia, ez nola mintza behar dan, nola mintzatzen dan baizik. Era ortan aldaketak jasotzen ditu eta erriaren kultura-bizitzaren alde jokutzen. Gramatikari ameslariak kontuan artzekoak dira baiñan ez ematen dituzten legeek estuegi artzekotan. Baliatzeko ainbatekoak izan ditezela eska behar zaie. Teori gutxi, praxis asko, eta jakintza salbo geldi dadilla. Ona gure egillearen asmoa, ezen Bossuet'en arabera Jakintza maitasun billaka behar da. Eskualdunoi maite izatea onuragarri gerta dakien. Ots! jabe ditezen eskuaraz mintzatzen duten aberastasunez!

Behaostopo aundi bat arkitzen dugu bidean. Liburu oni Euskal-Gramatika deritzagu, baiñan zorigaitzoz euskera batasunik gabeko izkuntza dugu. Eta ori lortu nai diote batzuek iraultza bidez; besteek aldaketaz... Guztiok euskera obe bat nai gendukeala ez dago zalantzarik. Nolatan ordea?...

*
* *
*

P. Lafitte'k, beti zuhurtzearen aginduen arabera, bere errialdeko lapurtar-benapartar euskara autatu zuan Gramatika osatzeko.

Lenagotik «*Eskualduna*» kazetak, «*Gure Herria*» aldizkariak eta Abbadie, Barbier eta Etxepare idazleek erabillitako izkuntza ulerterreza. Auek artu zituan ereduztat, gero batasun gehiagora joateko asmoz.

Geroztik bide ortan aurrerapenak egin dirala aitor liteke, baiñan Lafitte'k borroka ta eztabaida sortu diranean betiko zuhurtzea erakutsi digu. Eskual Erriaren biotzean sortua, aren barne-muñetatik edoskia, sorlekuari zor dio euskal sena. Urrengo urte ta urtetako ikasketak emandiotte neurri gabeko jakituria: Oihenart, Larramendi, Van Eys, Intxauspe, Duvoisin, Vinson, Schuhardt, Azkue, Eleizalde, Campion, Altube, Ormaetxea, Zamarripa. ¡Nik al dakit zenbat geiago! Euskaltzale jakintsu guztiak aztertu ta ezagutu dituala, dana esanik dago.

Guztioi ematen die exkeron, alaber bere burua salatuz iñoiz utsegin baldin ba'du. ¿Zer geiago esan dezaket P. Lafitte'ren omenez? Bego ortan. Ez bait naiz nor ikepen sakonagoa egiteko. Atsegin zait gure adiskidetasuna oroitzeko. Ba-da gutxienez 50 urte elkar ezagutu genduela. Gazterik asi nintzan «*Eskualtzale-Biltzarra*»-ren urteroko jai egunera joaten I Lopez-Mendizabal, J. Eizagirre tolosarren laguntasunez. An agertu zitzauzkidan Oxobi, Antxuberro, Dassance, Apaztegi, Barbier, Jauregiberry, orduko euskaltzale argituenak eta suharrenak. Laister gallentzen asi zan Piarres Lafitte luhossotar gaztea... Ez zuala geroztik astirik gal emen lerroz-lerro aipatzen ditudan lanak dira erakusgarri: «*Egiatzko Argia*» (Teatroa), «*Koblakarien legea*», «*Eskualdunen Loretegia*»; «*Orratza*»; «*Ebanjelio Txikia*» Georges Lacombe; «*Hazilla*»; «*Hil bizia*» «*Atlantik-Pyreeneta'ko siniste zaharrak*» eta ezin kontalako lanak Gure «*Herria ta Herria*» aldizkarietan guztiak euskeraz. Euskal gaiz baiñan prantzesez emanak: «*Les Etudes Basque a travers les siècles, Le Basque eta la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule,*» «*L'art poétique basque de Arnaud d'Oihenart*»; eta besteak beste goraxeago aipatutako «*GRAMMAIRE BASQUE*» eta ahantzi ez daitezken biografi bikañaz: Heguy Apeza, Adema, Barbier eta azkenik Salvat Monho olerkariei opa zizkienak.

Bazterrean utzi ditudanak barkakizun bezaizkit! Lafitte'ren izena altxatzeko añakoak esango ote nituan eta goazen antziña! Aurrera bai!

*
* * *

Ez litzake aski, ez bidezko, bertan gelditzea. Ez ezen Lafitte jaunak egingako lanik goitu ta gottorrena Uztaritze'ko Ikastetxean beteta koa izan bide da: irakasle arloan. Urte askoren buruan zenbat ikasle gazte eskolatu dituan berak bakarrik daki. Mutil andana, multso izugarriak arengandik ikasia dute gizon izaten erlijio ta kulturaz jantzirik.

Au izanen zaio, behar bada, zerurako irabazi duan merezimendurik aundiena. Au esanik eta nere erausi murriz eta legorra zertxobat alaitzearren «ixtorio» bitxi bat kontako dizuet irriño poxi bat egin dezazuten.

1939 urtean bizi giñan. Onako onek bere seme nagusia Urriaren lenengo egunean Ustaritze'ko ikastetxean ikasle sartu zuan. Orretarako Sara'n bizi giñan etxaldetik abiatuta-erdikarro, erdi orga baten gañean Ustaritzera't illuntzerako iritxi behar genduen. Orga-gidari ta ubeletik zaldi-ar, «garañoi», eder bat eutsiaz gure auzoko Paskal laborari zintzoa genduan. Arro ta «fier» zan bere zaldiaz... Pattar asko jettxi ta igoaz, Sempere gibelean utzirik, oihanetik barne Ustaritzera eldu giñan. Ordurako erri ta toki askotatik etorrita ikastetxeko mendixka ura orga-karroz beterik zegon laborari semeek ekarritakoak. Ba zan an kalapita, mutillen ohiu, zaldi ta behorren irrintzi ta abar. Gure zaldi eder garanoia ez ote zan berotu ango behor igel izatez, nago.

Semea an utzirik eta Lafitte jaunari agur egiñez etxeruntz abiatu giñan. Paskal gure zaldizai prestuak arduraz andik irten nai zuan. Bere garañoi zaldi betroi ederra maite zuan ea familia aña.

Arin arin bazterrak kurrutuz bide ta bidexkak atzean uzten joan gintzaitzun, baiñan arras illunduta gero Ustaritze ta behaldea gibelean utziaz sartu giñan Sempere'ko oihanean. Gaua beltza zan. Alako batean bide-bide ginjuazelarik Paskalek bat batean geldi arazi zuan orga.

Antziñako oiturei atxikitzen zuan gizon sinisbera genduan Paskal... Zertarako geldi arazi zuan galdegin nionean begitarte izutuz erantzun zidan: Ez al duzu ikusten or sayetsean «*behi gorria*» gaiztoz guri begira dagoana?. Ez daukagu antziña jarratzerik! Nik ez nuan deus ikusten, ta luzaroan egon giñan geldi. Azkenik neuk zigorraz zaldia joaz abia bitartean... Ez dago esan beharrik Sara'ko etxera berandu eldu giñala, baiñan noizpati iritxi giñan alare! Gure zai zeuden etxekoandreak eta beldur ez ote zitzaigun bidean okerren bat gerta... Ez naski!.

Arrats apal artan utzi nuen nere seme Erramon beste mutiko euskaldunen artean Lafitt'eren eskuetan. Ez dut damurik!

Agian norbaitek maxiatuko nau Lafitte'ren izena ta izana ez ote naizen sobera aiza ta goresten ari... Ez sobera ta ez geihegi, zuzen baizik... Otoi barka! azkenik asper ez zaitezen esatera noakizute, azkenik, noiz eta nola oraintsu elkarri diosala egin genion. Ez zan ahantzteko parada izan, 1981 Otsasillean ain zuzen. Egun otz eta euritsu. España'ko Errege-Eregiña - Juan Karlos-Sofia jaun-andreak, Eskual Errian ziran. Kultura-gizon batzu Azkoitia'ko errira deituak izan giñan, «Insausti Jauregi Peñaflorida konde izan zanaren jaitxera. Espaiña'ko agintari nagusienai arrera eta ongi etorria egin behar zitzaien, Eskual-Erria bixitatxen zebiltzalarik. Giza-legeak eta politikak eskatzen zuan euskal buruzagiak an agertzea; ez uzkur egitea. Orra zergatik an bildu giñan omen agurra Erregin-Errege'ri egitera, euskaldungoaren izenean. Lafitte'ek ez zezakean utsik egin. Zorionez ara eraman zuan adiskide min bat: Salaberry

kalonjea. ¡A zer nolako bikotea! Zori gaiztoz andik illabete gutxira Heleta'ko seme bipilla uste gabean il zitzaigun. Galera izugarria gure kultura umezurtz utzi duana. Dolu-min aundia Eskual Erria'rentzat. Beharrik Lafitte adiskidea gelditzen zaigu. Biak dira XX mende ontan eskual kulturaren gallurak, Baigura mendia Benaparroan, eta Mondarrain Lapurdi'n antzeko.

Gazteek behar luteke jarrai aien ildotik. Salaberri'k «*Ene Sinistea*» bere liburu sakon eta mamitsuan dionez: «*iñoiz zaharrok gasteen esanera makurtu behar dute; baiñan, geienetan zaharrak izan bide ditugu aholkari... J. B. Dirassar ikasleak ontsa errepikatu dio: «gazte kiña izan zira». «Orrek erran nahi du gerotiarra, biharkoaz oroitzen dana, baiñan atzokoa aztu gabe eta egunean egunekoaz axolatuz».*

Alakoxea gendun Salaberry filosofo ta euskeltzale goitarra.

Orain Lafitte'k ondarea jasotzen du eta ez du beñere lanak ikaratu. Betidanik eremu idorrenak landu ditu; galtzen ari zaigun mintzaira sustatzen ari da. Beti dago gertu laguntza emateko gure erriaren bizia luza dezagun eta eskual kulturaren zuloak estali. An Ustaritze'ko ikastetxearen mendixka doatusan giro paketsu eta liburutegi aberatsaren artean Jainkoa'k eman dezaiola aniz urtez adore eta osasun betea. Nik amaitzeko eta omonez adiskide maiteari biotz-biotzez igortzen diot goraizti.

EUSKAL DEPARTAMENDUARI BEGIRA: KANTONAMENDU UGARITZE ETA ESKUALDEKATZEAREN ELKAR EGOKITZEAZ

Jose Luis LIZUNDIA

Eskualdekatze gaia aspalditik tratatu dut eta oraintxe bertan Mendebaleko hiru herrialdeetan, hots, Euskal Komunitate Autonomokoan eskualdekatze instituzionalizatzea hasi beharrean gara, zeren eta Estatutuaren 37. artikulua araberan Batzar Nagusiak eskualdeka hautatu eta antolatu behar baitira.

Iparraldekoa ere inoiz ukitu dugu, baina egun frantses sozialistek agindutako departamenduari begira arituko naiz, bide batez Kantonamendu antolakizuna kontutan harturik.

Departamendua oso komenigarri zaiola Ipar Euskal Herriari ene ustez frantses zentralistek edota euskaldun alienatu frantsestak bakarrik uka dezakete. Egia da zoritxarrez abertzale (omen) radikal batzuek ere arbuiazten dutela, konpreni gaitza bada ere, eta hauetaz irakurri ditugu zenbait eritzi bitxi. Hauentzat eta denontzat oraintsu irakurri berri dudan liburu baten pasarte bat jarriko dut hemen, arras interesgarri bai da¹:

«El de consolidación de los elementos objetivos de la regionalidad por efecto de su permanencia como entidad administrativa. El hecho de que Asturias haya constituido y siga constituyendo un ente administrativo (primero un Principado, con su peculiaridad administrativa; más tarde una provincia) supone un *permanente reforzamiento y consolidación* de los componentes objetivos. Incluso en la actualidad, en que padecemos las consecuencias de un centralismo tal vez sin precedentes, la circunstancia de que Asturias sea un recinto administrativo regional y provincial, origina que la política que le afecta siga haciéndose, en alguna forma, a la medida de la región, en

1. Pedro de Silva C. Jovellanos, *El Regionalismo Asturiano*, Ayala Ediciones, Salinas - Asturias, 1976.

aspectos tan decisivos para la consolidación del hecho regional como las obras de infraestructura, las comunicaciones, el urbanismo, la política turística (o falta de política turística), la educación, etc., pues todo ello contribuye a reforzar aún más el recinto regional. Es incuestionable que si Asturias hubiera sido desmembrada o mutilada en el momento de la división administrativa provincial, o agrupada a otras regiones, la caracterización regional habría perdido vigor, o, por lo menos, vigencia. El hecho administrativo, en consecuencia, ni es inocente ni irrelevante, pues no lo son sus consecuencias: las carreteras, los planes provinciales de urbanismo o los polos de desarrollo industrial que se realizan en función de aquel hecho administrativo, por poner sólo algunos ejemplos».

Silva jaun hau Sozialisten Taldeko da Espainiako Parlamentuan Asturiasko herrialdetik, eta berak «provincia» edo «región» erabiltzen duenean Iparraldekoek «departament» erabil dezatela eta balio berdintsua du. Gure ustetan euskal deparamendua kondizio asegarria ez dela bistan dago, baina ez dugu dudarik nahitaezkoa dela.

Eta aintzin solasaren ondotik, goazen egungo gaira:

Herrialde historikoen mugak errespetatzeaz

Ene iduriko herrialde edo probintzia historikoen mugak ahal delarik errespetatu behar dira. Beren nortasuna ezin da muga administratiboen bidez nahas. Horrela egingo bagenu, egun Frantziako eremuetan —baita Espainikoe-tan ere bai— maiz gertatzen denari arrazoia emango genioke, alegia, adminis-tral eremu batetan bi herrialde nahasi. Adibiderik hurbiletariko bat bertan dugu, Zuberoa eta Biarno Garaia «arrondissement» berean sarturik.

Horregatik bada, Donamartiri, Donastiri eta Mehaine herriek Hazpar-neko kantonamendutik kendu behar dira eta Nafarroa Behereko kantonamendu batetan sar. Era berean Lohitzüne - Oihergi, Etxarri, Arüe - Ithorrotze Olhaibi, Domintxine - Berrueta eta Ozeraiñe - Erribareita eta agian Phagola, Donapaleuko kantonamendutik atera eta Zuberoakoren batetara pasa.

Bardoze eta Gixune lapurtarrak izanik Agramondarren Domeinukoak, hots, Bidaxune eskualde berezi hortakoak ere ba ziren. Beraz eta nola Bidaxuneko berbereko kantonamendukoak diren aspalditik, agian, kantonamendu hau gorde behar denetik eta txikia da bestalde, hor utziko genituzke salbuespen bakar gisa. Gainera Lapurditik bi herri horiek galdu arren, Bokale herria gotorra eta Baionaren Aturri haraindiko alderdia hartzen ditu, lehen Lapurdi ez zirenak.

Zuberoako eskualdekatze eta kantonamendu egokitzeaz

Zuberoak historikoki hiru eskualde izan dituena jakina da: Basabüria, Arbailla eta Pettara. Egun bi kantonamendu eta erdi ditu, Atharratze, Maule eta Donapaleuko zati bat.

Ene iduriko, hiru kantonamendu eskatzea litzateke intesgarria. Batak, Basabürriako herriak harturik, eta noski Atharratze kantonamendu edo eskualde buru. Bi komuna edo udal galdu beharko lituzke, Arbaillakoak direlako eta hirugarren kantonamendua posibilitatzeko: Ozaze-Zühara eta Zalgize - Doneztebe. Beraz 14 komuna edo udal.

Bigarren, Maule hiri librea buru harturik Arbaillako herriekin osatuko litzateke, historikoki, nahiz eta aldrebes, Basabürriko zen Barkoxe ere sarturik. Beraz, Ozaze - Zühara eta Zalgize - Doneztebez gain, Altzürükü, Mendikota, Idauze - Mendi, Arrokiaga, Barkoxe, Gotañe - Irabarne, Urdiñarbe, Muskildi, Garindañe eta Maule - Lextarre. Guztira hamabi udal edo komuna.

Hirugarrena, Pettara eskualdeaz osatuko litzateke. Beraz, Donapauetik ateratako sei herriekin eta beste hauekin: Aiñharbe, Sarrikota - pia, Urrüxtoi Larrabile, Ezpeize - Undüreñe, Bildoze - Onizepia eta Sohüta. Guztira hamabi herri. Zein jarri kantonamendu buru, gehienak herri tipiak baidira? Agian Sarrikota - pia, txikia izanik ere komunikabideen eta geografiaren aldetik -Ospitalepia eskuin mutur, Domintxine - Berrueta ezker- erdian baitago. Dena dela, hautatzen den eskualde burua, nolabait potentziatu beharra legoke, nahiz eta zoritxarrez Maule eta Atharratze ere honen faltan egon.

Nafarroa Behereko kantonamendu eta eskualde

Herrialde historiko honetan kontutan izan behar ditugu, alde batetik «pays» edo baleak eta bestalde egungo kantonamenduak. Merkatu hiri edo hiriska ezagunak ditugu dudarik gabe: Donibane - Garazi, Baigorri, Donapaleu eta Bidaxune. Katalanak bere Errepublikara garaian egin zuten eskualdek atzean «Plá de comarcaltzació de Catalunya» delakoan bere erreferentziarik inportanteenetarikoa «vila - mercat» izatea zen eta bere influentzi eremua.

Beraz, Donibane - Garaziko kantonamendua dagoen dagoenean utziko nuke, gehienik ere Suhuskune sartuaz garaztarra delako, beti izan ez bada ere. Garaziko Herria, «Pays de Cize»k, egun ere badu batasun bat, sindikatoa ere hor dago.

Era berean Baigorriko kantonamendua, Baigorriko eta Orzaizeko baleak osaturik.

Hirugarrena ere argi dagoela esango nuke, alegia Donapaleuko kantonamendua eta Amikuzeko eskualdea. «Pays de Mixe»ko eskualde historikoa, egun ere bere sindikatoa duena hartuko luke soil - soilik, zuberotar diren bost komunak, lehen esan bezala, galdurik, bereak ez bai dira.

Bidaxuneko kantonamendua, behinolako «Domaines de Gramont» nafar jauntxuaren eskualdeaz osatuko litzateke, herri hauekin bederen: Erango, Burgue - Erreiti, Akamarre, Bidaxune, Gixune, Bardoze, Samatze. Ezkoze,

St. -Pé - de - Leren eta Leren ere feudal barruti horretakoak ziren, baina egungo kantonamendukoak ez direnetik, ez dira «euskal departamendu» rako bezada jartzen zorigaitzez. Agian Bastida - xarre, St. -Dos eta Auterrive ere ez ote ziren horkoak? -geografikoki badirudi-. Agramontar nafar jaun feudal honen eskualde honek mereziko luke azterketa sakon bat, Euskal Herria, Gaskoina eta Biarnoren muga politikoen finkatzerako lagungarri izango bai litzateke. Dena dela, oraingoz kantonamendu ha ukitu gabe utziko dugu, dagoen dagoenean.

Problemarik gaitzenak Iholdi eta Bastidako kantonamenduak sortzen dituzte: herri handirik ez, egungo kantonamendu bururak indarririk ez, Iholdi ez da merkatu herria ere. Bastida basterregi dago, eta kaskoinak populatuak izatetik aparte, Ahurti eta Beskoitze lapurtarrak galtzen baditu, lehen baino ahulagoa gelditzen da. Zer egin beraz Arbela eta Ostibarren eskualdeekin?

Ene ustetan, bi alternatiba daude: Bata, bi kantonamendu egitea, baina «chef - lieu» edo buruak aldatu. Arbela eskualdearen kantonamenduak herri hauek hartuko litzuzke, Iparretik Hegora: Bastida (hiri berezia bazen ere, Arbelako lurretan sortua), Aiherra, Isturitze, Mehaine, Donamartiri, Donostiri (hiru hauek orain arte Hazparne kantonamendukoak), Heleta, Armendaritze, Iholdi eta Irisarri. Azken hiru hauek, gero bereiztu ba ziren ere, Arbelakoak izanak ziren, baita elizaz ere. Guztira, hamar herri eta Suhuskune sarturik hamaika, kantonamendu buru zein ordea? Historikoki Donamartiri zen Arbelako hiriburu, baina herri txipiegia, nahiz eta erdian egon. Heleta izan daiteke agian, zeren eta merkatu eta feri herria ere baita. Ostibarrekoa eskualdeak udal edo komuna hauek hartuko litzuzke: Landibarre (azken historian ez bazen ere, Ostibarrekoa izana, eta bakarrik egun justifikaziorik ez duena), Izura - Azme, Larzabale Arroze - Zibitze, Arhantsusi, Jutsi, Bunuze, Ibarla, Hozta eta Donaixti - Ibarre. Beste bederatzi herri beraz. Hemen bizilangunez ez bada ere, erdiren eta komunikabideen ongien hedatua delako, Larzabale izan beharko luke kantonamendu buru.

Bi kantonamendu egitea alternatiba politagoa izanik ere, ba du alderdi eskas bat, bizilagun gutxi. Arbelak 5118 bakarrik eta Ostibarrek 2032. Orduan, beste alternatiba pentsatu beharra dago: biekin kantonamendu bakarra egitea, eta Iholdi erdiren dagoelako buru jarrita, orain baino bost herri gehiagorekin. Kasu honetan, Bastida baster eta urrun gelditzen baita eta agian Bidaxuneko kantonamendura pasa.

Lapurdin, eskualdeak eta kantonamenduak ez beti bat

Beste bi herrialdeetan eskualde eta kantonamenduak elkarrekin eramaten saiatu gara. Lapurdin ordea eskualde batek kantonamendu bat baino gehiago izango ditu askotan, baina beti ere zatitu gabe.

Ene iduriko kantonamendu eta eskualdeak gauza berberak izan daitezke Ezpeleta, Uztaritze eta Hazparneko kantonamenduetan. Besteak, gero aztertuko ditugu.

Lapurdi Garaia deituko genioke Ezpeleta buru den eskualdeari, zeren eta goialdeko herriak hartzen bai ditu, alegia egun kantonamendu hau osotzen duten zazpi udal edo komuna.

Herrialde honen erdialdea hartzen duen eskualdeari, euskal konposaketa jatorrari jarraiturik, Erlapurdi deituko genioke, kantonamendu buru orain arte bezala Uztaritze utziaz, bera baita, bestalde, Lapurdiren biltzar hiri eta bihotz. Zortzi herri izan dira oraintsurarte kantonamendu honetakoak, baina aldaketa bi izan ditu: Basusarri eta Arrangoitze erantsi eta Milafranga kendu. Gure ustez, eranskinak ongi daude eta bego hortan, biak Uzteritzek mugakide bai ditu, baina Milafranga kendu gabe, hau ere mugakide baitu eta Baionak ez du hain beharrezko.

Hazparneko kantonamenduak hiru herri galtzen ditu baxenafarrak direlakotz: Mehaine, Donamartiri eta Donostiri eta ordainez, bi bederen hartuko: Beskoitze eta Ahurti, Hazparneren mugakide gainera. Behar izanik Urketa ere sartuko litzateke kantonamendu horretan? Eta Lapurdi historikoa osorik hartzerakoan Bardoze eta Gixune ere bertan sartu beharra egongo litzateke. Hazparne, herri gotorra, eta baita merkatu hiri ere, izango litzateke Lapurdiko Ekialdea hartuko luken eskualdearen buru.

Lehen Donibane - Lohizune kantonamendu bakarra osatzen zuten 8 herriek, orain bitan banaturik daude, Hendaia beste zatiaren buru izanik. Ene iduriko horrela jarraitzea litzateke bidezkoena, Lapurdiko kostak² edo Itsasedia eskualde deiturik, baina populazionerearen arabera bi kantonamendutan.

B. A. B. deitzen den aglomeraziona utzi dugu azkenerako. Hemen oker ez bagaude kantonamendu hauek ditugu: Baiona - Ekialdea, Baiona, Iparraldea, Miarritze, Angelu eta Hiriburua. Ene iduriko eta Milafranga Uztaritzeri itzalirik, eskualde bakar bat -zenbat kantonamendu eta nola ez du inporta, populazio banaketak esango du- osatu behar lukete herrialde honen beheko partea harturik eta «B. A. B.» izen arrotz eta aldebreza utzirik Lapurdi Beherea edo Basse Labourd hartu. Lapurdi mendez mendetako izena berreskuratuko beharra dago.

2. Lapurdiko kostak edo Itsasedia deitu behar zaio, zeren eta Lapurdi izena galtzeko arriskuan baitago, Arriskuak: 1) Iparraldekoek berek, kazetetatik, eta batez ere irratietatik, Euskal Herriko kostak edo itsasedia esateko ohitura gaiztoa hartu dute, ahantzirik ba direla Guipuzkoan bederatzi kostak herri eta Bizkaian hogeitabi. 2) Hegoaldean, aldrebesko ohitura gaizto berberarekin zenbait Aurrezki kutxa, eta bestek, bere bidaiak antolatzerakoan «Iparraldera osterak», «Excursión a Euskadi Norte» iragartzen dute, nahiz eta lapurtar herriak bakarrik ikus. Ez «Excursión a Laburdi», «Lapurdira osterak» izango da. 3) Arrantzaleen arazoetan ere -eta nik, apropos zuzendu nuen okerra «Alfabetatzen» liburuan- «Iparraldeko arrantzaleak» agertzen da barra - barra, nunbait Zuberoan itsasoa balego bezala. Ez, kostadun euskal herrialdeak hiru direla aldarrikatu behar dugu: Bizkaia, Guipuzkoa eta *Lapurdi*.

ADDENDA

Lapurdi Beherea

I	II
1. Baiona 42.992	1. Miarritze 26.643
III	V
(Baiona-Iparraldeko kantonamendua)	Hiriburuko kantonamendua
1. Bokale 6.224	1. Hiriburu 3.164
	2. Lehuntze 1.124
	3. Mugerre 2.286
	4. Urketa? 1.329
	7.903
IV	
1. Angelu 30.409	

* * *

Erlapurdi (Uztaritzeko kantonamendua)

1. Ahetze 869
2. Arbona 1.198
3. Arrangoitze 890
4. Basusarri 2.183
5. Haltsu 376
6. Jatsu 529
7. Larresoro 1.057
8. Milafranga 1.375
9. Senpere 3.046
10. Uztaritze 3.814
15.337

Lapurdi-Ekialdea (Hazparneko kantonamendua)

1. Ahurti 1.119
2. Beskoitze 1.413
3. Hazparne 5.615
4. Lekorne 722
5. Lekuine 200
6. Makea 463
7. Urketa? 1.329
10.861

Lapurdi Garaia (Ezpeletako kantonamendua)

1. Ainhoa 544
2. Ezpeleta 1.411
3. Itsasu 1.297
4. Kanbo 5.041
5. Luhuso 508
6. Sara 1.966
7. Zuraide 777
11.544

Lapurdi Itsasegia

I

Donibane-Lohizuneko kantonamendua

1. Azkaine 2.159
2. Bidarte 3.060
3. Getaria 1.041
4. Donibane-Lohizune 12.914
19.174

II

Hendaiaiko kantonamendua

1. Biriatu 594
2. Hendaia 11.133
3. Urruña 4.929
4. Ziburu 6.204
22.860

OROTARA:

Baionako kantonamendua	42.992	bizilagun	
Miarritzeko kantonamendua	26.643	»	
Baiona-Iparraldeko kantonamendua	6.224	»	
Hiriburuko kantonamendua	8.103	»	
Angeluko kantonamendua	30.409	»	
<i>Lapurdi Beherea</i>	114.371	»	114.371 bizilagun
<i>Erlapurdi</i>			15.337 »
<i>Lapurdi-Ekialdea</i>			10.861 »
<i>Lapurdi Garaia</i>			11.544 »
Donibane-Lohizuneko kantonamendua ...	19.174	»	
Hendaiako kantonamendua	22.860	»	
<i>Lapurdi-Itsasegia</i>	42.034	»	42.034 »
			<hr/> 194.147 »
- Urketa: errepikatua			1.329 »
			<hr/> 192.818 »
Guztira Lapurdik			

NAFARROAKO BEHEREKO eskualde eta kantonamenduak

<i>Baigorri</i> (Baigorriko kantonamendua)		<i>Agramont-Domeinuak</i> (Agramontarrena) (Bidaxuneko kantonamendua)	
1. Aldude	486	1. Akamarre	729
2. Anhauze	274	2. Bardoze	1.109
3. Arrosa	479	3. Bidaxune	1.015
4. Azkarate	294	4. Burgue-Erreiti	142
5. Baigorri	1.691	5. Erango	122
6. Banka	481	6. Gixune	638
7. Bidarraia	629	7. Samatze	424
8. Irulegi	233		
9. Lasa	297		<hr/> 4.179
10. Orzaize	678		
11. Urepele	450		
	<hr/> 5.992		

Garazi

(Donibane-Garaziko kantonamendua)

1. Ainhize-Monjolose	179
2. Aintzila	113
3. Ahatza-Altzieta-Bazka- zane	265
4. Arnegi	337
5. Behorlegi	91
6. Buztintze-Iriberrri	106
7. Donazaharre	904
8. Donibane-Garazi	1.773
9. Duzunaritze-Sarrasketa	190
10. Eiheralarre	299
11. Ezterenzubi	473
12. Gamarte	113
13. Izpura	670
14. Jatsu	181
15. Lakarra	108
16. Lekunberri	215
17. Mendibe	226
18. Uharte-Garazi	563
19. Zaro	134
	<hr/>
	6.940

Amikuze (Donapaleuko kantonamen-
dua)

1. Aiziritze	531
2. Amenduzue-Unaso	327
3. Amorotze-Zokotze	265
4. Arberatze-Zilhekoa	198
5. Arboti-Zohota	289
6. Arruta-Sarrikota-Ami- kuze	376
7. Behaskane-Laphizketa	435
8. Behauze	294
9. Donapaleu	2.203
10. Gabadi	224
11. Garruze	200
12. Ilharre	158
13. Labetze-Bizkai	225
14. Larribarre-Sorhapürü	228
15. Lukuze-Altzumarta	253
16. Martxuta	265
17. Mithiriña	451
18. Oragarre	484
19. Ostankoa	90
20. Uharte-hiri	209
	<hr/>
	7.705

Arbela (bi eskualde, kantonamendu bi
ala bat?)

1. Aiherra	812
2. Armendaritze	386
3. Bastida	759
4. Donamartiri	284
5. Donostiri	420
6. Heleta	573
7. Iholdi	506
8. Irisarri	753
9. Isturitze	321
10. Mehaine	304
11. Suhuskune	194
	<hr/>
	5.312

Ostibarre

1. Arhantsusi	97
2. Bunuze	162
3. Donaixti-Ibarre	345
4. Hozta	122
5. Ibarla	91
6. Irura-Azme	235
7. Jutsi	230
8. Landibarre	326
9. Larzabale-Arroze-Zibi- tze	424
	<hr/>
	2.032

OROTARA:

Baigorri	5.992	bizilagun
Agramont-Domei- nuak	4.179	»
Garazi	6.940	»
Amikuze	7.705	»
Arbela	5.312	»
Ostibarre	2.032	»
	<hr/>	
	32.160	»

ZUBEROAko eskualde eta kantonamenduak

Basaburia

(Atharratzeko kantonamendua)

1.	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	283
2.	Aloze-Ziboze-Omizegañia	316
3.	Atharratze-Sorholüze ...	787
4.	Etxebarre	93
5.	Gamere-Zihiga	133
6.	Hauze	119
7.	Iruri	145
8.	Lakarri-Arhane-Sarrikotagañia	136
9.	Larrañe	298
10.	Lexantzü-Zünharre	83
11.	Ligi-Atherei	250
12.	Liginaga-Astue	171
13.	Muntori	371
14.	Santa-Grazi	391

3.576

Maule-Arbailla

(Mauleko kantonamendua)

1.	Arrokiaga	150
2.	Altzürükü	293
3.	Barkoxe	916
4.	Garindañe	647
5.	Gotañe-Irabarne	444
6.	Idauze-Mendi	227
7.	Maule-Lextarre	4.300
8.	Mendikota	232
9.	Muskildi	289
10.	Urdiñarbe	584
11.	Ozaze-Zühara	71
12.	Zalgize-Donztebe	190

8.343

Pettara

1.	Aiñharbe	181
2.	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi.	249
3.	Bildoze-Onize pia	911
4.	Domintxine-Berrueta ..	512
5.	Etxarri	182
6.	Ezpeize-Ündüreñe	502
7.	Jeztaze	85
8.	Lohintzüne-Oihergi	227
9.	Ozeraiñe-Erribareita ...	257
10.	Sarrikota-pia	296
11.	Sohüta	1.172
12.	Urrüxtoi-Larrabile	131
13.	Phagola?	298

5.003

OROTARA:

Basaburia	3.576	bizilagun
Maule-Arbailla	8.343	»
Pettara	5.003	»
	<hr/>	
	16.922	»

P. LAFITTE EUSKAL OLERKARI

Aita ONAINDIA

Asko ez dalarik, -1982-V-27 an-, omenaldi biozkor bat, aurrerago ospatu bear zana ziurrik, egin zan Leioa-ko Euskal Ikastetxe Nagusian, lau gizaseme buru-jantzi ta jakituri aundiko goratu ta balio bikaiñekotzat munduaren aurrean miretsi azoaz. Napartar bi, Jose Mari Lakarra ta Manuel Iruxo, ta ustarihtar bi Eugene Goienetxe ta Pierre Lafitte genduzan gizaseme gurenok.

Laurok, an esan zanez, «aurreragoko euskal berbizkundera bizi-azo ta indartu eben irudi geraiak ixetu eben zuziari eutsi eutsonen belaunaldikoak». Laurok izan genduzan egun orretan, zor zana ordainduz, Leioa-ko Ikasguan «honoris causa»-ko Doktor edo Maisu tituluz orniduak. Karlos Garaikoetxea Lendakariak ederto: «Zuok erakutsi dauskuzue bidea eta eskerka urturik gagoz».

Bizitz-atalak.—Besteak beste, gu P. Lafitte kalonjeari gagokioz. Labur bederen, aril dagigun zertxobait ari buruz. Lapurdi-n jaiot zan, Luhosoa erritxoan 1901-V-21 an. Leen-ikaskizunak Itorrotz, Beloke ta Baiona-ko seminarioan osatu ondoren, bertako katedralean artu eban apaizgoa 1924-VII-13 an. Geroago be, urte bitan beintzat, Tolosa-ko Ikasguan jarraitu eban ikasten. Ementxe euskal-zaletu be egin yakun, antza; Leioa-n maisu-titulua artu ebanean beintzat, onela eskertzen ditu ango irakasle ta besteak. «Gogoan dut -diño- oroz lehen Mgr. Saint-Pierre, euskararen ikasterat bildu ninduena. Ez zaizkit ahanzten ere Tolosako hizkuntzalari unibersitarioak, Anglade, Magnin, Dufréchou. Are gutiago ene sustatzale Lacombe, Gavel, Dassance euskalzaleak, eta liburukintzan lankide suhar ukan ditudan Aranart, Lassalle, Tournier, Etchamendy, eta nola ez aipa kazetagitntzan lauzkatu nauten hainbertze idazle eta berrikerari?» (*Herria*, 1982-ko ekainaren 10-koa).

Ustarihtar-ko seminario txikian irakasle izentatu eben 1926 an; arrezkero guztian, ortxe, zintzo ta errime, ekin dautso bere irakas-lanari. Letretan lizenziatu zan 1928 an. Euskal arloan lazkatua, ementxe sortu ta zuzendu

euskun «Antzina» illerokoa, 1934 tik 1937 rarte. 1944 an munduko bigarren gudu-goraberak amaitu ziranean, «Herria» asterokoa erne-azo eban, 1967 raño zuzendu be berak egindakoa. 1953 tik euskaltzain osoa dogu, eta 1961 tik Baiona-ko katedralean deduzko kalonje.

Nik, neure «Euskal Literatura»-n (V), gizaseme erne onen bizitz-barri emotea osotzean, onela idatzi neban: «Ementxe daukagu –Ustaritze-n noski-gaur ere, liburu zar eta berriz, bertso-paper zar eta berriz inguraturik, euskal lanari gogoz ekiñaz. Eragille ere izan da. Ezta errez zenbatzea egiñak ditun ainbat eta ainbat mintzaldi; eta eguneroko, asteroko ta agerkarietan azaldu dizkigun lanak, argitara dituen liburuak, idatzi ditun artikuluak ... Bizitza osoa, nunbait, euskera ta euskaldunaren zerbitzuan».

Nire lana.—Euskaltzaindiak laster eskiñiko dautson omenaldirako eskatu dausten lan kaxkar onek, zati bi izango ditu: Lenengo, P. Lafitte *kopla-legendari* eta bigarren, P. Lafitte *euskal olerkari*. Aspaldidanik daukadaz esku artean bere liburuxka bi, berak gaztetan argitara emonak, gitxi ezagutzen ditunak: «Koblakarien Legea» eta «Ithurralden kantuak», biak, bigarrena 1932 an eta lenengoa 1935 an Baiona-n argitaratuak. Liburu biok aztertuko ditut, naiz-ta azal samarretik, geiegi luzatu bage.

P. Lafitte ez da egundo be nagiarri emona bizi izan, euskal alorrean berariz. Asko idatzi dau euskal literaturan. Orrez gaiñ ez dau gitxi argitaratu, zar eta barri, –«Herria»-n batez be– euskal olerteriari buruz. Baiña, nik dakidanez, olerkiz gaztetako liburu bat emon dausku bakar-bakarrik.

Olerkari ta bertsolarietikiko lanak, ostera, aztertu ta argitara emon askotxo egin dauskuz. Ona batzuk: 1) *Eskualdunen Loretegia*, 1931, 133 orrialde; 2) *Ithurralden kantuak*, 1932, 64 orrialde; 3) *koblakarien legea*, 1935, Baiona-ko «Gure Herria»n aurretik emondako lanaren separata; 4) *Bernardo Gazteluzar olerkaria*, 1974, «Gure Herria»-n; 5) M. le chanoine Gratien Adéma (1828 - 1907). M. l'abbé Jean Barbier (1875 - 1931), Baiona-ko Apaiztegia emondako itzaldia; 6) *Kantuz*, kanta sail ederra; 7) *Poèmes basques de Salvat Monho*, 200 orrialde, 51 poema, itzuli ta oarrez orniduta. «Gure Herria»-n baditu oraindiño beste lan oneik be: «Un inédit d'Arnaud d'Oyhénart: L'Art poétique basque», 1967; «Copiage bio-bibliographique autour de poète Jean d'Etcheverry», 1968; «Salvar Monho, poète basque», 1970, eta abar.

P. Lafittek, beraz, beti nabari izan dau bere baitan euskal olerki ta olerkarien urduri-kezka.

Gizonaren eder-griña.—Ederrak beti kezkarazi dau gizona. Baita edesti-aurretik be. Zer adierazo nai dausku arte-lan batek? Giza-gogoera ta sentikortasunaren zelanbaiteko artezpena. Au ostera beti da, gitxi-asko, ederrari buruzko jarduna. Leenengo gizaseme «jakintsu» arek be ba-eban arako zentzuna, sen berezia, kolore ta mukuluz abere larrantzak margoztean, adibidez; eta margolari arein elburua, leenik beintzat onurakorra izanik be,

ederraren esan-naia zelan edo alan adierazo ta argitzea izan zala, esan daikegu; zurean aurrenik, arri landu-gabean gero ta metalean geroago, ots, bearrezko zituan lanabesetan; zurean, arrian, azurrean, eizarako naiz arrantzurako bear zituan tresnetan bere eder-senaren apurrak itxi ebazan leen-gizonak.

Eta zuek jarkiko: tramankulu orreik ez dira arte-lan. Ez eta bai. Egillea, dalakoa dala dagian lana, alik edertoen osatzen alegintzen yaku: are bat, aitzur bat, arpoi bat, eizarako naiz jolaserako izkillu bat; ikus, esaterako, Eibar-ko Sarasketa-ren eskopeta bat. Olako asko ez al dituzu guztiz antzetsu egiñak? Tresna orreik, berez praktikotasunera zuzenduak izanda be, or ez dagoela arterik, estetika-rik esango ba'gendu, ez genduke egia osorik autortuko. Gai orreitan gizonak interesa baiño zerbait geiago dana jarten dauala esatea ez da pellokeria bat botatea. Or bada, bai, gizonak bere eder-griñatik ipiñitako zerbait.

Leenerako ta oraingorako, baliotsu dozu au. Leenerako, begira: gure artzuloetan -Santimamiñe-n adibidez- margo- marrazkiak sinbolu lanak dira geienbat, lerro ta itzal bitartez zer-edo-zer esan nai dabenak. Bertsolariak gaur be olako zerbait ez ete daukue egiten? Irudimen azkar ibilkorrez sinboluak sortzen dabez, gauza zeatz bat aitzen emon naiez. Gauzakiak diran bezelatsu ezin ikusi dabezala, esan daikegu. Gaur berton ez ete dabiltz, olerkariok atan be, olako zerbaiten billa? Sinbolu bidez, ezkutu dagoan zerbait adierazo nai izaten dogu geure sorpen-lanetan. Lojika aurreko pentsaera ei da.

Grezia-ra egazkada bat ba'dagigu, an daukaguz leenengo poetak, mundua eta onek ditun edertasunak abestu euskuezanak. Areik erabilli eben lenengoz «eder» -*kalós*- itza. Gunez zer zan ez ekien arren, emakumeari ezarten eutsoen berezikien. Eder-mota oneik, alan be, atsegin yakezan: kanpo aldetik, kolore, itxura, nabardura, lits eta adierazpena; onoimena, birtutea, oiturazko edertasuna ta abar, barne aldetik. Ederrak dira Musak, naiz-ta billosik egon: aize edo ganduak, au da, lotsak estaltzen dautse euren gorputz liraiña. Emakumeen eta itxasoaren doaia zan asieran ederra; gero baiña abere, arnari, izkillu, uri ta burdietetara edatu zan. Au da: ludian aurkitzen diran eta gizonak bere trebetasunez osatutako gauzak, begientzat betegarri ziranak nunbait, «ederrak» genduzan.

Jakingarri yaku ontaz gerkarren pentsaera. Areintzat iru itzok, eder, on eta obari, iru itz ezbardin ziran. Ona ta onurakorra bardin dira Homorentzat; eta ez dago lokarrik ederraren eta onuraren artean, onurakor baldin bada. Gauza onurakor batzuk ba-dira eder diranak, baita gauza eder batzuk be onurakor diranak. Edozein gauzaki era berean onurakor dogu, baiña ez itzulietara, gauza bat ez da eder onurakor dalako soil-soilki: lur sotilak ez dira eder azia edo ongarrria bota yakelako, uztak damoskun margo-koloreagaitik baiño.

Litsak, matizak, ezagutzen ditu Homerok eta osora eta ederrera zuzentzen dau adimen-orratza; osoaren, ederraren, oiturazko onaren eta onurakorraren artean ba-da zer-edo-zer bardintsu ez dana; litsak, ba, dakaz gogora. Moral-soloan aurkitzen da zerbait ederrari urreratzen yakona: eder da kaia, ziurtasuna eskintzen dauskulako; eder da ipar-aizea, erabat, lau ta gozo putz dagianean, itxas-gaiñez ontziari ibai zear bezela txokol egiten lagun dagionean.

Gure koplarien urduritasuna.—Euskal koplariak, eta bertsolariak batez be, asmamen edo jeinu berezikoak diranik ezin daiteke ukatu. Umetatik dakargun kemen apartekoa da asmamen-indarra. Aurraren pareko ei da jeinua, lau ta sentikor. Eta Schopenhauer-ek onela idazten dau: «Jeinuak dagi aurragan berezko sentikor-bidea baita adimen-jokoa be; jeinuak orixe daroa bizitza guztian, gaztetatik jarraikoa egiñik». Gizaseme buru-argi ta idazle azkarraren lanak, lauak eta laiñoak dira, ulerterrez, jakingarri ta ederrez apainduak.

Doixtar filosofu ezkor onek beronek, jeinuaren eta zoramenaren artean, alako aidetasuna jarten dau. Nun agertzen batez be zoramena? Gomutameneren egokitasunik ezean. Eroak ez dau joanari buruz ezaguera illun bat besterik, baiña oraiñaren ezaguera zeatza dau. Egipenaren arteko lokarri ta artu-emonak, baiña, ez ditu ezagutzen: auxe da bere aiko-maiko ta zearmearka ibiltearen zioa. Emendik dator baita jeinu aundiko gizon asmatzaillekaz iku-gune izatea be. Eta une orretan errazoiari agur-egiñik bizi dala dirudi, bear-bearrezko gauzakaz aztuta.

Gai onetaz ber-esan dagigun leenago «Gure Bertsolariak» liburua idaztean, M. Lekuonak bere idazti eder aozko euskal literaturari buruzkoan oiñarriturik, adierazo nebana. «Egazean auturiko bertso-sail bat irakurtean—niñoan—, olango batasunik eza somatzen da bertatik, bertso ta ahapaldien aria eten antzeko zerbait lez dardar dagoala. Egiari berea emonik, erri-literaturak ez dautso iñoiz jaramon aundirik egin oneri; gure bertsolariak be eztabe ezertan artu. Gogoan izan daigun au: batasuna lortzeko, erea bear da lekuarena, esaerena, gogaiena, iduriperarena, biotz-zirrarena; eta onek uts-emon ba dagigu, guk greko-latiñaren esparruan azi ta ikasiok beintzat, dana naspiltsu ta azpikoz gora dagoala uste dogu. Egiz orrela ete? Euskaldunon jokabidea bestera baita.»

Lekuonak gero, bertsolarien bide-okertze au dala-ta, Errenderi-ko Joxe Zapirain koplariak bere emaztearen eriotzan jarritako bertsoetako bigarren ahapaldia dakar erakusburutzat:

*«Nere sentimentuak biar ditut esan:
— Suerte txarrerako mundu ontan izan—
Gripek arrapatuta emaztia il zan,
— Errezatutzen diyot al dedana elizan—;
Bederatzi semekin alargundu nintzan.»*

Begira nola dabillen bertsolariaren irudimena. Lau-bost gogai daukaguz emen, deslai samar itxura baten. Bere atsekabea lenengo lerroan, barne-miña, emaztearen eriotza, errezatzea, seme-alaben umezurtzetasuna aita alar-gunaren ondoan, azkenik. Au poemaren sarrera besterik ez dozu, irakurle, eta emen ozta-oztan aitzen emon baiño egiten ez dauana, kantu osoaren barruan alderantziz doakez bata besteari jarrai: umezurtzen soiltasuna leenen eta eriotza gero.

Ez arritu, alan be; ele ederretan nun-nai aurkitzen dana dozu au. Emen bada, baiña, beste zertxobait, oso berezia: olerkiaren arira etorri-naia, etorri-nai eza etenbarik gogora ekarriaz aitaturiko zati bakotxaren gai adigarri lez sarrast-urradura biak. Bietan dago, egon be, pentsamentu oldarkor jarduntsu bat-bera, eresi osoaren mamiña lez noizpenka bakarrik ber-esana. Lenengo zatian, gai gailena *alargun* geratzea da, iru aldiz beintzat gogora ekarria. Bigarren zatian, andreak eskaturiko *otoitza*; gogai, idea ori lau bider agertzen da poema barruan.

Egikera au, barriro diñot, ezta ezbear eta eroankizunetakoa bakarrik, zerbait diran bertsolariak edozein gaitan dagiena baiño. Zergatik ete da? Guk albo-izkuntzetakoak ez lako arnasa ta egikera doguzalako, ala etorri ugariegia-ren bat-bateko gauzak eta gaiak ondo eratu eziñaren ondorio, bear bada? Baleiteke bigarren au be: uriol baten ez da errez zer guztiak artez erutzen.

Euskaldun bertsolariaren jokabide onetaz uste ta eritxi barriz agertzen yaku Jurki Oteitza, bere *Quousque tandem...!* liburuan. Euskal egikera edo estiloari datxikola, gure-gurea ta beiña dogula diño bertsolaria. Gogo bi, edesti bi, kultura bi ei doguz: bata barrukoa, geure-geurea, eta inguruko arima-lantzetik artua, bestea. Gure eritxiz azken au bakarrik bizi da, baiña onek ez diñosku dana, barrukoa be oraindik bizi da-ta; oni be begitu ta dagokiona emon bear dautsagu. Ezin daikegu geuganik aldendu. Euskal oiturak, euskal ertiak, euskaldun bertsolariak ezin daikeguz latin kulturari begira soilki epaitu ta adierazo; naitaez, geure-geure dogun barren-edestia, barren-arnasa berezia, arduraz begiratu ondoren, aintzat artu bearra dogu. Orduan gure azterketak egiazko ta onurakorrak izango dira, bestelan ez.

Ederrari eta gure egikera bereziaren inguru egin dogun txango luze samarra amaituz, gatozan orain gorago aitatu dogun gaiari, obeto, P. Lafitte jaunaren bi lanai ekitera. Egoki datoz, etorri be, oraiñetan ikuturiko auziarekin. Ikus dagigun, gaiñ-gaiñetik beintzat, gure olerti-egikera berezia-ren guna. Ortarako, P. Lafittek beiñola arrotu zituan gaiak, koblakariak erabilli bear ebezan legeak, euren poesilanak ariltzerakoan noski, begi-mende jarri ta aztertuko ditugu.

Laburki: aren lege-idaztia aztertuko dogu batetik bat, eta azkenez berak, bere olerki-txorta biribiltzean, zelan jokatu eban.

I. EDER-LEGEAK EUSKAL POETIKAN

Ez da onetaz askorik idatzi. Aipagarri dira, alan be, P. Lafitte-ren «Koblakarien Legea», J. M. Leizaola-k «Euzkadi»-n eta Paris-ko «Euzko-Deya»-n eta «Estudios sobre la Poesía Vasca» liburuetan, eta nik «Gure Bertsolariak», II eta III-garren zatietan batez be, osaturiko orrialdeak.

P. Lafitte-ren poetika lanari gagokiozala, ez da suster barik buruturiko lana, zer lurrez ebillen ekiala egiña baiño. Mugaz andik eta emendik beti izan dira bertsolariak, eta oneik geienik eskola aundi bakoak izan yakuz, oraintsurarte. Ez da arritzekoa, beraz, eurak baiño geiago ekianari, euren ustez beñik-bein, bertsogintzan nola jokatu bear eben itandutea. Neuk be, askotan, askatu bear izan ditut olakoen duda ta adi-matazak.

Gure idazlariari be, gaztetxo zala, egin izan eutsuezan olako itaunak. «Askotan galdegin daukate –diño– zerbait lege bazenetz koblakari berrien gidatzeko, ala zerutikako dohain batek behar zituenetz nolazpait argitu, berotu eta kantarazi.» Eta itaun orreri askapena emon nairik, laster asi yakun ikasten, irakurten eta aztertzen liburuak eta bertsolarien lanak; orretaz idatzirik ezer ez egoanez gero, berak osatuko eban itaunka joakozanai erantzun al izateko beste irakatsi tinko.

Ona nundik nora ibilli zan bertso-lege pillo bat osatzeko. «Gazte-an –diño– nihaurek bilhatu izan dut liburuetan bezala pertsulari zaharren solasetan ere; eta deus argirik ezin atxemanez, kantu ederreneri lotu naiz, heietan kausituko nuela, nehun kausitzekotz, nolako helbideak hartu behar diren neurthitz onesgarri zombaiten ontzeko». Ez eban bide txarra aukeratu, olan egiñak bait ditugu beste izkuntza guztietakoak be, poesiarri naiz beste edozein gairi buruzko legeak idoro, jaso ta sailkatzerakoan.

Leenen idazleak, edo-ta kasu onetan koblakariak, ezinbestekoa dau gaitasun aparta ortan jarduteko. «Bi hitzez erran diteke –idazten daukoblakari bati baitezpadako zaizkola jeinua eta jakitatea. Jeinua, jiteak ematen du, beraz Jainkoaren ganik heldu da. Jakitatea, parte jitetik, parte ikhastetik. Azken pundu hau baizik ez dugu hemen hunkituko: nehori ez dezakegu guk dohain berezirik eman; bainan xoilki zombait xehetasun, zombait konseilu xume, sortzetikako dohainen azkartzeko, laguntzeko eta ahalik hobekiena baliarazteko». Sortzetiko doaiak, izan be, azkartu, osotu ta erabilli bearra daukagu, idazleok batez be.

Egilleak damoskuzan xeetasunak eta konseiluak, puntu onei buruzkoak dira: a) *Geia*; b) *Mugak*; c) *Pertsua*; d) *Kobla*; e) *Mintzairia*, eta f) *Edergailuak*. Guk be, labur zurrian, gaiok txibatutako ditugu gain-giroki.

a) *Geia*

Lan bat osotzerakoan, zetara goazan eta zetan gabiltzan jakin bear da. Bidez doanak asmo berezi bat daroa, soloan azia ereiten dauanak, bardin.

Bertso-egilleak ortara orduko nundik eta zelan jakitea berezkoa dau. Bat-bateko bertsoan daragoionak askoz geiago, jente aurrean bere trebetasuna erre bear dau-ta.

Legeak ezagutu, ereduak ikasi ta arein antzera lan egiten saiatzea, bide egokiak dira norbere idazkera lortu ta idaz-arloan, gari-sail baten lez, oztopo barik aurrera egin al izateko. Edozein gaitan bezela ekiñez jaristen da erreztasuna. Alperrik ezagutuko doguz arte-arau guztiak eta eredurik onenak, idazten saiatu ezik. Bidari dira legeak, ikasbide ereduak; baiña ez da au, naikoa: aurrera jo bear da, egaz egin norbere egoakaz, koblari onak izatea nai ba dogu.

«Koblaka hasi baino lehen –diñosku Lafitte-k–, behar da geia hautatu. Ez da sekulan jiten dena jin abiatu behar, hartzen den bidea ezagutu gabe.» Ez artu, arren, norbere indarren gaiñetiko gairik, ezta idazlearen jeinuaz bat ez datorrenik be, ezta iñolaz be atsegin ez yakonik: ez dautso irudimenik kilikatuko, eta badaezpadako ondorenez iruzurra sartua izango da. Bat-bateko bertso-saioretan, txapelketa ta antzeko batzaldietan sarri, epai-maikoak edo ortarako izentatu batek jarritako gai ta puntuari jarraitu bearra izaten da. Ortik esan oi dogu, nunbait, gure bertsolariak –eta orobat poetak– asko oldoztu ta ausnartu bear dabela. Eder da, eup-ordua datorkenerako, gai asko ausnartzuz adimen-mandioa zer abestuz polito beterik eukitea.

Ez uste, gero, gai danak bardiñak diranik. Ona Lafitte-k bertatik lizun-zaleei diñotsena: «Gei guztiak ez dira berdin egoki. Badira gei lizun edo zikin batzu, eskualdun batek beti bazterrerat utziko dituenak, bere buruaz axola izpi bat balinbadu segurik. Badira bertze batzu biziki arruntak, aditzaleen gogo-bihotzak herrestan daramaztenak, sekulan hegal ukaldi betez goititu gabe. Primetan sari guti holako geiek». Beraz, gai biok, ots, lizunak eta arruntak, saiets izten alegindu bear gara, goi-maillako idazlaritzan parte artu nai badogu beintzat.

Koblakariak erria jaso bear bait dabe, gai jagi aratzak erabillia egoki ta eder yake; ezta lauegiak, entzuleen gogo-biotzai ezer ez diñotsenak, ez datoz ondo orreïn eztarrietan, ez lumetan. Loiak dan baiño loiago emon oi dau olakoagan. Lotsa ta gizalegea nainun eder. Gordinkeriz orbandutako bertso traketsak ardagela ta taberna-zuloetan txarto artuak ba dira, askotaz moztzago emon daroe erriaren aurrean esanak diranean: onelako jardunaldietan garaitasuna ta goi-egazkada leuna eskatzen dira, txalo ozenak irabazteko.

